



KARDABERAZ-3

1974

Nun zet:

I.—BATZAR NAGUSIA TOLOSAN	1- 19
II.—GIZONAK	20
1. Urrutia Gotzon	23- 41
2. Don Jose Miel Barandiaran	42- 44
III.—EUSKERA	45
1. Z	47- 51
2. Lekuona Zazra Erakusle	52- 63
IV.—EUSKALERRIA	65
1. Piarres Lafitte	67- 85
2. Euskalerriko Leen Gizakien Si- ñisteak	86- 91
3. JUDUAK EUSKAL ERRIAN	92-115
4. EUSKALDUNA Palentzia-ko Errian	116-124
5. KRISTO Euskalerrarentzat Kal- tegarri?	125-136
V.—SASKI-NASKI	137
1. Donostiako Gotzaiari Eskutitza.	139-140
2. Villasante Aitaren "AXULAR-en Histegia"	141-144
SU . BAZTERRA	144-147

KARDABERAZ BILDUMA

- 1.º KARDABERAZ AITARI OMENALDIA
(lan bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta. (Lekuona, Akesolo, Onaindia eta abar).
- 2.º NEURRIZTIA
(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg. 400 pta. (Teknika gaia).
- 3.º SUGE GORRI
(François Mauriac — Uxola). 15 x 21: 167 pg.
- 4.º ESPALAK
(Uxola). 15 x 21: 181 pg.
- 5.º AITONAREN IPUIAK
(Ramon Murua).
- 6.º ERREKA-ZULOAN eta...
(Anastasio Albisu Ayerdi).
- 7.º 1) KOMEDIAK-SHAKESPEARE
(Larrañaga, Bedita).
- 8.º LANDARE-JAKINTZA
(Larrañaga, Gillermo).
- 9.º GARTZI-XIMENO eta...
(A. Albisu Ayerdi).
- 10.º EUSKALERRIA ETA ERIOTZA
(Anastasio Arrinda Albisu).
- 11.º 2 - KOMEDIAK
- 12.º 3 - DRAMAK
- 13.º 4 - DRAMAK
- 14.º 5 - TRAJEDIAK
- 15.º 6 - TRAJEDIAK

SHAKESPEARE

KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1.º KARDABERAZ
- 2.º UME TXIKIENTZAKO SOINKETA
- 3.º EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK
(A. Arrinda).
- 4.º KARDABERAZ - 2.
- 5.º KARDABERAZ - 3.

41126
1150
Comitè Diputación Foral de Guipuzcoa

I

Kardaberaz Bazkuna



R. 48140

BATZAR NAGUSIA TOLOSA'N

1

BAZKUNAREN KONDAIRARAKO

ANASTASIO ALBISU
Idazkariak irakurria

1.—BAZKUNAREN KONDAIRARAKO

1973'go Maiatza'ren lenengoan izan genduan gure *Batzar nagusi zabala* Loiola'ko Saindutegian.

Maiatza'ren 14'ean J. L.'ko Larrañaga'tar Gillermo Aita'ren eskutitz bat jaso genduan.

Ba'du jaun onek, Karakas'en saritutako *Landare-Jakintza* liburu bat. Ez du, ordea, argitaratzerik izan. Eta guri eskeintzen zigun, argitaratu nai baldin ba'genduan, bai liburua eta baita Karakas'en eman zioten 70.000 pezetako saria ere.

Garmendia'tar Juan Jose gelditu zan, Tudela'ra joan, eta jaun onekin itz egiteko.

Eta au esan ziguten agurtzean: pozik artuko zituztela ta salgai ipiñiko Kardaberaz Bazkunak argitaratutako liburuak.

Maiatza'ren 22'an Tudela'n zan Garmendia'tar Juan Jose, ta oartxo au egin zion J. L'ko Larrañaga'tar Gillermo Aita'k: Urresti jaunak zuala liburua.

Maiatza'ren 27'an ekarri zigun Urresti jaunak Larrañaga'tar Gillermo Aita'ren *Landare-Jakintza* liburua.

Gazteiz'en giñan *Maiatza*'ren 29'an.

Irarkolan izan giñan lenengotik On Jose Zunzunegi lagun.

Aurreratuak zeuden Larrakoetxea'tar Bedita Aita'ren lanak. Bañan beste bat zan gure orduko jakin-naia: zer kostatuko zitzaizkigun eta noizko argiratuko zizkiguten, alegia, *Kardaberaz-2*, Albi-

su'tar Anastasio'ren bi liburuak, Larrañaga'tar Gillermo Aita'ren *Landare-Jakintza* ta Murua'tar Erramon'en *Ipuiak*.

Gazteiz'ko Aurrezti-kutxa etxean geunden eguardi-eguardian Umandi'ren *Elestia* irugarren aldiz argitaratzeko diru-laguntza eske. Ta au izan zan bertako zuzendari Vicente Botella Altube jaunak eman zigun erantzuna: Aurrezti-kutxak etzuala diru-laguntzarik ematen ortarako; aurreratu egiten zuala baizik diru ori. Ta berdin egingo zuala Umandi jaunarekin ere.

Garmendia'tar Juan Jose gelditu zan Umandi jaunarekin itz egin, eta, eginbear ziranak, egiteko gero.

Ba'da beste eskutitz bat ere, Urrutia'tar Gotzon Aita'k eta Garmendia'tar Juan Jose'k, biak, izenpetua, ta Britania'ko ordezkari agurgarriari Madrid'era zuzendua. Iru izkuntzetan egiña dago eskutitz au; ingeleraz, euskeraz eta gazteleraz. *Shakespeare'n* lan guztiak euskeraz argitaratu nai ditugula-ta, diru-laguntza bat eskatzen zitzaion bertan.

Garmendia'tar Juan Jose'k emango zion, eskuz-esku, eskutitza au dalako Britania'ko ordezkariari.

Umandi, Charritton eta beste batzuekin egon giñan. An ez da euskal-zaletasunik ikusten zoritxarrez, ta orixe-bera aitortu zigun Charritton jaunak ere.

Gazteiz'ko irarkolan giñan Irailla'ren 15'ean, eta baita Urri-lla'ren 2'an ere. Ta antxe izan genduan *Distribuidora San Miguel'go* Saratxaga'tar Txomin'ekin gure lenengo artu-emanak.

Idazle-Eskolako lenengo saioa izan genduan Azaroa'ren 5'ean Donosti'n.

Idazle-eskola bukatuta gero, bertako jatetxe batean alkartu giñan berrero Saratxaga'tar Txomin'ekin. Kardaberaz Bazkunaren eta *Distribuidora San Miguel'en*-arteko artu-emanak zer-nolakoak izango ziran jakin naiginduzan garbi, *Batzorde nagusia* bildu aurretik.

Eta Azaroa'ren 15'ean bildu zan, Donosti'n, *Batzorde Nagusia*.

Garmendia'tar Juan Jose asi zitzaigun, billera ura *Zergatik eta zertarako* zan, adirezten. Giroa sortzen alegia, Saratxaga'tar Txomin jauna etortzean, argibide guztiak berari eskatu al-izateko.

Eta izan zuan zer-argitu Saratxaga'tar Txomin'ek, agindu zitzaion bezela, eguardiko amabi-amabietan batzar-tokira agertu zanean.

Eta gaiak merezi zuala-ta, bazkide guztien billera bat eratzea, erabaki zuan orduan *Batzorde Nagusiak*.

Billera au Tolosa'n izango zan eta Azaroa'ren 29'an.

Nik ez nuan Tolosa'ra joaterik izan, eta nere lagun Ezeizabarena'tar Juan Bautista'k jaso zuan bertako agiria. Eta onela dio:

1973'ko Azaroa'ren 29'an, Tolosa'ko "Librería Técnicas de Difusión" deritzaionaren biltokian, Kardaberaz Bazkunak *Batzar Nagusia* egin du. Irurogei ta amabi bazkide bildu gera. Beren izen-abizenen zerrenda Garmendia'tar On Juan Jose'k berekin du.

Maiburuko auek izan dira: On Manuel Lekuona, Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Aita Damaso Intza, On Pedro Berrondo idazkaria eta Garmendia'tar On Juan Jose diruzia.

Lendabizi Berrondo jaunak itz-egin du, aurreko laburpena edo Batzar-agiria irakurriaz eta Araudiaren beste laburpen bat azalduaz. "Araudiariburuz zerbait gaur erabili bear degu-ta", zion berak.

Bigarren Garmendia'tar Juan Jose mintzatu zan. Bere esanetik nagusienak ara emen:

1. Donosti'n bildu ziran Batzorde Nagusikoak.
2. Antxe erabaki zuten Batzar Nagusi au gaur da emen egitea.
3. Ortarako eskutitzak zabaldu ditugu.
4. *Kardaberaz-Akademia*. Bere urrezko eztaiak ospatzeko urtea datorrenean degu, ain zuzen 1974'an. Izan ere, 1924'an Lekuona'tar On Manuel agurgarriak sortua da Gazteiz'ko Apaizgaitegian. Orduko bere ikasleak, gaur euskal-idazle ta irakasle ikusten ditugu. Uzta ederra benetan.
5. *Liburuak*. Orain-arte argitaratuak erabat ordainduta daude. Iru aurki aterako dira. Argitaratzeko asmotan beste liburu asko daude. Neguaren ondorengo giro onaren emaitzak dira liburu oiek.
6. Gerorako arazoa: liburuak eta bazkideak berriz ere.
7. Tolosa'ko ofizina nola eratu...?
8. Euskalerrriak zorra dio Lekuona'tar On Manuel jaun agurgarriari. 1974'an Urrezko-eztaiak eta Omenaldia Gazteiz'ko Apaizgaitegian.
9. Txit-gaxorik arkitzen dan Zunzunegi'tar On Jose'k beti ontzat artu ditu gure lanak eta leial lagundu. Gure esker ona berari.
10. Diru-kontua onela dago: kuota ta liburuetatik bildu dan dirua 599.000 pezeta dira. Ordaindutakoak 460.000 pezeta dira eta gaur kutxan dauzkagunak 140.000 dira.
11. *Kardaberaz eta San Miguel Etxea*. San Miguel-Etxe au zer eta zertarako dan liburu-saltzalle bezela esan ondoren, *Bi erabaki Nagusi* artu ziran:
 - a) San Miguel-etxeak eta Kardaberaz Bazkunak *Elkartea* sortzen dute gaur, Kardaberaz-liburuak saldu ta zabaltzeko.

b) Argitaratu bear diran lanak aukeratzeko *Batzordea* sortu bear da

Emen, Lekuona'tar On Manuel lendakari agurgarriak bigaldera auek egin zizkion Batzarrari:

- a) Ontzat ematen al-dezute ekonomi edo diru-gorabera...?
- b) Ezer galdetzekorik bai al-dezute...?

Guztia ontzat eman zan eta diru-batzordekoak gure on-iritzi edo voto de confianza" beste urte baterako jaso zuten.

Gero *Aita Onaindia* mintzatu zan. Bizkai'ko Kardaberaz Bazkunaren berri eman zigun: nor diran, nun eta nola biltzen diran, zer dagoiten e. a.

Gaztañaga'tar On Jesus ikastolari-buruzko gauzaz mintzatu zan.

ALKAR-IZKETA

1. Zerbait argitaratzekoan, onenetik onenera egin bear da aukera, al ba'da beintzat.
2. Reparadoras'etako biltokia kendu digute. Idazle-eskola nun jarri...? Seminarioan...?
3. Jendearen esanak:
 - a) Alperrikakoa al'da gure Bazkuna...?
 - b) Gaurko eztabaidetan sartu bear da, ala ez...?
 - c) Motela ta atzerakoa al'da gure Bazkuna...?

Erantzuna: Aintzat ez artu esanak, baña gure lana zintzo egin.

4. Idazkari nagusia nor...? Nun jarri...? Donosti'n...?
5. Bizkai'ko, Gipuzkoa'ko, Araba'ko ta Nafarroa'ko batzar-agiriak liburu batean jarri.

Bazkaria adiskidetasun ederrean egin ondoren, bakoitza bere etxeruntz.

1973'ko Azaroa'k 30.

EZEIZABARRENA'TAR JUAN BAUTISTA'K,
idazkari ordeko.

Eta ona emen, Don Jose Miel'ek igorritako eskutitza:
Garmendia'tar Juan Jose jaunari
Tolosa'ra

Nere adiskide:

Artu det zuen deia; ill onen 2'an, (ostegunean), Tolosan egin bear dezuten billerara joan nadin alegia. Baiñan nik, ostegunetan eta ostiraletan, eskolak dauzkat Iruñako Ikastola-nagusian. Beraz ezin negike joan Tolosara egun ortan.

Min ematen dit egun ortan zuekin egoterik ez izateak: atsegin izango bai zitzaidan ikusi ez ditudan lagunekin itz egitea.

Gorantziak eta beste aldi bat arte; ea zori ohea izaten ote dedan.

BARANDIARAN'GO JOXEMIEL.

Ataun'dik 1973'go Azaroaren 25'an.

Deba'n giñan abendua'ren 6'ean.

Batzar Nagusikoak Donosti'n bezelaxe, ontzat eman zituzten bazkideak, ere, Tolosa'n *Distribuidora San Miguel'*ekin asitako artu-emanak. Eta garbi utzi nai zituan Garmendia'tar Juan Jose'k zenbait gauza gai oni buruz, eta Tolosa'ko Jose Luis Castro lege-gizonakin egon zala ortarako. Ta bi auek izan zirala lege-gizon onen eskuetan utzi zituan egitekoak: nolako nortasuna bear lukean Kardaberaz-Bazkunak eta lege-barruan nola sartuko gendukean, lenengoa, eta nola idatzia egon bear lukean *Distribuidora San Miguel'*ekin izenpetu-bearreko agiriak, bigarregoa.

Eta auxe zan Garmendia'tar Juan Jose'k billera ontan argi-ta-garbi utzi nai zuana. Ona emen bere itzak: nortasun aundiegia du Kardaberaz Bazkunak, gaurkoz, iñoren morroi izateko, eta ez du *Distribuidora San Miguel'*en morroi ere izan bear. *San Miguel* da gure billa etorri dana, ta ez gu Aren billa joan geranak. Eta nork nori ematen ote dio geiago...? Ark guri, ala guk ari...? Bañan bedi dana Euskal-erri ta euskeraren alde.

Ba'zan, bada, zer gogoan euki, *San Miguel'*ekin izenpetu-bearreko agiri ori izenpetutzean.

Deba'n giñan berriro Abendua'ren 21'ean, Santo Tomas egunean.

*Distribuidora San Miguel'*ekin astiako artu-emanak aldatu-bearrean arkitzen giñan, eta ona emen zergatik:

Abendua'ren 10'ean topo egin zuten Donosti'ko kaleetan Garmendia'tar Juan Jose'k eta San Martin Gotzaiaren Parrokiko Erre-

tore jaunak. Eta bidezkoa zanez, jakin-erazi zizkion Garmendia'tar Juan Jose'k gure asmoak: San Martin kaleko gure batzar-tokia Kardaberaz Bazkunaren *Idazkaritza* biurtu nai genduala ta gure liburu guztien *Biltoki*, idazle-eskola galdu-gabe noski. *Idazkaritza* au Kardaberaz Bazkunaren izenean eta Kardaberaz Bazkunaren izenarekin, *Distribuidora San Miguel*'ek eramango zuala, ta berak ipiñiko zuala ere, idazkari izango zan, neskatxa.

San Martin Gotzaiaren Parrokiko Erretore jaunak ez zion bere aldetik eragozpenik ipiñi. Au esan zion ordea: maizter berri bat artzea bezela artuko zuala ori etxeoandreak, eta ez zigula bein-ere ortarako baimenik emango.

Donosti'ko Apaizgaitegian pentsatu zan orduan, eta gure gotzai Setien Jaunak etzuan iñungo trabarik ipiñi gure billera danak Donosti'ko Apaizgaitegian egin al-izateko, baiñan eragozpen au ikusten zuan gure *Idazkaritza* ta *Liburu-Biltokia* apaizgaitegian ipintzeko: beste edozein apaiz-talde batek eskabide berdiña egiten ziola, lotua ikusten zuala bere burua.

Gauzak onela, au izan zan Deba'n artu genduan erabakia: Tolosa'ko Iparragirre zine-aretoan ipiñiko ginduzan gure *Idazkaritza* ta gure liburuen biltokia.

Erabaki onek aldatu egiten zituan, bada, *Distribuidora San Miguel*'ekin asitako gure artu-emanak.

On Jose Zunzunegi'ren gaixotasuna ere aipatu genduan. On Jose'ren babespean argitaratuak izan bait-ziran, Bazkunak, artean, argitaratutako liburu guztiak. Bere ordezkioak, ordea, edo-ta ez dituzte On Jose'k aiñeko aldabak edo-ta ez dakizkitez ark jotzen zituan bezela jotzen, eta orra or gure liburuak, argitaratuak bai, baiñan kalerako baimenik gabe.

Eta egoera ontan zer...? Kardaberaz Bazkuna argitaralde-etxe biurtu...?

Karakas'etik jaso genduan Albisu'tar Balendiñe'n eskutiz batek arindu zituan zerbait gure pentsamentu latz auek. Bertan esaten zigunez, gure lagun Egia'tar Luis'en *Arau-Iztia'k* irabazi zuan Karakas'eko IV-Andima Ibañagabeitia'saria.

1974

Ilbelta'ren 8'an idazle-eskola izan genduan goizetik Donosti'ko apaizgaitegian.

Aratsaldean, ordea, Ataun'en Giñan On Jose Migel Barandiaran'ekin. Azkenengo Gabonetan garrantzi aundiegia eman zitzaion Olentzero'ri, ta gurea etzan Olentzero bat agertu nai izan ziguten zenbait tokietan. Kezka onekin agertu giñan Ataun'en, eta eskabide au egin On Jose Migel'i: egin zitzaigula gai oni buruz, liburuxka

bat argitaratzeko alegia, lan sakon bat, Olentzero'k zer duan euskaldun eta zer ez duan, zer kristau ta zer ez, alegia.

Biamonean eskabide berdiña egin genion On Manuel Lekuona'ri ere: On Jose Migel'ek Mitologi-aldeetik bezela, egin zezaigula berak ere lan sakon bat Literatura-aldeetik Olentzero gai-artuaz.

Eta eskutiz batzuek ere idatzi genituan, Euskal-erri osoko Olentzero-kantak jaso naiean. Kanta auek izango bait-ziran liburuxka orren osagarrikerik ederrena.

Ilbelta'ren 29'an Kardaberaz Bazkunaren bazkide egin zitzaigun gure Gotzai Jaun Argaya'tar Jazinto, ta asmo au azaldu zigun: II Batikano Batzar Nagusiko dokumentu guztiak euskeraz nai lituzkela, ta kardaberaztarroi eskeintzen zigula lan ori. Onela idatzi zion On Manuel Lekuona'ri ere.

Eta Otsaila'ren 28'an bildu giñan, lenengo aldiz Tolosa'n, II Batikano Batzar Nagusiko dokumentuak euskeratzen aleginduko giñan zenbait kardeberaztar.

GAZTEIZ'en giñan Epailla'ren 7'an.

Constancio Beltran de Heredia lagun artu, ta Gazteiz'ko *Información y Turismo*'ko delegadu dan Salvador Blasco'kin egon giñan lenengo.

Arrerarik onena egin zigun Delegadu jaunak. Eta liburu-argitaratzalle biurtu nai genduala, esan genionean, auetxek esan zizkigun berak:

Kardaberaz Bazkunaren izenean baño obe genduala baimen ori *Baten* izenean eskatu. *Bazkunaren* izenean eskatzen baldinba'genduan, Bazkunaren araudi, elburu ta abar eskatuko zizkigutela. Eta Garmendia'tar Juan Jose'k leendik ere liburutegi bat Tolosa'n zuan ezkerro, Juan Jose'ren izenean eskabide ori egitea iruditzen zitzaiola egokiena. Ez genduala, zergatik esan ere euskal-liburuak argitaratzeko nai genduala argitaldari ori. Ta bera prestatu zitzaigun ortarako bear ziran papel-guztiak egiteko. Ta alaxe egin zizkigun ere. Eta ori dana gutxi ba'litz bezela, *Gomendiozko Gutun* bat egingo zigula ere Donosti'ko *Informacion y Turismo*'ko delegadu jaunarentzat. Eta *Aitonaren Iputak* zabaltzeko baimena (azarotik geuden zai).

Apaizgaitegi'ko Irarkolara joan giñan andik, eta idazleen nai-gabea agertu, akats geiegi azaltzen ziralako, an argitaratzen ziran euskal-liburuetan.

Eta Donosti'ko Información y Turismo'ko delegazioan giñan Epaila'ren 26'ean.

Arrerarik onena egin zigun Claveria Alberto delegadu jaunak.

Garmendia'tar Juan Jose'k artu zuan itza, ta gure ikustaldiaren zergatia azaldu: Kardaberaz Bazkuna liburu-argitaratzaille egin nai genduala alegia.

Gazteiz'ko Salvador Blasco delegadu jaunarekin ortarako izandako artu-emanak azaldu zizkion gero, ta arek aolkatu bezela, ta leendik ere liburutegi baten jabe zan ezker, Tolosa'n ipiñi nai genduala argitaldari-etxe ori ta Garmendia'tar Juan Jose beraren izenean.

Eskabide ori egiteko, Gazteiz'ko Delegadu jaunak bete zizkion agiriak azaldu zizkion gero. Zerbait falta zala artean, eta antxen bertan bete ziguten falta zan agiri ura.

Loidi'tar Faben ikustatzera joan giñan arratsaldean Igeldo'ra. Bere olerki-bilduma zertan zegoan jakin nai genduan.

Gazteiz'en giñan Jorrailla'ren 23'an.

Sekulan ez, eta oraingo ontan aitortu ziguten irarkolakoak zergatik agertu izan ziran orrenbeste akats azken-argitaratutako liburuetan. Linotipista baten errua izan zala geienbat alegia, baiñan irarkolatik kanpora zala gaur linotipista ori.

Ordu-arteko zor guztiak ordaindu zituan Garmendia'tar Juan Jose'k, eta *Sancho El Sabio Instituto*'ra joan giñan irarkolatik. Emen bait-du Euskaltzaindia'k Gazteiz'ko bere biltokia, ta euskera ta euskal-gaietako liburutegi eder bat osatzen ari dira bertan. Eta bertako arduradunak esan zigunez, *Kardaberaz bazkunaren bilduma osoa* nai luteke, bai liburuak eta bai luburuxkak, eta orain-arte-koak eramatera joan giñan bada.

Tolosa'n giñan arratsaldean, eta *Batzorde Nagusikoak* hiltzea erabaki genduan. Billera au Maiatza'ren 9'an izango zan eta bertan erabakiko genduan bazkide guztien *Batzar Nagusi zabala* nun eta noiz egin, eta zer gai erabilli ere bai.

Jorrailla'ren 25'ean izan genduan, Tolosa'n, gure bigarren billera *II Batikano batzar nagusiko* dokumentuak euskeratzen ari geran kardaberaztarrok.

Eta Maiatza'ren 9'an Tolosa'n bildu giñan *Batzorde nagusi-koak*:

Lekuona'tar On Manuel, lendakaria.
Akesolo'tar Lino, lendakari-kidea.
Garmendia'tar Juan Jose, diru-zaia.
Berondo'tar Pedro, idazle-eskolako idazkaria.

Tolosa'tar Felipe, Araba'ko lendakaria.
Olazar'tar Martin, Bizkai'ko lendakaria.
Arrinda'tar Anastasio, Gipuzkoa'ko lendakaria.
Ayerbe'tar Inozenzio, San Migel'go ministra.
Galarza'tar Angel, Etxaleku'ko erretora.
Rekalde'tar Manuel, Oskoz'ko erretora.
Petirena'tar Ander, Itxaso'ko erretora.
Meoki'tar Meliton, Yaben'go erretora.
Otamendia'tar Jose Mari.
Albisu'tar Anastasio.

Garmendia'tar Juan Jose'k jardun zuan gero. Ba'zuan onek zenbait gauza garbitzeko gogoia; zergatik ekarri zan Bazkunaren *Idazkaritza Tolosa'ra*, *Idazkaritza berria* eratzeak sortu zizkion atzerapenak, liburuak zabaltzeko izandako eragozpenak, Kardaberaz Bazkuna argitaldari-etxe biurtzeko eman bear izan zituan urratsak eta abar. Eta guzti auek, berak zionez, traba izan dira, oraingoz beintzat, kobraketak ondo egin, eta liburuak bear bezela banatu ta zabaltzeko. Laister, ordea, mesedegarri izango zaizkigu orain-arteko traba auek.

Liburu-argitaratzeari buruz jardun zan gero Arrinda'tar Anastasio.

Billeren benetako egitekoa, ordea, *Batzar nagusi zabala* eratzea zan, eta ona emen bertarako egin zan egitamua:

1. Tolosa'n izango genduan aurtengo *Batzar nagusi zabala* Garagarrilla'ren 20'ean eta goizeko amar t'erdietan. Tolosa'ko Iparra-girre zinearetoan alegia.
2. On Manuel'ek emango zigun ongi-etorria.
3. Berrondo'tar Pedro'k irakurriko zigun, (1973-V-1), Loiola'ko Saindutegian izan genduan *Billera nagusiaren agiria*.
4. Albisu'tar Anastasio'k emango zizkigun laburki geroztiko Bazkunaren gora-bera *guztiak*, eta Garmendia'tar Juan Jose'k beste zenbait argibide.
5. Arrinda'tar Anastasio'k liburu-argitaratzeari buruz itz egingo zigun.
6. Idazle-eskolari buruz Berrondo'tar Pedro'k.
7. Tolosa'tar Felipe'k emango zizkigun Araba'ko berriak, Olazar'tar Martin'ek Bizkaikoak eta Ayerbe'tar Inozenzio'k eta Petirena'tar Ander'ek Naparrokoak.
8. Eratu ote leike bazkide-artean sariketa bat...? Zertarako...? Nola...?

Emen bear zuan azkena kronika onek, baiñan buztan-mutur interesgarri bat sortu zaio.

Bai, *Tolosa*'n giñan *Maiatza*'ren 18'an ere, *Distribuidora San Miguel*'go Saratxaga'tar Txomin'ekin.

Eta ona emen, an erabaki edo esan zana:

1. *San Miguel*'ek izango du gure liburuak saltzeko eskubide bakarra.

2. Berak jasoko ditu argitaraldi-bakoitzeko liburu erdiak. Eta saldu egin bearkeo ditu oiek gutxienez.

3. Berak ipiñiko dio liburu bakoitzari sal-neurria. Ta sal-neurri orren erdia *Kardaberaz Bazkunarentzat* izango da.

4. Iru illabetetik-bein eman bearkeo ditu kontuak.

5. Ez luke bere aldetik eragozpenik izango, *Bazkunaren* alde beste lantxo batzuek egiteko ere, ala bear izan ezkerero...

2

ARGITARATZEARI BURUZI

K. B.

Gipuzkoako Lendakari.

Kardaberaz Bazkuna'ren elburuetatik bat auxe da: liburu eta liburuxkak argitaratzea. Gai oneri buruz, bi gauza auek gogoan izan bear ditugu:

Lenengoa: Gure asmoa, asiera-asieratik, izan da gerra-ondorengo utsunea betezea. Ogeita amar urteko utsunea degu argitaratze arazoan. Utsune ori ez da lan-ezetik sortu. Jendeak ixillean lan egin du eta gogotsu egiñ ere; lan oiek argitara emateko biderik, ordea, ez dute izan zenbait idazlek. Utsune ori bete naiean gabiltz. Orregaitik argitara ziran *Uxola*'ren bi liburuak: *Ezpalak eta sugegorri*; orregaitik *Ramon Muruaren Aitonaren Ipuiak*, eta *Anastasio Albisu*'ren *Erreka zuloan eta*... Bide ortatik aurrera dator *Shakespeare*'ren lan-bilduma guztia, *Larrakoetxea*'k euskeratuta eta *Albisu*'ren *Gartzi-Ximeno*, ateratzeko daudenak *Ixilpean* gordetako lan asko dago oraindik txanda-zai...

Utsune ori betetzea orduko lanekin, orduko estiloan, bear-bearrezkoa deritzagu, lan oiek diralako garai bateko testigu eta lekuko.

Bigarrena: *Zamora*'tar *Joxe Mari*'k (G. B.) *Loyola*'ko lenengo batzarrean esan ziguna ere gogoan edukitzekoa da: K-Bazku-

nak, alegia, aurrera begiratu bear diola eta teknika-gaiari eldu. Asmo ori betetzeko atera genduan *Neurritzia*. Orretarako dauzkagu irarkolan *Landare Yakintza* (*Aita Larrañaga*'rena) bioloji-gaia eta nere *Euskalerrria eta eriotza* (arkeoloji eta etnoloji gaia).

* * *

Leendik atereak: 1. *Kardaberaz aitari omenaldia*; 2. *Neurritzia*; 3. *Ezpalak*; 4. *Suge-gorri*. Oraingoak: *Kardaberaz-2*; *Aitonaren ipuiak*; *Erreka zuloan eta*. Irarkolan daudenak: *Shakespeare*'ren komediak; *Landare-Yakintza*; *Gartzi-Ximeno* eta *Euskalerrria eta eriotza*.

Atera-berri ditugun iru liburu auek peseta asko kostatzen dira eta danen artean zazpireun orrialde osatzen dute.

Laguntza askoren bearrean gaude. Zalantzarik gabe laguntzarik onena, bazkide berriak dira. Ortan saiatu bearkeo degu guztiok...

Don Manuel'en *Lan-Bilduma* ere zai-zai dago eta *Aita Moko-roa*'renak ere bere pausotan datoz...

* * *

Beste gauzatxo bat ere esan bearrean gaude argitaratze lan oneri buruz eta auxe da: zazpireun orrialdeko liburuak euki ditugu, eginda gero, *Seminariotik* atera eziñik, eta illabete askoetan, bear zan baimenik lortzen ez gendualako. *Bilbo*'ko eskutizt sonatuaren ondoren eman ziguten liburuak zabaltzeko baimena. *Azaro*ko billeran jaso bear ziñuzten liburuak, gaur jasoko dituzute...

Ixtori txikitxo batekin bukatuko dizutet itz-jario au. Ume mor-do batekin eldu giñan beiñ *Logroño*'ko erreka bazterrera. Ura bear edateko eta antxen gendukan iturri lodikote bat gure zai. *Bazuan* palanka bat ere. Ari eraginda irteten omen zuan urak. *Palankari* eragiten aspertu giñan, baiña urik ez zan sortzen iñundik...

Joan giñan toki artako zaintzallearengana:

—Aizu, iturriak ez du urik ematen...

—Ez, —erantzun zigun— iturriak ez dizute urik emango, aurretik ura botatzen ez badiozute...

Gure jokabidea ere berdintsua da: liburu-argitaratzeetik dirua ateratzeko (eta bazkideak), dirua bear aurretik liburueri ateratzen laguntzeko.

NAFARROA'KO BERRIAK

Kardaberaz tar lankide anaiak; agur!

INOZENZIO AYERBE'K.

Kardaberaz Bazkunari buruz Nafar giroa emen azaltzeko eskatu zenidaten azkeneko batzarrean, eta ortaraxe natorkizue. Itz gutxitan ordea, zeren eta arlo ontan lenbiziko urratsak ematen asi berri-berriak gara gure Nafarroan. Zealdokan gabiltz beraz oraiño.

Bildur naiz, bakar bat edo beste ezik, inork geiago etzekiela Bazkuna bazegonik ere, alik eta gure D. Joxe Mari Bazkunaren berri ematera etorri zakigun artio.

Makur ez ba nago, Aralar'ko San Migel'en izan ginuen lenda-biziko billera; baño an ez zan erabaki garairik artu; bigarrena berriz Lekunberri'n izandu zan. Nik ez nuen joaterik izandu, baño ba dakit lan ona egin zala eta arpidedun batzuk ere Bazkunari izena eman ziotela. Auxe izandu zan Nafarroan ereindako lendabiziko azia. Billera ontan ni izendatu ninduten Bazkunaren batzorde Nafarrorako, Azpirozko parrokoa dan D. Migel Azpiroz'ekin batean.

Egia esan, ez giñan bertatik lanean asi, Bazkunaren liburuak noiz eskuratuko zai geundelako. Egunak joan egunak etorri, liburu auek ez ziran argitaratzen ta guk ez genekin zer zala ta. Tolosa'ko Batzarre Nagusia egin zelarik, ikasi ginuen liburuak egiñak zeudela, baño ba zirela auek argitara emateko eragozpen batzuk batez ere censura oficial" delakoaren aldetik. Baño eragozpen oiek gainditu zirala ta liburuak artzen aurki asiko giñala. Oraindik ez ditugu artu ordea; ta ez jakiñaren edo ontan ez giñan ausartzen lanean astera.

Alare, ill onen lendabizi aldera eskutitz bat bialdu nien euskalerrietako apez euskaldun guziera, gure Bazkunaren berri eman ez, Bazkuna zer dan, nolako xede ta elburu darabilzkien, nola egiten dun lan, kardaberaztar egin zitezen dei egiñaz. Urko irurogei ta amar bat apezzei bialdu nien karta. Gaur artio batek bakarrik eman dit erantzuna baietzkoarekin.

Auxe da orain arte Nafarroan egin dugun lan exkaxa.

Eta geroari begiz zer?

Denok ba dakigu gure artean, nafarren artean alegia, euskal giro goxo bat suspertzen ari dala, euskalzaletasuna piztutzen eta bizkortzen ari dala, batez ere gazteen artean. Alaber denok dakigu Nafarra'ko Diputazioak, "Príncipe de Viana" saillaren bitartez, nafar izkuntza azken atsetan iltzar dagola ikusirik, euskeraren alde lan bikaña egiten ari dala, edo ikastolai lagunduz, edo euskal kulturari dagokion guzia eragiñaz.

Orobat ikusi dugu Iruñako Apezpikutegian ere ba ditugula euskaltzale jatorrak, oraintsu artio izan ez ditugun bezelakoak. Adierazbidez esan dezakezueket San Migel Aingeruaren irudia urtero bezela Apezpikutegira joan zelarik aurtan, bai arrerako ta bai azken agurra egiteko abestu zituten kanta guziak euskeraz egin zitiotela. Ez da asko, egia esan, gauza ortan bakarrik gelditzen baldin ba da. Baño, nere ustean, orrek zerbait esan nai du, etxebarneko giro bat erakusten bait du.

Eta zer esan Nafarro'ko euskaldun apezetaz?

Ontan garan baño baikor edo optimistagoak izan nai ginuke.

Lengo batean bospasei apez bildu giñan San Migel'en, denak nafarrak, gaurko billera oni buruz jardunalditxo bat egiteko asmatan; eta denak orobat ikusten ginuen nafar apezan artean ba giñala sailtxo bat oso euskaltzalea; beste sail bat arront etsaia; eta geienak ez otz ez bero, edo ta bero baño otzago. Eta goldatz ontan azia ereiteak ez digu ematen, egia esan, itxaropen aundirik.

Alare, nafar apez multxo bat ba gara, lanean asteko eta lanean ekiteko gogorik aundienarekin.

Eta ekingo diogu, ekingo diogunez, Jainkoa lagun, Kardaberaz Aitaren itzalpean, Kardaberaz Bazkunaren indar eta babespean; edo idiak titi, edo mandoak adar!

Agur, anaiak!!

(Ona ondoren Aralar'tik zabaldu zuten orria).

ARALAR tik 'AGURI

"*Kardaberaz Bazkuna*" edo Akademiak zer edo zer entzunik bai al duzu, apez adixkide? Agian bai. Eta argelkeriren bat edo beste ere bai, apike! Gu gizonok besteen lanak guxietsi eta gureak goraiatzera oso eroriak eta ayerrak izaten gara, izan ere. Baño nik Jesukristo beraren itz aiek artzen ditut neurritzat: "Ex fructibus... cognoscetis...".

“Kardaberaz Bazkuna” ezagutzen az ba duzu, itz gutxitan adierazten saiatuko nakizu, ni bait naiz, onez edo txarrez, Bazkunonen batzorde Nafarrorako.

1924'an sortu zan Gazteiz'ko (Bitoria'ko) Seminarioan, Don Manuel Lekuona apez argi ta jakintsuaren babes eta burupean. Baita bizkorki lanean asi ere. Gero, Españaiko anai-arteke gerra zala ta, illunpetan gelditu zan, batere lanik egin gabe.

1970'an, Aita Kardaberaz beraren 200'garren urtemuga bait zan, berpiztu egin ezan, ta lengo kardaberaztarrak lanari lotu ziran, jo ta ke. Apezak dira kardaberaztar geienak, baño ba dira apez ez direnak ere, ortarako aski bait da *Euskaldun Fededun* izatea.

Agiri-agirian da azkeneko urte auetan euskalzaletasuna piztu egin dala, ta arian-arian bizkortzen ari dala. Alaber uka eziña da Elizaren etsai zenbaitek euskera artu dutela armatzat bere propaganda egiteko ta Elizari erasotzeko. Beren esku dira. Baño bidezko iduritzen zaigu guk apezok ere euskera ar dezagun gure lanari ekiteko.

Dena bi itz auetan dago: “Euskera” - “Kristautasuna”.

Euskera, Euskalerriko izpiritu ta gogoaren agerpenik ederrena dugu. Euskal kulturari ekin nai diogu beraz, gure Erri-kulturari alegia. Eta *Kristautasunaz*? Zer esan genezaioke apez bati gai oni buruz, berau bait da gure izatearen eta lanbidearen barne-muiña?

Zer deritzazu beraz elburu onek? Onartzen duzu ala ez? Zuk erantzun.

Nola egiten dugun lan. Euskalerrri osorako Batzar-Buru Nagusi bat dago, onela osoturik: Lendakari (Presidente); Lendakari-Orde (Vicepresidente); Idazkari (Secretario); Diru-zai (Tesorero); Batzordeak (Vocales). Probintzi bakoitzean ere ba daude batzordeak, Akademiaren lanak ezaguarazteko eta berak argitaratutako liburu ta liburuxkak zabaltzeko. Oraingoz nere ta Don Migel Azpiroz'en eskutan utzi dute lan au Nafarrorako. Orrengatik idazten dizuet nik bion izenean.

Zer gai darabilkigun. Edozein, Elizaren legepean tokirik baldin ba du. Gai jator eta mamitsuak ikutu asmo dugu. Ona emen orain artio argitaratu diranak:

1. “Kardaberaz aitari omenaldia”.—2. “Neurriztia”.—3. “Sugegorri korapilloa”.—4. “Ezpalak”.—5. “Aitonaren ipuiak”.—6. “Erreka zuloaneta...”. Liburxka batzuk ere argitaratu dira aue-taz gainera, alanola: “Ume txikientzat soinketa”. “Jainko txikiak”. “Kardaberaz” 1 eta 2. “Kardaberaz” au *Bazkuna*'ren aldizkari ofi-

ziala bezela izango da, euskal gaiak sakonki ikutzen dituela. Beste liburu batzuk ateratzeko prest daude, zensuraren baimena zai; “*Eriotza Euskalerrian*”, v*Landare jakintza*”, “*II Batikano*'ko *Do-kumentuak*”, “*Shakespeare*'ren *Komediak*” et abar.

Beste lan askoren artean, Aita Justo Mari Mokoroa, “*Ortik eta emendik*” izen-buruarekin prestatzen ari dan lanak mereziko luke, ene iduriz, sakrifiziotxo bat gure aldetik: Euskalerrri osotik, “ortik eta emendik” alegia, bildutako esaera zaarrekin irurogei ta amar kuaderno bete ditu, eta denak “*Kardaberaz*”en bitartez argitara emateko asmotan dabil. Orko eun ta ogei milla (120.000) esaera zaar ekarriko omen ditu. Arrigarria! Erri-jakintza aberats eta joria benetan!!

Nola izan Kardaberaztar. Sartzerakoan *milla* pta. ordaindu bear dira sar-ordain eta bein betiko. Gero urtean bein beste *milla* pta., argitaratzen diran liburuak geiagoko ordaiñik gabe jasotzeko. Millaren bat orrialde izango omen dira urteko.

Egia esan, askorentzat sakrifizio bat da, eta ez ain txikia. Baño ez ote dute merezi olako bat gure euskera gaixoak eta gure kristautasun alduak?

Tira ba: emaiguzu zure izena, bial zaiguzu dirua ta euskal liburu jator eta goxoak artzen asiko zara, gauzak makurtzen ez ba dira.

Zure berrien zai agur biotz-biotzez.

AYERBE I.

Aralar'ko apeza

P. S. II onen 20'an, asteak ostegun, urteroko *Batzarre Nagusia* eginen dugu Tolosa'n, goizeko amarretan, *Iparaguirre* zinean. Gero Anaiarteko bazkari legea. Joango ba ziñake ta an esaten direnak entzun ta zure eritzia an agertu, *Ainbat oben*.

A. I.

Aralar, 1974'ko Garagarrillak 1.

KARDABERAZ'TARRAK BIZKAIA'N

GAMIZ

Asikerako ametsak: Kardaberaz Bazkuna sortzekoa zala entzun genduanean poz aundia sortu zan gure biotz-barnetan. Euskerari indarra emateko naia zan poz ori ematen ziguna eta gure ametsa alkaturik geure izkuntza obeki ezagutzea ere ba zan. Liburuak atera eta eskuratzeari ere begi onez begiratzen genion.

Lenengo urratsak: Asmo auekin gutxi batzuk alkartu giñan. Bakoitzak geure idazlana eroaten genuan geure batzarretara. Idazle ospetsuen idazlanak aztertzen genitun geure batzarretan eta iñoz erantzuna eman ere bai. Orrela, lenengo Amorebieta'n, gero Gernika'n egiten genitun gure batzarrak: illero, uts batzuk ba ziran ere.

Bazkide-billa: Bazkideak ugaritzea ere nai genuan. Ez da au lan erraza. Baiña orretarako artu ditugun bideak ere ez dira izan egokiak, edo, gutxienez bide auetatik ez giñan azkeneraiño eldu.

Eun eskutitz baiño geiago idatzi genitun, ezagunai eta adiskideai Bazkunearen elburuak agertuaz. Erantzuna eskatzen genien, baiña erantzun ori eltzen ez ba'zaigun gu bertaratuko giñala ere esaten genien.

Or amaitu zan dana. Berbaz erantzun batzuk artu genitun, baiña ez genien jaramon aundirik egin. Erantzun idatziak oso gutxi izan ziran. Geu ez giñan ikustalde orreïn egitear joan.

Azia erain genuan ba, baiña uzta batzeko orduan ez genuan bear dan lanik egin.

Zer? Denbora galtzea dala? Ez det uste. Zabalkundea egiña dago eta urrengo ereite aldirako lurra obeki gertatua izango da.

Zenbat geran gaur Bizkaia'n?

Orixe ere ziur-ziur ez dakigu. Batzuk ona Tolosa'ra bialdu dituzte izenak, beste batzuk guri, baiña guk onea. Batzuk liburuak artu dituzte, baste batzuk ez. Batzuk ordaintzen dute, beste batzuk ez.

Erakunde sendoa bear: Ikusten degunez, Bizkai'ko Kardaberaz ez dago ongi eratua. Zeiñen erruz dan ori? Guztiok "ni peka-

tari" esan bearko degu, ez ez gutxien arduradun jarrita gaudenok. Eta diruketa ta liburu arazoa geienbat Gipuzkoa'koak eroan duten ezkerro, auek ere errudun izak leitezke. Ba ditugu guziok gure zioak, baiña, zalantzarik gabe, sendotasun barri batekin lanera lotu bearrean gaude guztiok.

Erakundea bera, illeroko idazle-ikastolaren batzarra, beste batzarrak, dirua kobratzeko bideak, bazkide barriak errez artzeko erak, liburuak sasoiz zabaltzeko-ak, aldizkarietan idazteko lanak t. a. jarri bear deguz.

Gaur egiten deguna, ezin ukatu, ez da naikoa, oso gutxi da. Baiña obeki lan egiteko gogoa ba degu eta beste lan askoren artean astia atera bearko da, gure zeregin au baztertuta ez uzteko.

Aurrean daukagun uda ez da izango sasuerik onena lan sakona ta sendoa egiteko, baiña bai gertakizun batzuk antolatzeke, eta gero ikas-urtean erakundea sendotu eta asmoak oso-osoa betetzen saiatu bearko gera. Orretarako Gipuzkoa'rrak, Araba'rrak, Napa'rrak eta Bizkai-tarrak bat eginik eta alkarren barria jakinda jokatut bearko degu. Batasunean aurkituko degu indarra.

II

Gizonak

URRUTIA, GOTZON

Agur, Gotzon. Emen natorkizu zugandik zeozer jakin naiez.

—Nik dakidana zuri jakin erasotea inoren onerako ba'da, pozik erantzungo dautsut.

—Zu, atzerritik etorri zintzanean, berealaxe Kardaberaz-Bazkuna'ren bazkide egin ziñan eta gero Euskel-Idazleen bazkide ere egin zera eta euskera aldezko batzarrik geienetan ikusten zaitut. Nundik datorkizu orrelako zaletasuna?

—Nundik? Neure gurasoak piztu ta neure bizitzako gora-berak suspertu daben indarra'tik.

—Orixe. Zure bizitzako gora-berak jakin nai ditut. Nun jayo ziñan?

—Bizkai'ko erri txikitxu baten jayo nintzan. Gaur Gernika'k iruntsi daun Nabarniz erritxuan. Nabarniz'ak zazpi auzo ditu eta onettiko bat Ikazuriaga da. Ikazuriaga'ko etxe-bikuntzadun Larrin-Etxebarri (Larrinaga-Etxebarria)'n jayo nintzan 1890'ko orrillaren 7'gnean arratsaldeko 7'retan.

—Orduaz ere gogoratzen al-zera?

—Ez; baña orrela diño nire Ugutza edo batio-agiriak.

—Anaya'rik izan al dezu?

—Bai, lau anai ta arreba bi izan nebazan. Anaietatik gazteena, Peli izenduna, jayo ta bigarren urtean il zan; beste irurok belguntzarirako deia artu genduan eta Jaungoikoaren deiari erantzunez Miren-Biotzeko-Seme egin giñan. Zarrena Chocó (Colombia)'n il zan, bestea Chile'ko Linares'en. Arrebetatik bat, Urrupiñe izenduna, 20 urte-edo zituala bertan Nabarniz'en il zan. Ez yat inoiz aztu, il-agian eguala-ta azken igurtza ta azken jaunartza izan ebazanian, jaupariari laguntzen etorri zan txadon-zai edo sakirstauak esan euskuna: *Neskatil au zeruratzen ezpa'da, ez dago munduan zeruratuko dan* PRAILLE ta MONXARIK be. Beste arreba, Terese, etxe-bikuntzaren jabe gelditu zan gurasoak il eta gu lekaide egin giñanean. Beazkoa'tar Elazar eretxon gazte on batekin ezkondu zan.

—Eta zuk noiz alde egin zenduan Nabarniz'tik?

—Amabi urtedun nintzala. 1902'eko dagonillean. Eguna 19'gna. Beste adiskide birekin jua nintzan; gaur Colombia'n bizi dan Mugira-Uruburu'tar Justin ta bere lengusu dan Zabala-Arana'tar

Todor, Joseba ospetsuaren anai, gaur Peru'n bizi danarekin. Arek be, ni ta Joseba "Nabarriztarra" letz, Miren-Biotzeko seme ta euskeltzale sutsuak dira. Irurok Val-matzetara juan giñan.

—Baña zuek zeben artean euskeraz egingo zenduen, ez-ote?

—Bai zera! Sasi-tartean bai, baña agirian ez. Ori eragotzita egoan orduko aldietan Gastelerea ta latera ikasi bear genduzala-ta, euskerea eragotzi egiten euskuen. Ondiño gomutatzen naz zelan bein neure gurasoai euskeraz idazteko baimena eskatu ta ezetza emon eustiela nire gurasoak gastelerea ezagutzen ebela-ta. Ez dot uste nire amak asko ulertuko zuanik. Eta guk koitadutxuok burua makurtu bear izaten genduban. 1905'nean Justin eta ni Segovia'ra juan giñan gure lekaidegaitzea asteko. Todor ezin etorri gurekin urtebete gazteegi zalako. Urrengo urtean arek be bardin egin eban.

—Eta an Segovia'n eragozpen geyago?

—Jakiña! baña Jaungoiko dan Aita ona! Antxe eguzkiak argi egin euskun eta argi dizdiratsua emon be. Gure lekaidegaitza amaituta gero bertan Segovia'n iru urte egin bear genduzan jakintza edo pillosopia ikasteko. Barriz, ba, Nabarniz'ko irurok eta nire anai Andoni ta beste euskotar batzuk alkartu giñan. Ba-zan gurekin beste nabantzar bat be: Gerikagoitia'tar Jon, gizon zintzo ta argia gero Chile'n Mibibus'tarren lekaiderkaba edo porbintziala izan zana eta an il zana.

—*Mibisustarra* esan dozu. Nundik asmau dozu izen ori?

—Ori, ba, gure irakasle argi Arriandiagak eraturako izen polita da. Zuk ondo dakizun letz, gerkarren ALPHABETA ta Ibertarren ALEFATO ta beste erdeldun batzuen ABECEDARIO-ordez, gure Abando'ko Arranoak euskerazko АСАКА argiratu eban, eta АСАКА orretan M'ren izena MI da, B'ren izena BI eta S'ren izena SUS. Guk Miren-Biotzeko Semeok lateraz C. M. F. jartzen genduan (Cordis Mariae Filius) eta Arriandiaga'k itz orrek euskeralduz M. B. S. jarri ebazan.

1936'gn. urteko guda aurretik izki orren esan-naia ondo ezaguna zan. Ez Arriandiaga'k bakarrik, bai eta Zabala-Arana'k eta, Agarel idazlearen anai Bedita'k be, erabilli eben. Azkenengo onek MISIBUS TXIKI jarri eban bere idazkun batzutan.

—Zeaztasun askotxu dakizu; baña lentxuago esan didazu an Segovia'n eguzkiak argi egin zizula, eta ez didazu esan nola izan zan ori.

—Ara! Irakurri ete-do zu Estornés Lasa'ren ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAIS VASCO, Cuerpo B. Vol III. LITERATURA? An 492'gn. ingoskian zeozer aurkituko dozu.

Orduan Sto Domingo de la Calzada edo *Oskabarte'n* ikasle zan Garriga'tar Gabin oporketa-aldian Segovia'ra etorri zan eta an sasi-bidez -edo, baña intxaurren eder batenpean Sabin'en idazti ba-

tzuk eta *Ami Basko* ta olakoak eskuratu euskuzan eta guk, arin be arin irakurri, eta gure Aberri ta izakerearen edestiaz jabetu. Ez da egia, baña, an "grupo intelectual" tzaz esaten dana eta talde ori agintariak banandu ebela. Ondiño mutil koskorak baño ez giñan eta Arriandiaga guretzat goiegi egoan. Segovia'tik Sto. Domingo de la Calzada edo Oskabarte'ra juan giñan eta an egoan Arriandiaga irakasle. Zillegizti, edo erderaz Moral deitzen dana, irakasten eban. Irakasle ta ikasle-tartean banai aunditxua egoan.

Gure talde ori berez banandu zan, bakoitza, jaupaldu edo apaiztuz gero, ona ta ara lan egitera bidalduak izan gintzanean.

—Eta zu nora juan ziñan? Nora bidaldu zinduten?

—Ni Roma'ra juateko izentatuta nengoan, baña orduntxe ain zuzen be, 1914'gko guda aundia asi zan. Ni dagonillaren 23'gnean jaupaldu nintzan (1914) Aranda de Duero'n. Gure jaugo edo agintaritzan nagosia Madrid'en egoan eta gure Arriandiaga zan jaugoaren idazkari. Onek idatzi eustan jakin erasoz Roma'ra ezin nintzake la juan eta beraz etorkizunari begira Oskabarte'n geunkan Irakastetxe txikira juateko. Aldi artan Irakastetxe bi geunkazan Oskabarte'n.

—Zer egin zenduan orduan?

—*Auxe dok ire abagune edarra!* esan neutsan neure buruari. Oñarte ezin izan dok euskerarik ikasi. Etorkizuna zein izango dan ez dakik, beraz EUSKEREAK sakon ikasi. Esan eta egin. Campion'en GRAMATICA DE LOS CUATRO DIALECTOS LITERARIOS eskuratu ta euskerea sustraiz ikasten jarri nintzan.

Urrengo ikastaroa eldu zanean, 1915'gko irallean Val-matzeta'ra bidaldu ninduen an latera mutillai irakasteko. Ikastaroa amaitu ta berrialaxe 1916'gnean barriz Oskabarte'ra an Urtziztia edo Teologia irakasteko, uda bertantxe asita. Orduan udean be ikastola izaten genduan bereziko gai batzuk ikasteko. Nik urte orretan Siñismen-zaintza edo Apologetikea irakatsi neban. Au zan Oskabarte'ko Irakastetxe Nagosian. Ara nun eta zelain oin GIZON eginda aurkituten nintzan. 1916'gnetik 1922'gnerarte Urtziztia irakasten egon nintzan. Orduantxe asi nintzan gure aldizkingi batzutan idazten be. Lenen lenengoz jauparientzako zan JAUNGOIKO ZALE'n. An erabilli neban gaya URTZITIZTI TA UZKURTZ-EDESTIJA (Teologa e Historia de la Religión). Aldizkingi bertantxe beste gai bat be erabilli neban eta au zan: *Batikano ta Kirinal* izenpurutua.

—*Urtziztia*, esan dezu. Ez ote dezu uste itz ori berrikeri bat dala?

—Barria dala, bai-edo; baña "berrikeria" ez. Gauza guztiak asi ta jayoten diranean barriak dira, baña gero erabilliaz azi ta zar be zar egiten dira. Orain irurogei urte "idatzi" ta "idazti" itz barriak ziran, gaur edonork derabiltz eta edozeñek ulertzen ditu;

urte asko ez dirala "urrutizkin" itz barrizat artzen zan gaur ez, eta orrela beste itz asko be askogaz. Ludi osoan ondo ezaguna dan Horatius ospetsuak esan eban lez:

...verborum vetus interit aetas
Et juvenum ritu, florent modo nata vigentque.

Eta batzuk ainbeste eta zuzen maite daben Cervantes'ek: *Y cuando algunos no entiendan estos términos, importa poco; que el uso los irá introduciendo con el tiempo para que fácilmente se entiendan.*

—Gatorzan berriz arira. Zuk euskerea Campion'en elezti-bidez aztertu ta sakondu zendula esan dezu. Etzenduan, baña, itz berrien zaletasun ori beragandik lortuko.

—Ez, zaletasun eta maitetasun ori Sabin eta Arriandiaga'gandik lortu neban. Ain zuzen be neure idazkun geyenak Arriandiaga-bidez bidaltzen nebazan. Len esan dautsudun lez, Arriandiaga gure Jaurgo Nagosiko idazkari zan eta orregaitik berari idazteko eta bere -bidez idazkunak legez bidaltzeko eskubidea neukan. Idazkun orren artean Bilbao'ko EUSKEREAN agertu zan DEFENSA DE LA VOZ NESKUTZA EN EL TERRENO TEOLOGICO. Idazkun au Euskaltzale Bazkunak izenpetuteko zan, eta orregaitik EUSKEREAN izenpetu barik agertu zan eta bere alboan Argori'ren beste lantxu bat agertu zan Neskutz ala neskuts izan bear zan jakin erasoteko.

—Zer deritxazu Arriandiaga'tzaz?

—Nire ustez gizon egiz argi ta jakintsua zan. Eta alan eta be apal ta besterekiko itzal aundikoa. Nik buru-belarri jarraitzen neutsan eta geroago EUSKO-GOGOAN idatzi nebazan idazkunetan bere garbi ta bideai itsasten neutsen. Ondiño be bide orrek maite doudaz, baña *gaurko dirala-ta*, oraingoz erri-bidez idazten dot.

—Eta Campion'gandik zer ikasi zenduan?

—Euskelgi guztiak pentsa-bide edo logika bardin eta estua eukiela. Ori dala-ta euskel-aditzaren sustraiak azalduteko EL VERBO EUSKERIKO idatzi neban. Idaztiño ori Zabala-Arana'tar Joseba'k argitaldu eban Tolosa'ko gure adiskide Mendizabal'en irarkolean. Irarri-utsak eta bestelakoak be ba-ditu, baña ondiño apur bat biritilduz euskel-aditza ikasteko onenen artekoa dala deritxat.

—Beste idazti edo idaztiñorik ez ote —dezu argitaldu?

—1922'ganean Jaungoiko-Zale Bazkunak dei eginda itzaldi bat eurai egiteko eta itzaldi ori JAUPARIJA ETA EGLJA izenpuruaz zabaldu eben. Itzaldi orretan argi be argi jarri neban Jaungoikoaren eta Elizaren naia dala EUSKELDUNAI EUSKERAZ egitea.

—Noiz arte egon ziñan Oskabarte'n Urtziziti-gaiak azaltzen?

—Urte orrexetararte, 1922'gn, urterarte. Urte orretan nire na-

gusiak ni euskereaz naiko jabetuta nenguala uste izan eben, eta beraz ni Tolosa'ra ekarri ninduen.

Baña aor! urte bertantxe eta ni etorri ta aste batzuk geroago Gernika'n EUSKO-IKASTE-BATZARRA edo Congreso de Estudios Vascos. Neure nagusien baimena lortu neban batzar orretara juateko ta bertan abagunerik onena izan neban, illa bi lenago Jaungoiko-Zale'ren bazkideai esan neutsena barriz esan eta zabaltzeko. Nire itzaldiak iskanbilla apur bat sortu eban eta Gotzaiñaren aurean salatu egin ninduen. Ain zuzen be Gotzaiña urrengo egunean bertan Gernika'n egoan eta dei egin eustan. Berak nai eban nik Batzarraren esana ezeztutea. Nik ezin neikeala Eleizak irakatsitakoa ezeztu, erantzun neutsan; baña, berak orrela nai ezkerero, nik Batzarraren esango nebala, berak (Gozzaiñak) esanda nekiala emen Euskalerrian Elizaren irakaste orrek betetzen zirala. Ori ez eban nai izan berak. Ez neban ezer ezeztu bearrik izan.

—Eta ondorena?

—Ondorena? Gazteiz'ko goterki edo diocesis'etik nik urten bearra, Gotzaiñak orrela nai ebalako.

—Baña zure nagusiak nola artu zuten agintza ori?

—Nire nagusiak argi ta garbi esan eusten nik ez nebala okerrik irakatsi, baña ez ekiela ni zuur izan ete nintzanik. Bear ba'da ni Euskalerritik at bizi izan nintzalako emengo egoerea ez nebala ondo ezagutuko -edo. Nik auxe erantzun neutsen: Orrelako auzietan iru mailla izan darue. *Lenengua*: Ori oker da, ori guzur da. *Bigarrena*: Ori ez da oker, baña ez da zuur, ez da egoki. *Irugarrena*: Ori da egi biribil biribila.

—Eta zuk zer egin zenduan orduan?

—Nik, neure nagusiak be, nik esandakoa *zuzentzat artzen* ebe-la jakiñaz naikoa nebaleta argia nundik edo andik agertuko zalakoan atzera Oskabarte'ra jua nintzan. Gure Ikastexera eldu ta atera deitu nebanean, atea egegi eustana adiskide euskotar bat izan zan eta onela agurtu nindun: Gizona! baña doibazkatuta (eskomunikatuta) aguala esan yeuskuek. Ez, mutil, erantzun neutsan, ez orrenbestarik, nik yakiadala beintzat. Barre egin genduan eta nartar zintzo zan etxeko nagusiaren gelara jua nintzan eta galdetu neutsan ia besteakin alkartu ete-neikean. Zer ba; itandu eustan berak eta nik: ba, or atean esan dauste doibazkatuta nagola-ta. Onek ez barre bakarrik, karkaraka jarri zan. Euskotar ez ziranak be anaikiro artu ninduen. Andik laster Estepan deunaren jaya zala ta txadon edo eleizean itzaldia bere omenez egiteko eskatu eustan etxeko nagusi on eta zinzoak. Nik neure itzaldiaren mamia onela jarri neban: *Estepan deuna egiaren aldezele*. Argi be argi esan neutsen egiaren aldezeleak, Estepan letz, zelan jasarkatuak izaten diran, lenengoz okerra zaintzen dabela esanez eta oker dagozala

egiztu ezin dabenean, iraindu ta izen baltzitu egiten dabezela eta orrela be, nai dabena ezin lortu dabenean arrika edo indarrez zapaldu, erbestetuz ta abar.

Erdaldun batzuk etorri yatazan esanez ez ebela iñoiz alako itzaldirik entzun eta nik erantzun neutsien: Ba, neure buruaz ol-dotuen egon naz. Egi-bidean okerrik aurkitu ez daustenean, izen-baltzitu nabe esanez doibazkatuta nagola eta orrek barre eragiten daustela ikusi dabenean, erbestetu.

—Noiz arte egon ziñan Oskabarte'n?

—Illa bi bakarrik. Guk geure Betika'ko erkian daukagun Urtziziti-Irakastetxean Urtziziti-Irakaslea gexotu egin zan eta orduan gure Nagusienak idatzi eustan galdetuz ia arako izendatzea ontzat artuko ete-neban. Bide batez jakin erazo eustan ez ninduela ara bidaltzen zigortu letz, laguntza-bearrean eguazalako eta legez emengo erkikoa izanez baizik. Atzera ona etortzeko ta al izan ezkerro Euskalerrri'ra.

1923'gko urtarrillaren 7'gnean eldu nintzan Zafra (Badajoz)'era an urtziztia irakasteko. Nire ikasle-tartean gaur janzkordun dan Tabera'tar Artur egoan, bai eta ortik ondo ezagunak urten diran Peinador anai biak eta Augusto Andrés Ortega.

—Noiz arte egon ziñan an?

—Urte bi. Gero Jaen'eko nagusi izentatu ninduen iru urterako eta gero Ubeda'rako. Baña bigarren izentatze oneri ezetza emon neutsan, naiz ta an ederto baño edertoago nengoala. Ni ez nintzala erki atakoa zio'tzat emon neutsen. Orduan Sevilla'ra bidaldu ninduen nire atzera etortzea argituarte. An Sevilla'n Agerre'tar Joseba eta Almandoz jaunarekin adiskidetu nintzan. Beti ta edonun euskotar agertzen nintzan eta *El Vazko* deitzen ninduen.

—Baña zu Gazteiz'tik erbestetu zinduna oin ez zegon Gazteitz'en. Zegaitik ez zinduen ba atzera Euskalerrri'ra ekarri?

—Andalucia'tik Asturias'era ekarri ninduen. Gero España'n Erkala agertu zanean Paris'era bidaldu ninduen ango MISION ESPAÑOLA'ko nagusi edo zuzendari izateko. Belguntza edo MISION ori langille españarrai laguntzeko da. Arei laguntzera beartuta nengoan eta bearkunak betetzea beti biotzez artu dot. España'ko igarobide edo pasaporteaz euskotar asko etortzen ziran. Nei, jakiña! gogo osoz laguntzen neutsen. Egun baten Paris-zear nuala ango jattetxe baten barruan euskeraz abestuten iñardueta entzun neban. Itsu-itsuan bertara sartu nintzan eta aor Orkasberro'tar Karla ta bere lengosu Legarralde jaunak. Berialaxe adiskidetu giñan eta antxe bertan euskera ta euskaldunen alde zeozer egiteko asmoa artu. Artu ta egin. Paris'ko lenengo Eusko-Etxea zabaldu genuan. Etxe ori edegi genduanean auxe esan neutsen an egozan beste aldeko euskotarrai: Zuek ez zarie españar, baña zuek euskotarrak zarie;

ni ez naz parantzetarra baña ni be euskotarra naz. Beraz orretan alkartu bear gara. Euskotar letz bat egin eta lan. Paris'tik idazten neban Bilbo'ko EUSKAREA'ra.

—Noiz arte egon zintzan Paris'en?

—1934'gnerarte. Orduan barriz Asturias'era ekarri ninduen Gijon'eko agure etxeko nagusi izateko.

—Urte orretan Asturias'etan jazokun gorriak izan zirala us-te dot.

—Bai, eta neuk be gorriak ikusi nebazan. Goiz baten jagi ta laster atea edegitera juan nintzanean atea erdi erreta ikusi neban eta baratzeko atea be bardin. Ori dala-ta arriskuan gengozala oarturik neure menpekuok erriko adiskideen etxe batzuetan banandu nebazan. Adiskide onen artean ba-egoan bat euskotar zintzo ta ona zana, Sarasola'tar Erraimunda. Onek asko lagundu eustan.

Nik Gijon'en ikastetxe bat eregiteko asmoak nebazan eta orretarako Borbujo'ren alargun zan Margarite'k diru askotxu eskeiñi eustan. Txindi-pilloa ezin zan txindi-etxe-bidez Bilbo'ra bidaldu ta beraz egun baten neukin artu ta Bilbo-bidea artu neban. Sotanaz jantzita eta su-burdiko irugarren maillan. Noreña'ra eldu ta Santander'erako bultzia artu nebanian *ukubillak gora* jarri ziran. Egun ori *dia de la liberación de los rojos* zan, eta ain zuzen be bultzi artan egoan gorria agertu zalako espetxean egondako irakasleme bat. Neure jarlekua artu ta arduratsu jarri nintzan. Nire alboan egoan langille bat asi zan jaupari edo apaiz'en aurka itz egiten, ni ixillik. Baña Rivadesella'ra eldu gintzanean an ikusten zan Jesus'en Biotzaren irudi eder bat arpil baten tontorrean. Eta langilleak irudiari begira: *Ori be* jarraitu eban, *ori be...* Nire barru guztia irabiatu yatan, eta ezin neikeala ixillik jarraitu erabagi neban eta... *Gizona!* esan neutsan, *ori*, zuk diñozun ori Jesukristo'ren irudia da eta jakin egizu Jesukristo, zu letz langille izan zala eta langilleai laguntzearren il zala... eta jaupariak'tzaz, emen daukazu bat Gijon'en Llanos'ko auzoan langillea ikastola dubarik emoten dautsiena eta ez dauz langilleok mezatara juatera *beartuten* baña juaten diranai saria emoten dautse Santander'era eruaneez edo beste bide batez... Bai, erantzun eustan berak, ba-dagoz batzuk. Ba, nik erantzun neutsan, batzuk ba'dagoz zegaitik zuk esaten dozu danok? (*que le cuelguen, que le cuelguen* entzun neban batzuk esaten ebela) baña ez zan ezer jazo. Bidiato deretxan geldokira eldu gintzanean irakasleme gorria ta bere lagunak alde egin eben *ukubillak gora* jasoz...

—Orduan zu Aberrira sarri etortzen al ziñan?

—Bai, Eijo ta Garai jaunak alde egiñez gero. Paris'tik be etorri nintzan belguntza edo misio bat euskeraz emoteko Oderiz (Naparra)'n. Andalucia'tik be bai ta Asturias'tik sarriago.

—Eta gure gudea asi zanean nun ote zeunden? Asturiasetan?

—Bai, nire bizitoki egoerazkoa Asturiasetan egoan, baña ego-
tez egun atan Euskalerrian nengoan, Bilbo'ko Indautxu'ko txadon
edo eleizan irurrun bateko itzaldiak egiten. Lenengo egunetan go-
rriak eta erdi igaro nebazan. Len esan dautsudan letz, nik Gijon'en
ikastetxe bat eregiteko asmoa nerabillan eta orretarako Borbujo'ren
alarguna zana gandik laguntza aundia izan neban; baña ba-neba-
zan beste batzuk be laguntza eskeiñi eustenak. Onen artean Aysa-
guer'tar Ernestiñe, Paris'en Argentiña'ko Ordezkaritzan bere se-
meak lan egiten ebala-ta, an bizi zana. Au, egun aretan Ernani'n
egoan oporketak egiten. Bera ikustera jua nintzan. Donosti'ko
geldokira eldu nintzanean, batzuk galdetu eusten. Nora zoaz? Nik
erantzun: Neure bearkuna betetzera. Zanaketa aunditxoan zan
Donosti'n. Ernani'ra eldu nintzanean, Ernestiñe'k esan eustan: ba-
ña zelan zatorz orrela? Sotanagaz jantzita? Ez dakizu ba, or Na-
parra'ko bidetik datortzala eta jaupari ta lekaideen aurka dabil-
tzala? Ez, ezin zindeke orrela ibilli. Gaur bertan geldituko zara.
Gau larria igaro neban. Ez neukan beste jantzirik. Sotanapean
praka zar edozelakoak. Zer egin? Orduantxe bururatu yatan zer
egin. Nik ille batzuk lenago Bilbo'n EUSKO-LANGILLEAI itzaldi ba-
tzuk egin neutsiezan eta barriz Asturiasetara jua baño len, Or-
maetxea'tar Kepa Eusko-Langilleen buru zanari "langille-txartela"
niri emoteko eskatu neutsan, Asturias'etan arrisku aundiak neba-
zala-ta. Eta Kepa'k erantzun. Ez, ori ezin dot, olakorik egitea
eragotzita daukagu; baña ori baño gauza obea emongo dautsut,
zuk gure alde lan aundia egin dozula agertuz. Esan eta egin. Emen
daukat ondiño agiri ori Berak Kepa'k eta Pedro Herrán y P. de
Landazabal idazkariak izenpetua Bilbo'n 1936'gko epaillaren
6'gnean izenpetua.

Agiri ori neurekin neban eta Ernani'ko Eusko Langilleen bu-
ruari deitu ta zelan nengoan jakin eraso. Mutil arek berialaxe bes-
te iruri deitu ta emon eusten langille jantzi-ganeko bat eta belbil
arin bat artu ta Donosti'ra geure etxera Mibibus'tarren etxera eruan
ninduen. Iru langille aretatik batek belbilla eruan, beste bat su-
izkillu bategaz leiotik begira eta irugarrena oarkari letz beste leio-
tik begira.

—Eusko-langilleok ondo ordaindu zizuten zure lana, e?

—Bai egi-egiz orrela da. Baña gorriena ondiño etortzeko zan.
Nik neure barruan ainka egiten eustan artxoa neban: Gijon'eko
nagusi nintzan eta nire menpekoak zelan ete ebiltzan jakin nai.
Bai ta eurai laguntzera juateko gurari bizia be. Nun eta zelan lortu
arako igaro-bide edo orduan esaten genduan *salvo-conducto*? Lege-
gabeko-edo ziran C. N. T.'ko langilleak gure Donosti'ko etxe'ko
begiratokiaz jabetuta egozan. Langille orren artean ba-zan bat Peli

izenduna ni Paris'en ezagutu ninduna. Berak ni ikusi ta berialaxe
esan eustan: Zu Paris'en egon ziñan eta zuk guri oin-pelotariari
(footballistai) itzaldi bat egin zeuskun. Nik berari: Orrela izango
da, nik itzaldi asko egin nebazan Paris'en ba-ta. Eta berak: Zuri
ez yatsu ezer jasoko, geuk zainduko zaitugu. Eta nik: Eskarrik asko
ta lotara jua nintzan. Urrengo goizian meza emon eta gero neure
igaro-bide edo salvo-conducto billa asi nintzan. Baña etxetik urten
eta berialaxe beste langille sendo bat, su-izkillu aundia eskuetan
eukala, arpegiz arpegi jarri yatan. Emen nun jaten da? itaundu
eustan. Eta nik: Ez dakit, ba, baña zure lagun batzuk atzo apaldu
eben. Eat geure etxera zuzendu ta lagundu neutsan. Baña etxeko
atera eldu ta bertan goiko eskillaratik bera bota nindun. Etxe-on-
doan egozan beste bere lagunak euren su-izkilloen ipurt-aldeakaz
ni joten asi ziran... Baña an goian egoan gure Peli ta leiotik dia-
darka esan eutsien: *Orreri ez, orreri ez* Sutundu nintzan eta nin-
tzan baño kementsuago agertu. Ikusten dozue? Zuen buru dan
orrek diñotsu niri ezetz, eta nik diñotsuet: Ez niri, ez beste iñori.
Gizonari entzun bear yako eta errudun ba'da epaipetu. ...Odoletan
nengoan eta langille arek eta beian egozanen buru-edo zan su-izki-
llu aundidunak belbil baten sartu ta gexo-etxera eruan ninduen. Ez
dakit zein gexo-etxe izan zan. Ez neban Donosti ezagutzen eta orain
be ez dakit nun dagozan ango gexo-etxeak. Gexo-zañak nire burua
garbitu ta lotailluz estaldu eusten eta orain nire zaindari irudikan
su-izkillu aundidunak atzera euren belbillara eruan nindun. Atzera
lengo tokira, baña neure etxean ezin nintzakela sartu jakin eraso
eusten eta ia nora juatea nai neban. Nik ez nekian zer erantzun.
Baña laster bururatu yatan zer erantzun: EUSKO-ETXERA erantzun
neutsan. Bere baietza emon baño len azterketa bat egin eustan eta
azkenez ara eruan ninduan. Nik ez neban iñor ezagutzen Eusko-
-Etxean, baña euskeraz egin neutsen eta auxe esan: Gizon onek
erail gura izan nau, baña nik KRISTAR-LEGEZ eta JAUPARI-LEGEZ
azketzen dautsat. Ez dakit zer usteko eben an egozan euskotarrak
ni alako etxureaz (praka zar, burua loturaz jantzita, langille- jantzi
bat ganean... Tamala, orduko argazki bat ez eujitzea!

Eseri or, esan eusten ango arduradunak. Eseri nintzan, baña
iroiren edo minutu batzuk igaro-ta abotz bat entzun zan: *Kanpora
denok, kanpora. Eusko-Etxea sutan jartzera eidijuaz*. Urten giñan
danok eta aor ni barriz kalean nora jo ez nekiala ez eta nun nen-
goan be. Zaldun bat gelditu zan atepean; nik ez neban ezagutzen,
baña ba-nekian Eusko-Etxean egon zala. Beraganatu nintzan eta
auxe esan neutsan: Arren! esango daustazu nun bizi dan emengo
txaunburu edo parroko jauna? Ni jaupari edo apaiza naz.

Eta berak erantzun: Bai al dezu apaiz-agiririk? eta nik: Ez,
ez daukat iñungo ta iñolako agiririk, baña zu egon zara Eusko-

-Etxean eta zuk entzun dozu zelan nik, iñok itandu barik, an esan dodan: NIK JAUPARI-LEGEZ gizon areri azketzen neutsala. AOR DAUKAZU NIRE AGIRIA. EZ DOT ESANGO JAUPARI NAZALA GAURKO EGUNEZ, JAUPARI IZAN EZIK. Eta gizon arek artu nindun eta etxe bertantxe Sesé'tar Pardinada apaiz jaunagana eruan nindun. Gero jakin neban zalduna Leizaola zala, ez Josu baizik Endika edo Errikarta. Sesé jaunak atea edegi ta nik neure bularra edegiz: Apaiza? itaundu neutsan. *Ni be bai.* Eta negarrak ito nindun. Sesé jaunak anai bat letz artu nindun. Ur apur bat edan eta urrutizkiña'ra jo neban neure Donosti'ko Mibibus'tarra deitzeko.

Deitu neban eta erantzuna auxe izan zan erderaz: *Aquí la C. N. T.* (Confederación Nacional del Trabajo). Eta nik: *Quiero hablar con el P. Gómez.* (Gomez Edorta zan ango nagusi). Eta berak barriz: *Aquí la C. N. T.* Eta nik: *Soy el P. Urrutia. Diganle al P. Gómez que estoy salvo.* Eta berak: *Pero hombre! si creíamos que le habían fusilado. Hemos visto que le llevaban en aquel coche y hemos pensado que le habrían fusilado, porque hemos preguntado al Centro socialista y al Centro tal y cual...* Eta nik: *Pero VV. no han preguntado al Centro Vasco y allí me he salvado...* Sesé jaunaren etxean egon nintzan bost egun-edo etxeko letz baña etxetik ezin genduan urten. Kaleko zunpaketea aundia zan.

Jagoba deunaren egunean-edo urten giñan eta meza emotera Bingen deunaren elizara. Nire meza-erasosle Lezkano eretxan gizon bat izan zan eta ain zuzen be jostuna zan. Berak ori esan eustanean nik esan neutsan: Begira zelan nagoan, (nire jantzia erakutsiz). Eta berak: Ba... nik an daukat jantzi bat jabeak nai izan ez zuna ta zeuri emongo neuskizu ondo ba'deritxazu. Esan eta egin. Juan giñan bere etxera ta an bere emazteak-edo jantzia niretzako atondu ta a emen ni oin ondotxu jantzita. Eun eta bederatzi laurleko ordaindu neutsazan. Gaur ori ez da ezer, baña orduan bai eta nik ba-neukan neure itzadiakaz irabazitako txindi apur bat. Orrela jantzita juan nintzan Eusko-Etxera ta an iru margozko besostuna artu ta ...zuzen neure anaiak, Mibibus'tarrak ikertzera. Etxetik urtenda egozan guztiak, C. N. T.'koak etxe-jabe, nire gelako zorrote ta gauzak sakabanatuta... Juan nintzan nire anaiak euken bizitokira eta onek ikaratuta gelditu ziran ni ala ikustez. Gu-zale ez zan batek esan eban: Um! Zer egin ete-dau onek? eta nik erantzun. Ezer be ez; zinzotz jokatu bakarrik.

—Ez nekian olako gorriak ikusi zenituzunik. Ba-dira jakin garriak jazokun orrek.

—Bai-edo, batez be neure jau-pari-agiria, ez ete?

—Bai, egiz. Gizonen agiriak baño indar geiago du orrek. Nola atera ziñan Donosti'tik?

—Ba, len esan dautsudan letz, nik barruan nerabillan ainkala

neure arra, Gijon. Eta seigarren egunean-edo Bilbo'rako bidea artu neban. Neure jantzi garbi ta ederragaz ez zuan iñok susmetan ni jauhari izan nintzakeanik. Zarauz'en Pantziskotarrengana jo neban meza esateko; eta arek gatx agertu yatazan niri siñistuteko. Baña ba, an esan neban neure meza. Bilbo'ra elduta, an be nire anaiak etxetik jaurtita bizi ziran. An gure Nagusi-ordezko eguan Munarritz'tar Julen'gana jo neban eta Gijon'era juan gura nintzala jakin erazo. Ez, erantzun eustan berak. Ezelan be ez. Ezin zara Asturias-tara juan orain.

—Orduan zer egin zenduan ba?

—An egoan gure Zabala-Arana'tar Joseba (Nabarriz'tarra) eta biok erabagi genduan gudarien jauhari letz geure buruak eskeintzea. Geure nagusi ziranen baimenak lortu ta Otxadio'ra juan giñan. Amen daukat Bilbo'n Gobernadore zanaren agiria: Begira zer diñon: *Se autoriza al Reverendo Padre Don Angel de Urrutia para incorporarse a la columna de Ochandiano con objeto de servir a la República en labores propias de su ministerio. Bilbao 1 de Agosto de 1936.*

Bidean geure arriskoak izan gebazan. Gure lagunak C. N. T.'koak ziran eta onek bein ia ormara begira jarri ginduen, baña ondo urten giñan. Otxandiano'ko jauhariak iges eginda egozan. An Ama Esperantza deitzen eutsen lekaimetxoak eukan etxean egon giñan estatuz. Lenengo egunean Gexo-etxera deitu neban an zaurituta-edo egozanezi zeozer esateko. Zu osagillea ete-zara? itaundu eustan lenen ikertu nebanak. Eta nik: Ez, ez naz osagille, ni jau-paria naz. Eta berak: Baña jauhariak gure aurka dagoz... Ez, gizona, ez; gu ez gagoz zuen aurka zuei laguntzera etorri gara. Eze-tarako bear ba-nauzu emen naukazu eta bear ez ba'nauzu adiskide geldituko gara. Eta jakin zuri letz zure aurka dagozanai be lagunduko neuskiela, or iturriaren beste aldetik zuri su egiten dautsuenai...

Gu "Gurutze Gorri" aren besostunaz ibiltzen giñan lenengo egunean; baña jakin erazo euskuen ez zala legezko orrela ibiltzea eta beraz albora itxi gebazan orrelako agiriak.

—Noiz arte egon ziñan Otxandiano'n? Egun gitxi. Aztu yat len zuri esatea Bilbo'n Jon Deunaren txadon-buru zan Isusi'tar Augustin nire adiskide aundia zala ta bere etxean neurean letz egoten nintzala. Donosti'tik etorri ta Otxandio'ra juan arte be bere etxean egon nintzan eta illaren 7'ganean itzaldi bat neukan eleiz orretan.

Zabala-Arana'k be Jasokunde egunerako itzaldia eukan Mañaria'n. Beraz bostkarren egunean Otxandio'tik alde egitea erabagi genduan. Amen gure koxka. Guk gudalburuai argi esan geuntzen gure asmoa egun batzutan laguntzea zala, Otxandio'n jauharirik ez egoala esan euskuelako. Ziñisgatx egiten yaken eta uste eben gu

salatari giñala... Alan eta be, len *Gobernadoreak* emondako baime-
nan bertan au jarri eben: *Se autoriza su salida con destino a Bil-
bao. Ochandiano 5 de Agosto*. Guk beti geukin eukiten genduzan
geure adiskide ziran eusko-abertzale batzuk eta onek zaintzen gin-
duezan.

Gomutetan naz ondiño zelan Ortega eretxan gudalburu batek
nire iddazti ta idazkiak aztertuten ebazan. ...Nik neure itzaldia
euki neban Jon Deunaren eleizan Dagonillaren 7'gñean, 9'gñean
Nabarniz'en eta 5'kñean Mañaria'n nengoan. Emen egun orretan
Zabala-Arana'k Jasokundez ekin zuan eta nik urrengo egunean Erro-
ka Deunaren omenez. Illaren 17'gne an bosturren bat asi neban
Jon Deunaren txadonan, 23'nean barriz Nabarniz'en eta orrela.
Bilbo'n Isusi jaunarena zan nire etxea eta andik laguntzen neutsen
asko ta askori be, euren igarobideak lortzeko batzui, beste batzui
gudari-jauparitzea eskeiñiz naiz ta onetariko batzuk ez zirala dei-
tuak izango jakiñez. Bakarrik jaupari zirala-ta euren buruak zain-
tzearren. Luze be luze izango litzake Bilbo'n eta beste toki batzu-
tan egin nebazan itzaldi ta belguntzak eta Aste Deunak. Belguntza
bat Ereño'n, beste bat Jon Deunaren txadonan bertan, Asteguren
bi *batera*, belbil batean Bilbo'tik Gatika'ra ibilliz. Neure gopazki-
de zan anai bat, Etxauri'tar Balasi gexo-zain letz gudariakin jua
zana, saltzalle aurkitu zan eta eriotzara zigortua. Aldezle latari on
bat lortu nauksan Rugama'tar Erramon jaunagan eta biziaz ur-
ten zan.

—Eta ez ote zenduan lortu Gijon'era juateko erarik?

—Bai, eta Irallaren 21'kñean astelen batez jua be. Orretarako
gure abertzale'en laguntza izan neban. "Euzkadi" izparringiaren
zuzendari zan R. de Olano'k izparringiaren lagun-agiria emon eus-
tan, Alderdi'aren arduradun ziranak belbil bat jarri eben eta Ara-
na ta Umaman eta beste abertzale birekin Asturias-bidean jarri gi-
ñan. Lenago izentatu dodan Sarasola jauna be gurekin egoan. San-
tander'en Arana jaunak zeregiñen bat ango agintariekin eta an gel-
ditu giñan ordu bat -edo ta aurrera. Gure belbillak aurrean iru
margodun ikurriña agertzen eban. Osteak gure begira jartzen ziran
eta argentiñarrak ete-gintzan galdetzen euskuen eta ukubillak gora
agurtu. Guk, baña, eusko-eraz eskuaz erantzuten geuntzen... Eldu
giñan Gijon'era, Sarasola'ren etxera. Etxe bertan egoan nire men-
peko bat, Alkorta'tar Joseba. Au bilbotarra zala-ta neurekin urren-
go egunean Bilbo'ra ekarri neban Sarasola'ren jarlekuan. Besteai
López Nemesi, Garcia Julen eta anai Bolinaga'ri agiriak emon
izenpatuteko, gero eurai Bilbo'tik dei egiteko. Orrela egin be ta
orrela bilboratu ziran amabost egun geroago. Beste bat Ezkati Abea
espetxean egoan eta au be geroago Eusko-Jaurlaritzak eskatuta Bil-
boratu genduan. Beste bilbotar bat be ba-zan nire menpeko artean

ta bere billa jua giñan Villamayor eta Cangas de Onis'eraño.
Emen gudaketa gogorra ebillan alde batetik eta bestetik. Ezin aur-
kitu izan genduan billa genbiltzan Pérez Marañoñ Basterrechea
Abea ta gero jakin genduan bere bidez Bilboratu zala eta an Bil-
bo'n aurkitu genduan bere sendiak.

—Ikusten detanez arrisku aundietan izan ziñan guda-aldian.

—Bai-edo; baña orrek ez eusten lan egiteko gogorik kendu.
Emen daukat ondiño neure nagusi bateri, neure burua zuritu bea-
rrean aurkitu nintzanean, England'atik lateraz idatzi neutsan berri-
dazki bat. Belguntzak zirala, bederatzirren, zortzirren, zazpiru-
rren, bosturren, irurren eta bestako itzaldiak zirala eundik gora
dira nik Bilbo ta inguruetan egin nituan itzaldiak.

—Lateraz idatzi zeuntsala esan dezu?

—Bai; ni Englandan negoan, nagusi orrek ez ekian ingelan-
derarik eta euskerea gutxiago. Nik beren jayotz-izkerea erabilli nai
ez, eta beraz berak be ulertzen eban lateraz idazten neutsan.

—Orrenbeste? Eta berak lateraz erantzuten eutsun?

—Ez, berak gatzeleraz...

—Eta nola izan zan zu England'ara juate ori?

—England'ara baño len Parantze'ra jua nintzan. Au be esan-
go dautsut zelan jazo zan. Bilbao arrisku aundian egoan: Eusko-
-Jaurlaritzak umeak eta urtetsuak be zaindu nai ebazan. Umeen
artean Gorlitz'ko osasuntza- etxe edo Sanatorio'koak egozan.

Jaurlaritzak ume-talde guztiai euren irakasle ta jaupariak emon
nai. Gorlitz'ko umeen arduradun zan iauparia morrosko gazte, argi
ta abertzale zintzo Gallastegi'tar Kauldi zan. Gazte zalako Jaurla-
ritzeak a nai eban bertan, eta niri deituriñ ia zenbat urte nebazan
itaundu eusten. Nik egia esan eta 48 egiteko nenguala erantzun.
(50 zan gaztearoa biribiltzen eban urtea). Eurak orduan: Ba, urte
bi gatiik ez dau ardura, guk zu Gorlitz'ko umeekin Parantzera jua-
tea gura geunke. Bilbo'n nire nagusi zan Munarritz Abeak bere
baimena emon eustan, bai eta Galbarriatu Erramon Gotzain-ordez-
ko jaunak be eta orrela Alfredo Espinosa'gana jo neban eta onek.
*En virtud de las facultades que me están conferidas, vengo en nom-
brarle a V. capellán del Sanatorio Marítimo de Górliz-en Francia.*
Au zan Bagil edo Garagarrillaren 8'gñean. Eta orrela Parantze'ratu
nintzan. Gure egoteko tokia Euskalerritik at Saint Christau Oloron-
-ondoan izan zan. Gero andik Normandie'ra eruan ginduzen.

Bitartean nire gopazkide edo mibisustar batzuk, urte batzuk
lenago ni doibazkatuta nenguala esan eben letz, nik neure Gopatz
edo Kongregazio'tik alde -edo egin nebala zabaltzen asi ziran.

—Asketsi nire galdera bat. Ez al-dezu zeure Gopatz ori utzeko
tentaldi ta asmorik izan? Berriz eskatzen dizut askesteko ausartiegi
agertu ba'naiz nere galdera onegaz.

—Ez dozu askesmen-eske ibilli bearrik. Zeure eskubidea dozu oretarako. Egia esango dautsut. Ez, ez dot orrelako asmorik iñoiz erabilli. An Parantze'n Gorlitz'koakin nengoala jakin neban Belgika'n Westmall Abbey eretxan lekaidetxean egozala gudari-jaupari izandako nire adizkide mibisustar bi, Yurreta'ko seme Aretxaga eta Tolosa'ko seme Mokoroa. Eurak ikustera juan nintzan eta argi ta garbi adiskide letz itz egin genduan. Eurak esan eusten gure Gopatx edo Kongregazioan ez egoala euskotarrentzat biderik eta eurak gopatza istera uazala. Nik, erantzun neutsen. *Nik neure itza ez neutsan Garcia'ri emon* (Garcia zan orduan gure Zuzendari edo agintari nagusi), *nik neure itza Jaungoikoari emon dautsut eta neure itza gordeko dot; baña beti agirian esanez euskotar nazala eta euskotarren eskubideak zainduko dodazala*. Arek biok jaunpari on eta euskotar zintzoak ziran, biak gugandik alde egin eta gero bata or ibilli zan Parantze ta Bizkai'ko *enkartazionetan*, bestea Cuba'n. Biak langille onak eta Jaungoikoa maita zuenak. Biok illak dira. Biok zoriontsu oin an goian.

Baña itxi dagigun bitarteko au eta guazen barriz geure arira. Nire izena barriz baltzitu naiez, naiz ez jakiñez, izpar baltz bat zabaltzen asi ziranai nik erantzun neutsen ni Gijon'eko nagusi nintzala eta biarrezko ziran baimenakin Normandien lan egiten nengoala.

—Baña orain zure menpekoak an Gijon'en ote-zeuden?

—Bai, eta ordezeko bat jarri eutsen; baña legez ni nintzan ondiño nagusi. Eta orrela jartzen eusten niri zuzendutako idazkietan. Orduan gure Arriandiaga ez zan idazkari orokar edo nagusi ta beren ostez etorri zanak idatzi eustan esanez ezin nintzala España'ra jua ez eta Paris'ko Mision Española'ra be eta uste ebela niretzat onena England' era juatea izango zala. Eta nik aldia eskatu neban ni legez izentatu ninduen eusko-agintariakin gauzak argiz jartzeko eta neure ordezeko bat aurkitzeko. Ordezekoa aurkitu neban Eskartzaga'tar Edorta jauna'gan eta orduan Roma'koai be bayetza emon. Eta orrela 1938'gko jorralla'ren lenengo egunean London'eratu nintzan.

—Englanderea ezagutzen al-zenuan?

—Ez, tautik be. Uda baten Englanderea gaukan gai'tzat; baña irakasleak itzaldiak egin euskuzan Shakespeare eta Chaucer'tzaz, itz egiten deuserrez. Baña an egoan Victoria'ko geldokian niri begira Olivares eta Olano'tar Luken euskotar zintzo ta nire ikaskide izana. Au Val-matzeta'n ni baño iru egun geroago sartu zan. *Olivares* abixen ori nundik yetorkan ez genkian eta guk Arriandiaga'k esanda-edo *Olloberezi* deitzen geuntzan England'an nik beti Luken deitzen neutsan eta ingelanderak be oitu ziran Luken esaten Olivares baño errezagoko egiten yaken ba-ta.

—Orduan berriz adiskide tartean aurkitu ziñan, ez ote?

—Bai. Adiskide ta anai artean. Uste neban baño geyago. Luken'ek belbil bat gertuta eukan ni artzeko ta arin jun giñan Midlex'eko Hayes'era. An nagusi egoana, Oskabarte'n neure ikasle izandako palenciatar bat zan; baña geien geldu ninduna izan zan eusko-jaupari bat ikustea, eusko-umeekin illa batzuk lenago ara juna, Zubeldia'tar Pillipa, Elgeta'ko txauburu jauna. An bizi zan edarto, baketsu, ondo maitatua, guztiz maitetsu zalako. Arnasa sakona artu neban. Laster asi nintzan neu be ume euskotarrakin lan egiten eta Ametzaga'tar Binger jaunak izentatu nindun Kington eta Theydon Bois'en egozan umeen ardurea artzeko.

—Eta zeure nagusiak ez ote zizuten beste lanik agindu?

—Berialaxe ez. Orretarako engelanderea ikasi bear, eta orretara nintzan gogor, bertan geure erri-txadon edo parrokiko ikastolara umeekin junaz. Gure Iñaki deunaren aztarnak jarraituz an jartzen nintzan umeen tartean eta irakurtzen ikasi.

—Eta laster asi ote-ziñan engelanderaz itzaldiak egiten?

—Ez ain laster; baña bitartean beste zeregin bat etorri yatan eskuetara. Ludi'ko bigarren guda aundia asi zan 1939'ganean eta Gibraltar'eko biztanlerik geyenak Londres'era ekarri ebezan an England eko jaurlaritzaren ardurapean bizi izateko. Aren ardurea emon eusten. Gero Belgika'tik iges egindakoak eta onen ardurea be neuk artu neban. Gibraltar eta Belgikar asko, nik emoten neban mezara etortzen ziran eta belgikarrak eskatu eusten eurai be zeozer esateko parantzeraz, walontarrak ziran-ba-ta. Beraz nik igandetan iru izkeretan itz egin bear ingelanderaz England'an gengo zalako eta ingelanderak be an ego zalako; españeraz Gibraltar'ekoak españeraz egiten ebelako eta nik meza emoten neban txadontxua lekaime españar batzuen zalako eta parantzeraz belgikarrentzako. Bost minutu edo iroiren izkuntza bakotxean. Guztiz 15 edo 20 iroiren. Orrela igandero urte bitan-edo eta ez eban iñok zoitorrik sartu. Baña irugarren urtean -edo Iñaki deunaren eguna igandez etorri zan, eta euskotarrak eurak be neure jaupa edo mezara etorri nai ebela esan eusten. Nik bayetz, eta beti letz iru izkerak erabilli ta laugarrena (euskerea) be artu neban euskotarra onak izateko eskatuz. Lekaimetu españarak, ala ez dakit an egozan palankar batzuk idatzita, urrengo igandean ingitxu bat eskuratu eusten txadon-gelatik oindi edo altarara nuala. Nik jaupa-asmoa izango zalakoan zabaldu neban ingitxu ori aldarean et auxe ziñoan españeraz: *Cuando se entiende una lengua no se debe predicar en otra*. Arra-nua! esan neban neure kolkorako. Au lengo igandez euskeraz egin nayualako dok. Beraz buruan joteko, euren aolkoa ontzat artu ta itzaldian engelanderaz esan neutsen: *Auxe ta auxe esan dauste*; beraz emen zagozanok ingelanderak dakizuelako edo jakin BEAR

dozulako gaurtik aurrera ingelanderaz bakarrik egingo dot. Eta orrela egin neban egun atan eta beti andik aurrera. Lekaimetxuak asarre jarri ziran eta nire nagusiagana jo eben; baña nik be itz egiten ba-nekian eta nagusiak nire erabakia ontzat artu ta andik aurrera nik ingelanderaz bakarrik egingo neutsiela jakin erazo eutsien. Erderaz esaten daben letz: *Fraile mostén, tú lo quisiste tú te lo ten.*

—Eta euskotarrakin artu-emon asko ote-zenuan?

—Bai. Eusko-Ordezkaritzan egozan Lizaso ta Gondra'kin eta gero neure senitarteko ta Ordezkaritzan lan asko be asko egin eban Hickman Urrutia'kin. 1948'ganean gexo samar egon nintzan gibellarriak zirala-ta. Il-agiñan nengoan eta askok be askok uste eben ez nintzala urtengo bizirik. Egun batzutan London'en eguala-ta Leizola'tar Josu be etorri zan gexo-etxean ni ikustera. Gero Onaindia'tar Alberda'kin be, beti letz, adizkide ta elkarrri laguntzen. Ez yat aztuten zelan bein *Aita Olaso*'k eskatu eustan berari laguntzeko Gotzain Amigo'gana. Gon-gotzain Amigo gibraltartarra zan, ni gexorik egon nintzanean nire gexo-etxea bere etxe-ondoan eguala-ta, astero etortzen bera ni ikertzera. Orregaitik adiskide gengoan eta Olaso'k nai eban Gotza argitu. Amigo'k askotxu siñisten eutsan Merry del Val'eri eta au dala edo ori dala Onaindia'ri baimenak kendu eutsazan. Orduan Onaindia nirekin Gotzañagana jua eta gauzak argi jarri eutsazan. Eta azkenean auxe esan eutsan Gotzain jaunari: Orain, jauna, jarri zu emen eta idatzi nire baimenak zuzen eta indar onean dagozala. Eta Gotzaiñak esan yakona bete beuten egin. Iruxo'tar Ikanol jaunakin be sarri egoten nintzan.

—Eta Irlanda'ra ez ote ziñan jua?

Bai. Goitik bera eta betik gora Irlanda osoa ikusita daukat. Erramon Valera berarekin egon be bai. Ara jua nintzan ango Gotzaiñakandik zeozer lortu naiez. Ni orduan England'ako mibisustarren lekaiderkaba edo porbintzial nintzan eta Irlanda'n etxe bat nai neban. Doipuru-ordezkoak eta De Valera'k be esan eusten ez ne-bala ezer lortuko eta alan izan zan, Irlanda'n lekaide ta lekaime-txu larregi dagozalako-edo.

Belguntza bat be, amabost eguneko belguntza euki neban Ipar-Irlanda'n eta ara neure menpeko ziran irlandar apaiz bat eta ingelanderarra zan beste bat lagun artu nebazan.

Irurok lan gogortxua euki genduan eta euraḡ eta gu be pozik.

—England'ako laterritartasuna artuta daukazula entzun det. Egia ote?

—Bai. Ainbeste urte egin eta niretzat ain ona izan dan laterriari neure eskerrak emon bear. Ogeta iru urte dira engelandar egin nintzala.

—Eta ez dautsue emen zoztorrik jarri orregaitik?

—Ez. Oin ogei urte, bai, Barcelona'ko Oteun-Batzarra zala-ta lan bat bidaldu neban arako, eta Batzarraren arduradunak nai eben ni lan ori irakurtzera bertara juatea. Neure igarobide engelandarra agertu nebanean Madrid'etik ezetz biribilla emon eusten. Nik engelandarrai eta guztiai esaten neutsen eta esaten dautset. JAUNGOIKOAK EUSKOTAR EGIN NINDUN ETA GIZONAK ENGELANDAR EGIN NABE. Jaungoikoak emandakoari eutsi bear eta gizonak egiñekoa oingoz ontzat artu.

—Eta orain ez dizute zoztorrik jartzen? Noiz arte daukazu laterritasun ori?

—Nire igarobide engelandarra ez da bukatzen 1983'gko gari-lla'raño da ona.

—Eta ordurarte biziko zerala uste al dezu?

—Ez dakit, ba; baña osagille batek esan eustan ondiño ba-daukadala bizia beste amabi urterako.

—Zuk B. B. C.-bidez euskeraz itzaldiak egiten zenituala entzun det. Nola izan zan ori?

—B. B. C.'n españerazko taldean lan egiten eben artean ba-zan euskotar zintzo ta biotzez erkaldar dan Silverio de la Torre eta au izan zan or bitarteko, eta amabostero-edo egiten nebazan itzaldiok. Eta ondo be ondo ordainduak. Minitu edo iroiren bakotxa GUINEA bat ordaintzen eusten. GUINEA irudizko txindia da, libera bat eta shilling bat egiten ditu. Amabost inguru minituko itzaldia izaten zan.

—Eta zure nagusiek ori ondo ikusi ote zuten?

—An neukazan nagusiak bai; baña nundik edo andik espak eta zinkuriak jua ziran gure Roma'ko nagusiekana eta andik galerazo egin eusten, ori *politika* egitea zala esanaz. Laster, baña, nagusien aldakuntza izan zan eta nik nagusi barriagandik baimena lortu. Iru urtez edo ekin neutsan neure lan orri; baña gero England eta emengo laterria ez dakit zelako artu-emonetan sartu zirala-ta euskerazko ta katalanerazko ta galicierazko itzaldiak eragotziak izan ziran.

—Eta aldizkingietan ez ote-zenduan idazten? Nolako gaiak erabilli zenituan?

—Bai et gai askotzaz. Roma'ko COMMENTARIUM PRO RELIGIOSIS'en siñismen-ausle edo poterstaterekiko artu-emonetzaz idatzi neban. Lenago Madrid'eko ILUSTRACION DEL CLERO'n be Ieronima deunatzaz. Au Ieronima deunaren 15'gn. eunkian izan zan.

—Eta euskerazko aldizkingietan ez ote zenduan ezer idazten?

—Bai-ta. "*Euskerea*"-n "*Zeruko Argian*"-be bai, bein "*Jakin*"-en, "*Euzko-Gogoan*" sarri, eta an Bilbo'n argitaltzen ebezan idaztiñotxueta. Euskeltzale-Bazkunak zabaltzen ebazan idaztiño orrek eta "ENBOR" izena emoten eutsen; baña zenbaki bakotxak

idazpuru barriak eukiten ebazan. Or be idazten neban. Idaztiño onek argitaldu ta zabaltzen ebezan gazteak sabindar porrokatuak ziran eta Arriandiaga'ri bugi-belarri jarraitzen eutsen. Gaur Arriandiaga'ren aurka dagozanak ondo egingo leukee ENBOR orren irugarren idaztiño EN DEFENSA DE LA LENGUA izentatuan Orixe'k Arriandiaga'tzaz diñona irakurriko ba'leuke. Niretzat be zeozer esan eban or Orixe'k. Niri zor yatan baño ospe ohea emon eustan Orixe aundiak.

—Galdera askotxu egin dizkizudala uste det. Bat geiago eskatu nai nizuke.

Siñismen-ausle edo poterstanteakin artu-emonik euki ote-zenuan?

—Bai, asko. Gure etxe batzuetako nagusi izan nintzanean beti, beti orokar edo katoliko ez ziran eleiz-gizonak agurtzera juaten nintzan eta eurakin artu-emonetan jarri. Bein Bristol-ondoko Backwell'n nagusi nengoala, ango eleiz-buru zan George jauna neu iker-tzera etorri ta ia zegaitik ez nintzan bere eleizara itzaldiak egitera juaten esan eustan. Nire erantzuna auxe izan zan: *Lenengoz*, eragotzita daukadalako eta *bigarrenez*, ni ara jua ezkeru zu egizko jaupari zerala esan bearko neukelako eta nik ori ezin dot esan. ...Dana dala, neure Gotzaiñari esan neutsan jaso yatana eta gotzaiñak erantzun: Eleiza'tik at bai egin nai dozun betse itzaldi. Ori dala-ta George jaunak eskatu eustan (bere etxean ingurko eleiz-gizonak illero batzen zirala-ta) ia ara juango ete-nintzaken. Nik bayetz, eta jua nintzan. Ogeiren bat eleiz gizon batu ziran eta nik argi ta garbi neure eretxiak emon eta bide bigunez eta maitakiro esan be esan neutsen, nere eretxia zala eurak ez zirala jaupari edo apaiz. Gure batzarra iru F. F. F.'ko batzarra zala esan neutsen; gu an askatasun (FREELY) osoaz batu giñalako, anai letz (FRATERNALLY) elkar-izketa euki gendulako eta (FRIENDLY) adiskidetsu amaitu gendulako. Euren arteko lekaime edo monjatxuekin be artu-emon asko euki neban. Euretatik batzuk guganatu edo egizko bidera etorri ziran.

—Esan dizkidazun gauza guziak ikusirik, zu atzerrian aberrian baño geiago bizi izan zerala argi dago. Errez egin al zaizu emengo bizikerara biurtzea?

—Gauza askotxu zail egin yataz. Ez naz alperrik neure bizitzako 83 urtetatik 63 atzerrian bizi. Batez be England'an beste era ta bideak dagoz. Emen baño zeatzago ta errezago be ba-diran bideak. Baña onetzaz beste baten ekingo dogu nai ba'dozu.

—Eskerrik asko. Azkenengo galdera. Zer aolko emango zenizaguke aurrerako bideak ikasi nai dituenai?

—Aolko auxe: GIZONKI JOKATZEKO BETI. Gizon-bezela gauzai begiratu. Jaungoikoak gizon egin ginduzan eta euskotar be berak

egin ginduzan. Jaungoikoak emondakoa zaindu ta landu beti. Berentzako egiñak gora ta berak emondako izakera edertuz ta biritz biltuz lan egin. Eta euskerea be landu. Eta bakotzak Jaungoikoari emondako itza bete ta egiztu.

DON JOSE MIEL BARANDIARAN

A. ARRINDA.

Don Jose Miel'en irurogei urteko lanak, zeinek neurtu? Berak idatzi dituen aiña orrialde bearko giñuzke.

Nik arlo ori ez dut ikutuko. Bistan agertuko da laister bere lan-bilduma osoa argitarako danean.

Bera ez da idaz-lan-azparru orretan bakarrik jardun; bere ekintza zabalagoa izan da, naiz eta zabalguneko gordeagoak izan baiditu ekintza orrek ere...

Irakasle izana degu Gazteiz'ko Seminario Aundian, eta bera an zegoan artean izan zun Seminarioak bere aunditasun berezia. Gimnasium eta Idearium aldizkariak (Seminariokoak, alegia) ortxen daude lekuko eta testigu. Ez noa orreri ikutzera.

Irakasle zalarik, ofizialki egin zituen lanak, oiek ere ez ditut aitatu.

¿Ba al da besterik oriandik?

* * *

Bai bada.

Mutil gazteak giñan garai aietan, burruka-garaiko mutil gazteak, bizarra laban aundiakin ebakitzen genduenak.

Giroa zegoen aire guztietara zabaldua. Burruka giroa: burruka agintaritzaren lortzeko, burruka kalean nagusi gertatzeko, burruka ideolojiak zabaltzeko, burruka ekintza guztietan...

Munduko aize zabalak gure erritik pasa oi ziran; baiña, argi ta garbi, sator-jokorik gabe, mozorro-jantzirik gabe. Bakoitzak bagenekigun nor zein zan eta zer joka-bide zeraman. Gaurko egunez ez da ori oso erreza jakiten; badabilta bai, gauza aurrelari eta ausartak balira bezela, orduko esankizun zarrak berriro...

Burruka-giro artan Don Jose Miel genduan argi-emaille. Berak gure begi-bista zabaltzen zigun. Kultura gaietan eta gizarte-arazo guztietan bera genduan leio-irikitzaile. Gure buruko ikusmena 180°tan zabaltzen zigun mundu zabaleko arazo guztietan.

Nik ez dut orrelako ezitzaillerik izan beste bat.

Izketaldi bakoitzean zekarkigun berebiziko argi-aberastasuna. Eskolatik at ere artu-emanak giñuzten alkarrekin, eta alkarte ba-

koitzeko krisaillu berri bat pizten zigun gure buruko ganbara illunean...

Itzik jaso gabe, bere esanari inportantzirik eman gabe, apal-apal eta lagunkide baten antzera...

* * *

Gai guztiak zetozen egoki bere ezpaitan; baiña, batez ere gizarte-arteko gaiak, soziologi gaiak, alegia.

Mundu zabalekoak; baiña, batez ere, Euskalerrikoak.

Berak erakutsi zigun mundu zabalari begiratzen eta Euskalerraren anima aztertzen, une artako euskal-animari.

Erri batek zuztarrak ditu, eta erro oien billa joaten erakutsi zigun Arkeolojiaren bidetik, leizeetako illunpeetan gorderik zegoan Euskalerria ezagutzeko: Santimamiñe'ko marrazkietan, Jentilletxeta'ko lanabesetan, Urtia'ko buru-azurretan dagoena, alegia.

Baiña ez ori bakarrik, Etnologia bidetik, guran irauten duan Euskalerrri zaarra ezagutzen ere erakutsi zigun. Badala Euskalerrri zaarreko gaurkotasan bat: orduko leizeetako pentsakerak oraindik ere gure erriaren oitura, esan eta siniskerietan irauten dutela, alegia.

Don Jose Miel'ek berak ematen zizkigun galderak Gabonetako oporraldietan, errian aztertzekoak, erantzunak billatzeko... Zenbat eta zenbat gizaseme gazte ez ote zitun azterketa-lanean jarri...! Naikoa da ori jakiteko 1921-1935 Anuario de Eusko-Folklore'ak ikustea; billatuko dituzute lanak ugari orduko apaiz-gaiak egiñak...

* * *

Bada besterik.

Eskolatik at, talde berezietan izan zitun bere bilkunak ere. Euskalerrri'ri buruzko billerak.

Bere ardurapean sortu genduan "Jakin-Bide-Batza" izeneko bazkuna, historia aldetik, anima aldetik, soziologi aldetik gure Erria aztertzeko asmoekin. Seminarioko Erretorearen baimena lortu genduan 1935 urteko Abenduan. Zazpi illebetera gerla sortu zan gure artean; beraz, sei illebete barrik iraun zuan alkarte arrek. Historia-taldekoak D. Manuel Lekuona zeukaten buru eta andik sortua da Eliseo Mañarikua, Bizkaiko historiagille ospetsuenetako bat. Don Jose Miel'ek eramaten zuan bereiziki "Sicología Colectiva" taldea. Talde bakoitzak, bere aldetik, aztertu bear zuan Euskale-

rria galdera-erantzunen bitartez. Baiña, bestela ere lan egiten zan. Ekaitza sortu zanean, joan zitzaigun gure gidaria babes-billa Auñamendietatik aruntz eta gelditu giñan ume-zurtz eta gerlapean. Jakiña, gerlak berekin dakar ondamendia eta ondatu zan azitegia ere. Aize-bolarak eta ur-jasak aurretik eraman arren aziak, beti gelditzen dira bakan batzuek lurrari erantsita, eguzkiaren eta giro oboaren zai. Eta gaur eguneko z anbait lan azi aien emaitza dezu.

* * *

Aranzadi eta Eguren, Arkeoloji gaietan, Don Jose Miel'en lagunak ziran: baiña, Etnologia beari zor dio bizia Euskalerrietan. Berak iaso zituan il-zorian zegoen euskal-animaren zantzuak, eta bera izan da arlo onetan lan egindutenen suspertzaille eta gidari. Betirako galduko ziran Euskalerrri zaarreko animaren agerpenak berak jaso zituan eta oiekin Arkeolojiaren bideak argitu. Nik uste, gure Erriak ez diola zor diona sekulan ordainduko.

Lan egin dezu, Don Jose Miel, etenik gabe, gau eta egun, negu eta uda, pakean eta gerlan, zarata-garaian eta ixil-unean: giro guztietan eta gelditzeke.

* * *

Ikerketa bat bialdu diot eta ona berak emandako erantzunak:

1. Noiz jaio ziñan? 1889-XII-31. (Ataun: San Gregorio).
 2. Etxearen izena: Perune Zarra.
 3. Noiz eta nun egiñ ziñuzten estudio bereziak? Baliarrain, Gazteiz, Burgos. Bereziak (ikasaldiak: Paris, Leipzig, Colonia, Bruxelles).
 4. Noiztik ari zera Euskalerrriari buruzko lanetan? 1907 ezkerro.
 5. Zer lan dira oiek? Eta zuretzako ser lanek du garrantzirik aundiena? Etnologia (erligio-atala bereziki), Arkeologia (Euskalerrrikoa) eta Euskal-Gizabidea.
 6. Zenbat idazlan egin dituzu, gogoratzen bazera? 260 (?).
 7. Zenbat liburu eta zer neurritakoak izango dira orain ateratzen ari zaizkizun Lan Bilduma? 12.
- Orrekin bukatzen du berak eta orrekin bukatzen degu guk.

III

Euskera

I

Z

URRESTARAZU'TAR ANDONI.

"Z" IZKIAREN BETEKIZUN BAT

Batzuk ditugu "Z" izkiaren betekizunak euskeraz. Obeki izango litzake, geuk, "Z"ren bidez, betetzen ditugula esatea; oguztean lenengoz, idaztean gero.

Ezagunak diran betekizun oietarako, "Z" aurrizki, erdizki ala atzizki bezela agertzen da.

"Z" ori aipatzean, Lhande'ren iztegian, atzizki bezela, amaika eginkizun ematen dira, ta aurrizki bezela bi. Muxika'ren iztegian, atzizki bezela amabi. Azkue'ren iztegian, atzizki bezela amalau, aurrizki bezela lau, ta bat adizkeretan (daduzkate). L. Mendizabal'en iztegian, atzizki bezela sei.

Lhande'ren iztegian, erdizki bezela edo, adizkeretan ikusten da: daramazkit, dauzkat, dizkiot, gauzka, ginduzte, zinduzteke, ...; Azkue'ren iztegian ere orrela agertzen da, ikusi dugunez; baña Muxika ta L. Mendizabal'en iztegiatan ez da agertzen aditzetan dagozen eginkizunetarako.

Iztegi oietan "Z" izkirako ematen diran eginkizunetatik landa, ba-dago, geron ustez, beste bat, iztegi oietan agertzen ez dana, ta aztertu ditugun "RIEB" eta Euskaltzaindi'aren "EUSKERA" aldizkarietan ere ikusi ez duguna. Baña ba-liteke, oietan guk ikusi gabe, edo beste batzuetan, apika, noizpait adierazita egotea.

Eginkizun ori, ene iritziz bederan, betekizuntzat ar litekena, aurrizki bezela burutua agertzen da.

Batzuetan, gauza baten orde, beste bat adierazteko erabiltzen danean eta bien artean alkarbidea ikusten dalarik; lenengo gauzaren izenari "Z-" gañeratzen zaio bigarrena izendatzeko. Esate baterako: ARAGI / ZARAGI; ARTAI / ZARTAI; ERBERA / ZERBERA ("Cerbera del Río Alhama" Errioja'ko erria); EU / ZEU (?); IBI / ZIBI; IDOI / ZIDOI; IDARR (IRARR) / ZIDARR (ZIRAR) (?); IDORR / ZIDORR; IRIGI / ZIRIGO; UBI / ZUBI (1); UBIDE / ZUBIDE; ...

(1) ZUBI itzaren jatoriaz mintzatzen, beste iritziak eman dira; arestian auxe irakurri dugu, Garate'tar Justo jaunak "Fontes linguae Vasconum" aldiz-

Beste batzuetan, bigarren zentzuna lenengoaren edatua bezela agertzen da: AMUKA / ZAMUKA; ANKA / ZANKA-O; APAL / ZAPAL; APALDU / ZAPALDU; ATAL / ZATAL; ELAKA / ZELAKA; ELATARI / ZELATARI; ENDU / ZENDU; ENTZUN / ZENTZUN; ERGA (ERGAINUDE itzan ere agertzen da, ERGI) / ZERGA (2); INKA / ZINKA; IRIN / ZIRIN; IRINDU / ZIRINDU; IZA / ZIZA (3); IZAKARI / ZIZAKARI (3); IZTIL / ZIZTIL; OLDU / ZOLDU; ORA / ZORA; ORALDI / ZORALDI; ORATU / ZORATU; ORI / ZORI; ORIZKA / ZORIZKA; ORU / ZORU; URDA / ZUDA; URRUNGA / ZURRUNGA; USMA / ZUSMA;...

Besteetan, itz bien zentzuna berdin dala dirudi: AITU = ZAITU; APO = ZAPO; ARBA = ZARBA; ARBASTA = ZARBASTA; ARRAMASKA = ZARRAMASKA; ARRAPASTAKA = ZARRAPASTAKA; ARRAPO = ZARRAPO; AUNKA = ZAUNKA; ERRENDA = ZERRENDA; ERPEL = ZERPEL; EZPAL = ZEYPAL; IPA = ZIPA; IPAKA = ZIACA; IRRA = IRRA = ZIRRA; IRRIKITU = ZIRRIKITU; IRRINARTE ZIRINARTE; IRIST = ZIRIST; IRRISTADA = ZIRRISTADA; IRRISTATU = ZIRRISTATU; IRRISTU = ZIRRISTU; IZAIN = ZIZAIN; IZILO = ZIZILU; IZKORTU = ZIZKORTU; IZPITA = ZIZPITA; IZURR = ZIZURR; IZURTU = ZIZURTU; OKONDO = ZOKONDO; ONBORR (ENBORR) = ZONBORR; OZPAL = ZOYPAL; OZPEL = ZOYPEL; URRUPA = ZURRUPA;...

Noizbeinka, itz bien zentzunak alkarren antzekoak dira: AGAI = ZAGAI; ALGA = ZALGA, ZALGE; ARAKA = ZARAKA; ARGALDU = ZARGALDU; ARRAST = ZARRAST; ERRENTXORI = ZERRENTXORI; INTZ = ZINTZ; INGILA = ZINGILA; IPIDE = ZIPIDE; IPOTZ = ZIPOTZ; IRATU = ZIRATU; IRIKI = ZIRIKI; IRT = ZIRT (ZIRT EDO ZAR); IZKI = ZIZKI-MIZKI; OZAITA = ZOZAITA; OZAMA = ZOZAMA;...

karian (IV garren urtea, 11 zenbakia, 1972 garreneko Orrilla-Dagonilla), 137 garren orrialdean ematen duena: "Ba-liteke, ZUBL, ZUR-UBL edo zurezko ibai-igaro-bidetik etortzea...". Emen aipatzen duguna egiantzekoago deritzaigu.

(2) ZERGA itz au, Lhande'ren iztegia, "(rom. "carga")"tik sotua bezela ematen da. Ortaz oker bat dagoelakoan gagoz, bere euskal-jatorria ain argi baitago. Gañera, beste gauza bat ikusi dezakegu orren bidez: aspaldian, zergak ordaintzeko edo emaitzak eskeintzeko, beste tokietan bezela gurean ere, abereak (ERGA) erabiltzen zirala. Ba-liteke, San Millan'eko REGA, ERGA'tik etortzea: ERGA=ERREGA=REGA.

(3) ZIZA ta ZIZAKARI itzen eratze ta zentzuna, ZERGA'renak antzeko egiñak. (Lhande'ren iztegia: ZIZA "esp. SISA").

Beste adibiderik asko aipa litezke, baña emen agerrerazten ditugunak ,ene iduriko, naikotzat ar ditezke "Z" izkiaren betekizun berezi bateaz mintzatu alizateko.

Bearrezkoa edo izan ditekete, emen oar bat egitea. Agerreraztako itzak, asko bederen, geron ustez, gure artean, beste gizonen artean besteak bezela, idazkera sortu baño lenagokoak dira. Orren-gatik, emen "Z"ri jarri diogun eginkizuna, orduan, gaurko "Z"az adierazten dugun soñua izan zan lenengo itzari gañeratu zitizona, ta soñu orren bidez bereizten edo zan bigarren itzaren zentzuna lenengoarenetik. Beraz, emen "Z"ri buruz esandakoa obeto edo esan genezake berari dagokion soñuaz.

Ementxe aipatzen dugun "Z" izki onen egikera ontzat artzeko dalakoan, gure euskal-itzen zentzuna tinkotzeko ta batzuetan alkarren artean bereizteko ere, erabillita izan litekela uste dugu. Esate baterako:

Zentzun berbera adierazteko, gaur, "azke" ta "aske" itzak erabiltzen dira, ta bakoitzarentzat zentzun bakar bat tinko liteke, onela edo: "aske", loturik ez dagoena adierazteko, ta "azke" menperaturik ez dagoena esateko; bigarren zentzun ori, lenengoaren edapena bezela artean. Ba-dagoz beste bi itz, esandakoi buruz bezela, aipa ditzakegunak: "asi" ta "azi". Ezin ar dezakegu bigarren lenengoaren edapenaz ere? Ez ote da "azi" a, "asi"aren ondorioa, zabaltzea edo kozkortzea? Lurrera botatzen dan "azi" a ez ote arnariaren "asi" a? Ez ote dira orren antzo, itzaren beste zentzunak ere? Elkarbidean, noski, beren era ta zentzunetan, "asiera" ta "aziera" itzak, "asi" ta "azi"tik sortuak. Beti "z"ren ordez erabiltzean.

"Z", EUSKAL-SOÑU BEREZIA ADIERAZTEKO DARABILGUN IZKIA

Bai, soñu berezia da "Z"ren bidez adierazten dugun euskerazko soñua; ez da espanyerazko "Z"rena bezin gogor, bigunagoa baik; ez eta parantzerazkoarena bezela ere; bearbada, parantzerazko "S" k batzuetan daukanaren antzeko, e. b., "rose". Baña oso berezia dugu gure soñu au; nolabait adierazteko, auxe esango genuke: espanyerazko "S" ta "Z"renen artekoa dala; beraz, "S" ori baño gogortxoago, ala "Z" baño askoz bigunduago.

Izkuntzalariek, parantzerazko "S" ta "Z", xistukorrak deitzen dituzte; lenegoari, xixtukor illuna, ta bigarrenari, xistukor ozena.

Bi soñu oiek egiteko, mingaña ortzegiei tinkatzen zaie alboetatik; orrela, aosapai ta mingañaren artean aize-odi edo aize-bide estu bat gertatzen da, aizea igarotzeko. "Z"ren soñua emateko, bide ori estuagoa da "S"rena ematekoa baño, ta ortarako mingañaren

erditokia goratzen da; "S"ren soñua emateko, ordea, mingañaren erditoki ori beerago geratzen da.

Gurean, "Z" ta "S"en soñu-arte, españerazkoa baño txiki edo estuagoa da; españeraz tarte aundia dago bi izki oien soñuen artean, eta orrengatik, noski, euskerazko "Z"ren soñua entzutean, españarrek, geyenetan, "S"az idazten dute; orrela, izen eta abizenak, asko, españeraz egindakoagatik, "S"az agertzen dira idatzita, "Z"az egon bear-izango lirakenean; ortxe dugu, beraz, erderak eragiten digun beste okerra, ta orrezaz gogoratu bear dugu gure ikurrak, gure izkiak, ongi zaintzeko, gure soñu jatorrak alik eta ondoenik adierazi ditzaten; ikas-tokietan batez ere, bereziki irakasteko.

Jakiña, gurean eta izkuntza guzietan, soñuak dira lendabizi; gero datoz ikurrak, izkiak, soñuak idazkien bidez aurkezteko; alakotz, soñuak ikasi ta aztertu bear dira lenengoz, idazteko ikurrak, izkiak, egokiro autatzeko. Orrengatik, "S" ta "Z"az adierazten ditugun soñuak, orren alkarren urbil dagozelako ere, bereziki entzutea dagozkigu, berak adierazteko izkiak egokiro erabiltzeko.

Esate baterako: nola idatzi bear dugu EUSKERA itza?; orrela, S'az, ala EUZKERA, Z'az? Obeki esateko: *euskera* itza oguztean, nola dagite euskaldun jatorrek, euskera ala euzkera? Auzi aspaldian sortu zan gurean. Arana Goiri'k, asieran, S'az erabilli zuen itz ori, baña gero Z'az jarraitu zuen, orrela egin bear zalakoan; eta aldatze ori azaltzeko, beste itz batzuk aipatu zituen: Gipuzkoa, Bizkaya, Orozko, Amezkoa; itz oiek tokietako izen zarrak diralarik, bere ustea egiztatzeko ziralakoan; eta bere uste ori auxe izanik: EUZKO itza EGUZKO (EGUZKIKO) itzatic zetorrena. Bere aburubide orrezaz ez gera emen ari-izango, ta beste bide bat aukeratu nai dugu auzia argitzeko xedeaz.

Jarri ditzagun bi lerrotan, *euskera* (euzkera)'ren antzeko, erdian *zk* ta *sk* binako izkiak daramazkiten itz batzuk:

Gipuzkoa, Bizkaya, Amezkoa, Eguzkia, Dazka, Azkarr, Azkue, Mozkorr, Ask, Liskarr, Neska, Noski, Euskun, Aska, Aski, Seaska.

Bi itz-kate ditugu emen, onela berezita:

az kar [>]z[<]k
as ka [>]s[<]k

Ikusten danez, Z ta K artean, S ta K arean bezela, bi itzatalen muga dugu; Z ta S oguzten diranean, izkuntzalariek itxitura bat, eta bereala K esateko, idekitura bat egiten dirala diñote. Ta, geron ustez ori, ere aintzakotzat artu bear da emen ikusten ari geran arloan: ikurraz, itxitura adierazten da, ta beste ikurraz, idekitura.

Kate bakoitzarentzat, Z ta S oguztean, mingaña egokera batean jarita ari da, bakoitzean ere soñu bat egiteko bidea mugatzen. Beraz, bi soñu ere dagoz or emateko; ta bi soñu oiek alkarren ondo-ondoan dagozelako, orobat gertatzen da mingañaren bi egokera buruz; bi egokera oietan, aizea indartsuago ala motelago igarotzen da, mingaña ta ao-sapaiaren artean gertatzen dan bidearen zearr.

Gure bi soñu oiek emateko, guzti ori egiten dalarik, ona emen, apika, zer egin bear-izango litzaken, euskera (euzkera) itza S'az ala Z'az egiten ote dan ongi jakiteko. Lenengoz: len jarritako bi itz-kateetan dagozen itzak, euskaldun jator batek nola oguzten dituen entzutea, ta oien urrengo euskera itzari buruz orobat egitea; bigarrenez: euskaldun jator berberari, bi kateetan mingaña nola jartzen duen begira dezala eskatzea, ta orren urrengo berebat euskera itzarekiko. Gañera, edonork ere orixe bera egin lezake.

Izkuntzalariek, soñuak ongi jasotzeko, tresna bereziak dituzte, ta oiek ere erabilli litezke beste oar-ikastea egiteko. Ta ikaste guzi oien ondoren, argi jakin genezake S ala Z erabilli bear ote dan.

Oar berezi bat egin dezakegu emen. Iparraldeko euskalkietan, aspaldian "*euskara*" esanarren (Detxepare, Tartas, ...), gaur "*eskuara*" esaten da. Zergatik aldatze ori? Izan diteke azalpenen bat nunnbait, baña nik eztut inñun ikusi, ta auxe da, ene ustez, galde genezakena: Ez ote da, ain zuzen, "S"aren soñuaz esateko bearrean, "*eskuara*" esateko, "*euskara*" oguztea baño errazago izan zaielako, "*eskuara*" esateko, berez, euskaldunak erazita izan diralarik? Orrela izango balitz, ustekoa ere izan liteke, aspaldiko "*euskara*", egitan, "*euzkara*" izan zala.

Beste zentzunaz, ba-dugu beste itz au: "*eskualde*"; ta "*eskuara*" esatean, oguzpena beste orren bezelakoa dugu. Uste al genezake itz ori lenagoko beste batetik, "*euskalde*"tik edo, sortua izan dala? Ta "*euskale*", "*euzkalde*" (*euzko*-alde) (*euzki*-alde) (*eguzki*-alde)-tik? Ori Arana Goiri'ren asmoa indartzeko izango litzake.

Auzi ontan garrantzi aundirik ez dagoela uste diteke. Gure alde-tik, euskera ikasten asi giñanean, "Euskaltzale-Bazkun"aren bidez, Z'az idazten genuen gure izkuntzaren izena, euzkera. Gero, Azkue'k esondata zuena ontzat artu genuenean, eta orduan Z orren aurka arrabots aundi xamar sortu zanean, besterik gabe, ongi ala gaizki zer ote zegoen begiratzeke, ta batasunaren alde jokatzegatik, erraz utzi genuen Z ura, ta arezkero beti S'az idatzi dugu euskera itza.

Baña euskerari buruz gure eztabaidetan sortu diran ebazkizunen artean ori bat izanik, orri ere alik eta garbienik bere aterabide aurkitzea ona izango litzakelakoan gagoz.

1973'ko uztaillean.

LEKUONA ZAARRA ERAKUSLE

EUSKERAZ IDAZTEKO, EUSKERAZ PENTSATU

Tolosako Artzipreste, Patrizio Orkaiztegi Jaunak, aspaldi batean, liburuxka bat idatzi zuan: "Reglas para escribir tolerablemente (?) en euskera". Eta beste arauen artean, lenengo, au ipintzen zuan: "Pensar en euskera".

Don Antonio Pildain, Gotzai Jaunari, nik beste arau bat entzun izan nion, Orkaiztegiren arau orren antzekoa: "Periodikoak gaur ekarri duan berri bat, baserritar batzuei esaten ari naizela iduritzea eta berri ura baserritar aiei esaten ari banintz bezela-bezelaxe kulpitotik itz egitea".

Pentsatu, iduritu. Gauza euskeraz pentsatu; baserritarrakin ari naizela iduritu... Arau bera, bi eratan.

* * *

Izan ere, gure pentsakizun asko ta asko, erderaz edo latinez pentsatzen ditugu; eta gero euskerara itzuli; eta operazio ortan gure euskera, erderan kalkatua ateratzen zaigu. Euskera jatorrean idatzi nai badegu, euskeraz pentsatzea degu biderik zuzenena; edo-ta baserritarrakin izketan ari gerala iduritzea.

Gure idazkerak ez du erderaren itzulpen bat izan bear; jatorri-jatorriz euskerazko pentsamen baizik; itzulpen-bidetik baldin bagabiltza orra zer gertatuko zaigun:

1) Esaeraren joskera, erderakutsukoa aterako zaigu; adibidez: "Nere izena da Plorentxi"; "Bein batean bizi ziran aita eta ama eta iru seme".

2) Edo-ta, "relativo-esaera", zeña baten bitartez egingo degu: edo-ta, "causal-esaera", zeren edo zergatik-ezik baten bitartez; edo-ta "ponderativo" bat, beste onela: "Ain maite zuan Jainkoak mundua, ze eman zuan bere Seme Bakarria munduaren salbamenerako"... Eta olako asko ta asko.

3) Bide beretik jarraituaz, Euskera jatorrak dituan bitxirik politenak, konturatu gabe txirristatzen zaizkigu... Eta ez guri bakarrik, baita gure klasikoai ere.

* * *

Izan ere, ez Mendiburuk, ez Larramendik berak ez dute erabiltzen (ez dute ezagutzen) esate baterako, gure "causal-explicativo" esango gendukean bait bitxi berezi ori: adibidez: "Otz bait zan sua piztu zuten", bait orrek guretzat matiz berezi bat duan arren...

—Nola litekean ori?— Gure klasiko oiek, erderatan olako matizik arkitzen etzutelako nunbait; erderaz geitxo pentsatzen zutelako, erderaren neurri-neurrrian zebiltzalako... Barkakizun bait da; bañan baita kontuan eukitzeko ere.

Gure klasikoak ori. Bañan gure klasikoak, idaztekoan, beti-beti "euskeraz pentsatu" balute, edo-ta beren buruak "baserritar artean iduritu", beste kontu bat izango zan.

Naiz Kardaberaz'ek, naiz Larramendi'k, eta areago Mendiburu'k amaika aldiz entzungo bait zuten Beterriko beren errietan, bait ori, baserritarren ezpañetatik parra-parra jaikitzen. Bañan idaztekoan, euskeraz ez pentsatzen, beren burua baserritar-artean ez arkitzen.

* * *

Olako beste bitxi berezia, beste "causal-explicativo" —ta atzizkia da. Adibidez: "Artzazute ta jan guztiok ontatik, au nere gorputza da-ta...".

Atzizki "causal" —ta ori, guk Liturgian Mezerdiko itzetan sartu degu; ez, ordea, gure aburuz, Don Lorentzo Gotzaiaren aginduz baizik. Guk, Liturgizaleok, "Artzazute ta jan guztiok ontatik; au nere gorputza da" ipiñi genduan; Don Lorentzok aginduta ipiñi zan "nere gorputza da-ta"... eta (ez lenago gaizki zegolako, baño) edozeñek aitortuko du, zenbatez biziago dan ola esaera osoa: "Artzazute ta jan guztiok ontatik, au nere gorputza da-ta, zuentzat emango dana".

* * *

"Causal" —kontua aipatu degun ezkerro, aipa dezagun baita beste "causal-atzizki" bat ere: —lako eta ikusi, bidenabar, zer alde dagon "causal" batzuetatik besteetara. "Otz bait zan, sua piztu zuten" dio lendabizikoak; "Artzazute... au nere gorputza da-ta" bigarrenak; irugarren ipiñi dezakegu beste au: "Gauza guztiak ezezetik egin zitualako deritzaio "egillea" Jaungoikoari".

Iru "causal" oiek erderara "porque" baten bitartez itzuli ditezke, bañan orren elkarren antzekoak diran arren, ez dira berdin-berdiñak; ba dute zerbait matiz ez-berdin.

Altube'tar Sebero uste det izan zala, —lako orren matiza egokien ezarri zuana. Esaeraren causal-zatia, esaera osoaren "elemento inquirido" danean, erabiltzen degula —lako atzizkia; bañan ez, elemento inquirido ez danean; olakoetan bait edo —ta erabiltzen, alegia. Urrezko araudi bait derizkiot nik Altube Jaunaren araudi...

* * *

Aztertu ditzagun iru adibide oiek.

"Gauza guztiak ezerezetik egin zitalako deritzaio "egillea" Jaungoikoari". Esaera au, galdera baten erantzuna da. Galdera ortan, zergatik deritzaion "egillea" galdetzen da; gauza guztiak ezerezetik egitea, esaera osoaren elemento inquirido da; orregatik darama —lako atzizkia, eta ortaz gañera orregatik ipintzen da elemento inquirido ori dagokion lekuan, "deritzaio" aditzaren aurrean; —lako ori, galdera baten erantzunari dagokio, zergatik bati, alegia.

Beste adibidea: "Morroiak eta serbitzariak (otz bait zan) sua piztu eta berotzen zeuden". Adibide ontan garbi ageri da, bait ori ez dala elemento inquirido, "causal-explicativa" baizik, pasadizuz esaten dan zergati bat, alegia... erderaz "es que" edo zerbait olako esango litzakena, alegia; leengoan "porque" bezela, ontan "es que"...

Ari ontan bertan bait dago beste causal —ta ere: "Artzazute ta jan guztiok ontatik, au nere gorputza da-ta, zuentzat emango dana". Da-ta orren ordeztu ipiñi liteke bait da; bañan ez inñolaz ere dalako bat; ez bait da elemento inquirido, explicativo baizik; erderaz que baten bitartez esan oi dana: "Tomad y comed, que esto es mi cuerpo"...

Olako matizak ulertzeke errex txirristatzen zaizkie, erderaz pentsatuz itzulketa-lanean ari diranai.

* * *

Beste matiz bat, erderaz pentsatuaz euskal-lanetan ari diranai, ulertzeke txirristatzen zaiena, gure deiki-vocativo jatorra da. Gure deiki jator, izen-orde ori'ren bitartez erriak egin izan duana, eta gure klasikoai ulertzeke pasa zaiena. Leen ere inñolaz aipatu izan bait degu gai au:

"María: nora zuaz eder galant ORI".

Dion abesti errikoia oñarri artuta, ez goaz orain, gauza au luze ta zabal emen aztertzeraz. Ezta, orren antzera, "Nik, pekatari ONEK" dion beste esaera jator-jatorra ere, klasikoak ain aazturik

euki dutena bera ere, erderara geitxo loturik lanean jardun dutelako nunbait... Beste kontu bat izango bait zan, Pildain Jaunak zion bezela, beren buruak baseritarren giro jatorrean arkiturik jardun izan balute beti beren lanean.

ONART DEZAGUN

Beste aldeko Klasikoak erabiltzen dute formula ori: *onart dezagun*. *Onartu dezagun*'en ordeztu, erabiltzen dute. Bukaerako —tu'ri u kentzen zaio.

—U kentze ori, noiz egin oi dute? "Inperativoan eta Subjuntivoan".

Gauza jakiña da naiz Inperativoan, naiz Subjuntivoan formak laburtzera jotzen degula guztiok: aditz-joku luzetik aditz-joku sintetikoraz, alegia. *Ikusi dezagun* en ordeztu, *ikus dezagun garbitu ezazu*'ren ordeztu, *garbi zazu*...

Bide orri jarraituaz esan oi da beste aldean *onart dezagun*; berdin esan bait liteke *onart ezazu* etab. ere.

Beste kasu bat aditzaren —tu'ri u kentzen zaiona gure artean ere ba da; adibidez *sinist-erraza*, *sinistu-erraza*'ren ordeztu. Aditz batekin "adjectivum" berri bat egiten danean, aditzari olako bukaera bat erantsiaz: (erantsi-bidez egindako adjectivum bat alegia): *siniskaitza*. Berdin baita aditz berri bat eraxkun-bidez egiten degunean: *berant-etsi etor-berri*, *etorri-berri*'ren ordeztu; *sarpide*, *sartu-bide*'ren ordeztu...

Praktikarako, zer?

Batasunera jo nai badegu, forma argiago eta errezagoa dala, —tu'ren bidetik ibiltzea... gauzak geiegi laburtu gabe.

* * *

Tarteko —t-dun beste forma bat: *Jaiot-egun*, *jaiot-erri*, *jaiot-etxe*...

1973 - Ekaiña.

"ZUEN" ALA "ZUAN"

-BATASUN - BIDEAN-

Peña'tar Xabier'i

BATASUNA.—Euskeraren literatur-batasuna —egin bearra dagola-ta, idazteko formarik egokienak aukeratu bearrean arkitzen ge-

ra. Bide ortan aukeratu bearreko bat, auxe da: "zuen" ala "zuan"? Itzetik-ortzera erabili bearreko itzak bait dira olakoak.

Nere iritzia gai ontan, —*an* formaren aldekoa da. Itz bitan esango det zergatik (1).

* * *

Batasun bidean, besteak beste, fonetismoak baztatu bearra dago beintzat. Fonetismoen bidetik ez goaz batasunera, bi edo irutasunera baizik. Itzen berezko forma jatorrera jo bearra daukagu. Eta, gero, euskalkirik geienak erabiltzen dituzten formak aukeratu baldintza oien barruan garbien dabillena.

Ikustagun orain, aipatutako bi forma oien artean, zein dan, baldintza oien barruan garbien dabillena.

* * *

EUSKALKIRIK GEIENAK erabiltzen dutena, zein da? "Zuen"? ala "zuan"?

Gipuzkoerak —Gipuzkoera jatorrak— "zuan" esan oi du. Bizkaierak ere —*an* formara jotzen du garbi-garbi. Zuberotarrak ere, garbi-garbi, —*an* formara, eta arrek in batera erronkariarrak ere (2).

(1) Txosten onen antzeko beste bat bidali nuan nik Euskalzaindira bere garaian. Euskaltzaindiak *nuen*, *zuen* etab. aukeratu du, bere batasunerako. "Nola?, ez dakigu".

(2) Zuberotarren, gauza ontako iritzi eta praktikaz, garbi-garbi ageri da, gure *zuan*'en orde, berak *zian* esaten dutela, —*a* forman garbi-garbi; berdin baita gure *nuan*'en orde, berak *nian* —naizta askotan, *nin* esan, guk *nun* esango gendukean bezela. Orixe da ango forma. Erronkari'n ere gauza bera gertatzen bait da.

Gipuzkoerari buruz, orain urte batzuek, egin nuan nik, Euskaltzaindiarentzat beste txosten bat, A. Larramendi'ren iritzi oker bat zuzenduaz. Aita andoaindarrak, bere Gramatikan, gipuzkoartzat jartzen bait du *nuen*, *zuen*. Beterriko forma Gipuzkoa guztiari egotziaz, eta alderantzira Laburdi ta Nafarroai *nuan*, *zuan*. Ta Lardizabal bera ere Larramendi'ren iritzira makurtu bait zan, bere "Testamentu Zar ta Berriko kondaira" liburu ederrean; Agirre asteasurra, orde, garbi-garbi, —*a* formaren barruan dabil beti... eta baita Kanta Zaar gipuzkoarrak ere...

Bart arratsean / beranduan
panparroikeria / ba *genduan*;
kantatu oi da Bergara aldean.
Ogeitalagarrena degu Abenduan:
deseo-*genduana* logratu *genduan*;
entzun oi da Gabonetan, Gipuzkoa-Goierrian.

Laburdi eta bi Nafarroak dira —*en* forman dabiltzanak, eta aiekin batera Gipuzkoa Beterria.

"Iru, iruren kontra" gaude, beraz. Gero ikusiko degu beste alderdietatik nola gabiltzan.

* * *

Gipuzkoaren aditz-jokua gai ontan, garbi dago:

Nuan
uan (ukan, unan)
zenduan
zuan;
genduan
zenduen edo zenduten
zuen edo zuten.

Bizkaierak ere berdin egin oi du:

Neban
zenduan (zeban)
eban;
genduan (geban)
zenduen
eben.

Bizkai eta gipuzkoar aditz-jokutik ageri danez, —*en* formak, askozko formak —plural formak— dira, ez bakarkakoak. *Zenduen* forma, *zenduten*'en berdiña da; *zenduten*, berriz, guztiok dakigun bezela, askozko forma da, ez bakarkakoa. Ala berean, *zuen* eta *zuten* elkarren berdiñak dira; *zuten*, berriz, garbi-garbi, askozkoa da.

Gipuzkoan ori, Bizkaian ere berdin gertatzen bait da. Bakarkako formak, —*an formatara jotzen dute*: *neban*, *zenduan* (*zeban*), *eban*... Askotara iristean jotzen dute bizkaitarrak ere —*en* formara: *zenduen*, *eben* (tarte, berriz ere, *genduan* (*geban*) —*an* formaren sallean gelditzen dala.

Beraz euskera batuan, bakarkako sallean —*en* forma sartzea, NAASKILLO bat sortzea da, batasunaren kalte aunditan.

* * *

Laburdi eta Nafarroaren gauza ola da:

Nuen
zenuen
zuen;
genuen
zenuten
zuten.

Dana —en forman —guretzat askozkakoa dan forman— berak, ezik, ederki bereizten dutela bakarkakoagandik askozkakoa; *zenuen*'i eta *zuen*'i "t" bat tartean sarturik: *zenuten*, *zuten*. Bañan bide ori euskera batuari ezin ezarri genezaioke, gipuzkoar eta bizkaiarrentzat naaskillo bat sortu gabe.

Bizkaian eta Gipuzkoan —e formak askotazko formak dira: *dezu*, *du*: *dezue*, *due*; *dozu*, *dau*; *dozue*, *dabe* (daue); *diot*: *diet*; *dautset*; *gizonari*: *gizoneri* etab. Beraz, gauza au arruntean eramatekotan, *zenuen*, *zuen* ere —beren— —e formen, askozko egin bearko ditugu, eta ez bakarko.

Alderdi ortatik, beraz, naaskillo aldetik, alegia, arrazoibide bat geiago dago —e formaren kontra.

Ikustagun orain beste alderdia, fonetismo —alderdia.

* * *

Berezkoa al da, ala fonetismoz sortua, —en forma? *nuen*, *zuen*? Pentsatzekoa bait da, fonetismoz sortua dala eta ez berez.

Izan ere, fonetizmoz, garbi-garbi, —e biurtzen dira, u edo i baten ondoren datozen berezko —a formak: *burua*, *burue*; *begia*, *begiek laguna*, *lagunek egiña*, *egiñe*. Ez bait da gertatzen, ordea, alderantzira.

Ikusi ditzagun argiago adibide batzuek aditz jokoan:

I baten ondoren datorren *a*, *e* biurtzen da adibide auetan:

esan nikan nik: esan niken nik:
esan niñan nik esan niñen nik.

Zein da emen forma jatorra?

Berdin esan bait liteke, *u* baten ondoren datorren *a*'rentzat: *e* biurtzen dala, alegia. Ikus:

ez ukan esan ik: ez uken esan ik;
ez unan esan ik: ez unen esan ik.

Berriz ere galdera bera egin bait genezake: zein da emen forma jatorra? zein fonetismoa? Au da gai ontan nere arrazoibidea —dilema garbi-garbia:

Edo-ta —e forma da, —a formaren fonetismoa; edo-ta, kontrara, —a forma da —e'ren fonetismoa. Ez bait da, ordea, iñor, —a, —e'ren fonetismoa dala esango duanik. *Nuen* da, beraz, *nuan*'en fonetismo, eta ez alderantzira. Forma jatorrak beraz, *nuan*, *uan* (*ukan*, *unan*), *zenduan*, *zuan* eta *genduan* dira; eta ez *nuen*, *zenduen*, *zuen*, *genduen*.

* * *

FONETISMOAREN baldintzari dagokionez ere, beraz, arrazoibidea —a formaren alde dago, eta —e formaren aurka.

REFLEXIVUM-RECIPROCUM

"Reflexivum" erderaz, 3'gn pertsonan, "se" batekin egiten da: "Se mira en el espejo". Bañan 1'go, 2'gn pertsona danean, *me*, *te*, *nos* os'ekin: "Me veo, te ves, se ve; nos vemos, os veis, se ven".

"Se" ori, ordea, erderaz beste batzuetan ere erabiltzen da:

- 1) *pasiva-impersonal* danean: "Esto se dice, esto se estila, esto se lleva";
- 2) *recíproca* danean: *Se ven los dos en la calle*";
- 3) zenbait aditz *intransitivotan*: "Se murió", "Se marchó", "Se cayó".

Benetako reflexivoa, beste iru oetatik berezi bearra dago.

Reflexivoa da, "nork bere buruari" esan nai duanean. Eta, esan ere, reflexivoa euskeraz jator ola esan oi da: "Nik nere burua, ikusten det; zuk zeure burua ikusten dezu; ark bere burua ikusten du; guk geure burua ikusten degu; zuek zeuren burua ikusten dezute; aiek beren burua ikusten dute".

Guzti au, ain gauza garbia dan arren, erdal-reflexivoaren indarrez, batzuren batzuek esan oi dute: "Ni ikusten naiz; zu ikusten zera etab". Erdal-reflexivoa ala bait da: "Me veo; te ves, se ve, etc.", intransitibo. "Se murió", se marchó" etab. bezela: "Il zan; joan zan etab.": Yo me vi=Ni ikusi nintzan"...

Euskera jatorrean reflexivoa ez da egiten aditzaren intransitibo-jokoaren bitartez, transitivoaren bitartez baizik: ez "naiz, zera, da" ren bitartez: "det, dezu, du'ren bitartez baizik; ikusten; bañan ez "Nik ni ikusten det" esanaz, "Nik nere burua ikusten det" baizik; ikusten dedana *neroni* ez banintz bezela (lenengo pertsona), irugarren pertsona bat bezela baizik: "nere burua"... Eta berdin, "Zuk zurea, eta ark berea"... (1).

(1) Olakoetan guk, euskaldunok, "nik neroni" esan bearren, sinekdokez (*pars pro toto*) "nik nere burua" esan oi degu, Bibliak "nere anima, nere biotza, nere espirtua, nere guntzurrunak" esan oi duan bezela.

* * *

Irugarren petrona-kontu ortan, gauza bera gertatzen da baita, *reflexivoan* ezik, baita *reziprokoan* ere.

Reciprocoaren izaera, gauza jakiña da: alkarri zerbait egitea. Eta esan ere, reziprocoa euskeraz jator ola esan oi da: "Guk *alkar* egunoro ikusten degu; zuek *alkar* egunoro ikusten dezute; aiek *alkar* egunoro ikusten dute".

Ikusten danez, reziprocoak euskeraz, reflexivoaren beraren egitura du. Gauza bat du reflexivoarengandik bestelako: aditz-jokua beti ere *askozkoa* duala, eta ez bakarrezkoa: *gu*, *zuek*, *aiek*. Eta beti ere *transitiboan*, eta ez *intransitiboan*: "*Alkar* ikusi *degu*" eta ez "*Alkar* ikusi *gera*"; ikusi deguna beti ere beste norbait balitz bezela... (2).

Reciprocum.—"Alkar ikusi degu; alkarren berri ba degu; alkarri esan genion; elkarrentzat ez degu gorrotorik; alkarrekin bizi gera: alkarrengandik partitu giñenean...; elkarrengana bilduko dira: alkarrengan ez dute konpianza aundirik".

Reflexivum.—"Nere burua ezagutzen det nik; nere burua ezagutzen det nik; nere buruaren kaltean nabil; nere buruari esan nion; nere buruarentzat lotsagarri...; nere *baitan* esan nuan; bere baitara (onetara) etorri zanean...; nere baitatik (onetatik) atera nintzan; nere buruarekin aserre nago".

EUSKERAZKO "RELATIBOA"

Leen, iñoiz (Irazustabarrenaren "Doctrina cristianan", adibidez) erderazko "relatibo" *que*, euskeraz "zeña" baten bidez egin izan zan: "zeñaren", edota "zeña bait'en" bidez: "(Gizon egin zan) bigarrena, ZEÑA DAN Semea": ("Se hizo hombre) la segunda (persona), que es el Hijo"; "Zeña, gizon egiñik, deitzen dan Jesukristo".

(2) Reciprocoa Biblian perifrasis baten bidez egin oi da; adibidez: "Esan genion, batek (gizonak) bere lagunari, bere lagunari, bere anaiari". Guk, edota perifrasis-bidez: "Esan genion *batak besteari*"; edota sintesis-eran: "Esan genion *alkarri*"; beti ere aditza askozko eran ipiñiaz, eta arein zerkia, alkartasun zerbait adierazten duan formula baten bidez, dala *alkar*, dala "batak beste"; Bibliak "lagun" edo "anai" esanaz bezela.

Idazteko era oni, *zeñismo* esaten zitzaion; eta, ain arlote ta lotsagarri zanez ez da arritzeko, aspalditxo baztartua izatea.

Ikus dezagun, beraz nola egiten dan jator.

Araua.

Esaera "relatiboa", erderaz izenorde relatiboaren bitartez egiten da: "El hombre QUE ha venido, es mi padre".

a) QUE izenorde orren aurrean dagon izenari (*hombre*'ri), relatiboaren "aurrelaria", *antecedente* esaten zaio; eta, naiz erderaz, naiz latiñez, izen ori beti ere relatiboaren aurrean egon oi da:

b) izenorde *que* ori, erderaz naiz latiñez, deklinagarria da: ba du bere nominativo, genitivo, dativo etb. (qui, cuius, cui, quem...).

* * *

Euskeraz, esaera relatiboa, aditzaren atzizki-sufijo-n baten bitartez egiten degu: "Etorri DAN gizona, nere aita da".

a) "aurrelaria" euskeraz beti ere -N atzizkiaren ondoren dago; ez da aurrelari jatorra, atzelaria baizik;

b) gure -N relatiboa, aditzaren atzizki danez, ez da deklinagarria.

* * *

Euskerazko relatiboa, deklinagarri ez izate orrek, ezberdintasun aundi bat sortzen du gai ontan Euskeraren eta Erderaren artean. Zenbait aldiz, erderazko esaera bat, zuzenean ezin itzuli diteke euskerara, eta itzulpena "perifrasis edo circumloquio" baten bitartez egin bear izaten da.

"Zenbait aldiz", ez beti.

—Ba dira iru aldi, itzulpena "zuzenean" egin ditezkenak: relatiboa erderaz nominatiboan eta akusatiboan eta datiboan dagonen (*caso recto* esaten bait-zaio).

—*nominativo-acusativoa* dagonean, eta *caso oblicuo dativoan* dagonean. Olakoetan itzulpena zuzenean ederki egiten da: "El hombre que (*qui*) ha venido, es mi padre"; = "Etorri dan gizona, nere aita da"; "El hombre que (*quem*) has visto, es mi padre"; = Ikusi *dezun* gizona, nere aita da: "El hombre a quien (*cui*) has dicho eso, es mi padre"; = "Ori esan *diozun* gizona, nere aita da".

Iru esaera oietan, atzizki -n'ek aditzarekin duan relazioa, *errex asmatzen da*, deklinabiderik gabe ere: azkeneko esaeran, aditzak berak (*diozun* ortan) bere datibo-relazioa argi adierazten

dualako; eta lenengo ta bigarren esaeran relazio zuzena dalako, nominatibo-akusatibo-relazioa.

* * *

Relazioa bestelakoa danean (*de-desde*, adibidez, edo *en, a-hacia, por* etab.) orduan sortzen dira itzulpenaren zailtasunak. Olakoetan, naita-ez, esaeraren *kontextuaz* baliatu bearra dago, edo, bestela, *perifrasis* bat egin.

Ipiñi ditzagun adibide batzuek: “La casa *en que* vives, es grande”; “en que” ori ezin esan ditekete itzez-itzez euskeraz; “Bizi zeran etxea” esaten badegu, “La casa *que* vives” esaten degu; *en* bat falta zaio *que orri*... Ala ere, kontextotik errex *asmatzen* degu, or falta dana, *en* bat dala; bizi izatearen eta etxearen artean dagon relazioa, jakiña bait da, *en’ezkoa* dala.

Berdin esan dezakegu beste ontan ere: “El camino *por donde* vas, es estrecho”; *por donde* orrek ere euskeraz ez du itzez-itzezko itzulpenik; “Zatozen bidea, bide estua da” esaten badegu, “El camino *que* vienes” esaten degu; *por* bat falta zaio esaera orri... Ala ere, esaeraren beraren kontextotik errex *asmatzen* degu, or falta dana, *por* bat dala. Izan ere, *etorri* eta *bidearen* artean dagon relazioa, jakiña, da, *por* dala.

* * *

Ba dira, ordea, oiek baño zallagoko esaerak. Adibidez: “Este es mi Hijo, *en quien* tengo mis complacencias”. Beste oien bide-tik, “Au da, nere atsegiñak *ditudan* nere Semea” esaten badegu, esaera ez da argia; *en quien* arren relazioa, ez da argi agiri, eta esaera, illun gelditzen da. Kontextoak ez digu argitasunik ematen.

Berdin izango litzake beste au ere: “Este es el hombre *con quien* he venido”, “Au da ni *etorri naizen* gizona”. *Con* relazioa faltako litzake; kontexto geiago, relazio ori ezin *asma* liteke errex *etorri*’ren eta *gizonaren* artean.

Olakoetan, biderik egokiena, auxe da: *perifrasis* bat-edo egitea, *bait* batez eta izen-orde (pronombre) batez baliatuaz; adibidez: “Au da nere Seme maitea; *onengan bait* ditut Nik nere atsegiñak”.

Beste adibide bat: “Jacob engendró a José, el esposo de María, *de quien* nació Jesús, que se llama Cristo”=“Jabok’ek sortu zuan Jose, Maria’ren senarra, *arengandik* sortu *bait* zan Jesus, Kristo deritzana”.

* * *

Beste *perifrasis* geiago ta geiago egin litezke; aietan bat, esaeraren ordez, aren reziprokua ipintzea; adibidez: “Este es el hombre *con quien* he venido” esan bearrean, esan beste au: “Este es el hombre que ha venido *conmigo*”=“Au da, *nerekin* etorri dan gizona”. Eta olako asko ta asko beste “*perifrasis* eta *circumloquio*”...

Nolanai ere, iñolaz ere ez, Irazustabarrenaren “zeñarik”.

PRAXIS

1) (Venit homo) *cuius* filius infirmabatur Capharnaum. (Gizon bat) *aren* semea Kafarnaunem gaxo *bait* zegon. Perifr. Semea Kafarnaunem gaxo zeukan gizon bat.

2) Lignum pomiferum, *cuius* semen in semetipso sit.

Perifr. *Bere* azia bere baitan *duan* zugatza.

3) Convivium *in que* Christus sumitur...

Ex context. Kristo artzen *dan* afaria.

4) (Filius meus dilectus) *in que* mihi bene complacui.

(Seme maitea) *onengan bait* det Nik nere atsegiña *Berarengan* nere atsegiña *dedan* Seme maitea.

5) Lignum *de quo* Christus pependit...

Ex context. Jesus zintzillik *egon zan* zugatza.

6) Maria Magdalene, *de qua* eiecerat septem daemonia...

María Magdalena, *arengandik* zazpi etsai bota *bait* zituan.

Perifr. Zazpi etsai kendu *zizkion* María Magdalena.

7) Ex context. Jesus il zan Gurutzea.

8) Ex context. *Etorri* zeran erria (ad quem).

Joan ziñan erria (a quo).

IV
Euskalerria

PIARRES LAFITTE

*Mende huntako
Euskaldun idazleen
pentsa-bideak*

Lan xume huni eman diogun tituluak argitasun zerbait hartze du.

“Mende” hitzak Lapurdin asko gauza erran nahi du: gu baktxaren bizi-aldia, edo belaun-aldi baten iraupena, edo ehun urteren epea. Diogularik norbait gure mendekoa dela, ez dugu denek gauza bera gogoan. Hemezortzi urteko mutiko batentzat 1955-etik hunateko jendeak mendekide dira. Ixaka Mendizabal jaunarentzat 1877-tik hunatekoak. Beraz gure eremua aski zabal izaiten ahalko da.

Aipatzen ditugu bertzalde “Euskaldun idazleak”. Bainan Euskaldun eskolatuek gehienetan erdarak badakizkitez: noizik behin-ka euskaraz idazten dute zonbaitek; bainan ardurenik, irakurle gehiago izaitekotan, bertze hizkuntzetarait joiten dute, bereziki españolerat edo frantseserat, nahiz 14 hizkuntza kondatu ditugun euskaldun idazleek han-hemenka erabilietan: angles, italiano, aleman, japonese, induztani, guarani, berber, eta abar.

Alabainan, gure euskal-kultura xumeak, Unibersitaterik gabe, jende eskolatu gutiegiz, nahi-t-ez munduko pentsa-bidetan bilatzen ohi ditu bere iturburuak: haren nortasuna bere hautuetan agertzen da, bakanago berrikuntzetan.

Gure lanaren ordena izanen da, nunbait han, *Panorama des idées contemporaines* liburuarena (Gallimard, 1957). Gure gaiari egokitu dugu, bixtan da.

Aipatu nahi ginituzke hemen: filosofiak; gizarteari, ekonomiar, politikari eta dretxoari dagozkien jakintzak; edertiar, buruzko teoriak; ixtorioaren norabidea ikertzen duten asmakizunak; erlisioneak; hizkuntza eta literaturak; bertze jakinduria zonbait.

Holako xede baten osoki betetzeko, langile eta ikertzaile talde bat behar litake bildu; lagunek mia lezaketeko zoin bere jakintza-saila, ikusiz baktxean pentsalari euskaldunak aurkitzen dutenez eta zoin motakoa. Iker lezaketeko bibliografiak, enziklopediak, aldizkari bereziak, eta hor ikus lezaketeko nundik lot lanari.

Bide-nabar salatuko dautzuet hainitz xehetasun aurki ditakela Leguizamon, Ugarte, Pedro Henriquez Rioseco, Menendez-Pelayo, Luis Alberto-Sanchez jaunek literatura hispano-amerikanoez idatzi liburuetan.

Literatur-geografiek ere idazle euskaldun batzuen izenen berri eman dezakete, ala Frantzian, ala Espainian bildurik.

Nun zer inkesta axal horren ondoan, gure idazleen lanak berak irakurri behar litazke.

Gero has litake bakarrik gai horien guzien kidekatzea eta ikuspen orokar atsegin baten izaitea (1).

Hitzaldi huntan ez duzue deus sakonik adituko; axaletik, gaingiroki ariko gira (2) eta izen asko aipaturik ere, segur nago hainitz eskastuko zaizkigula, ahantzirik edo (maizago) ez ikasirik.

Otoi, jaunak, barkatu, alde batetik lan hau arinegi balinbazaitzue, eta bertetik haztunegi. Barkatu ere ene mintzaire zail eta bihurria.

* * *

FILOSOFIAK

Bochenski-ren arabera (La philosophie contemporaine en Europe, 1962) berex ditazke egungo egunean, sei filosofia nausi: *ekai-arena*, *ideia-rena*, *bizi-arena*, *zertasun-arena*, *baden-arena* eta *izaitte-arena* (1).

Materiaren filosofiarik itxuraz sakonena (nola nahi ere dogmatikoena) Karl Marx-ena da. Berriki arte, nun ez zen haren politika hunkitzen, nehorik ez zuen euskaraz haren berririk emaiten. Azken urte hautan hargatik, alde edo kontra, atera zaizku idazki zombait: *Lur* editorialak Marx-en eta Engels-en puxka batzu jalgi ditu itzulirik; Krutwig-ek Mao-Tse-Tung-en pilixka batzu. Indar gehiago erakutsi dute Julen Madariagak eta Haranburu-Altunak materialismo horren fagore. Alderantziz, nola ez gorets Gotzon Garate eta Joxe Azurmendi kritikalarik bikainak? — Erdaraz, European aipatu behar da bederen Pasionaria; Perun, Jose Carlos Mariategui (1891-

(1) Lan hortarat deitzen ditut euskaldun ikerle gazteak: beren fitxak bidal dietzazkidatela: Pierre LAFITTE, Collège, 64480 Ustaritz (France). Oraitik eskerrik asko.

(2) Xehetasunetan sartzea luzegi litake. Ameriketako idazle euskaldunentzat bakarrik orai arte bildu ditugu 193 fitxa; ez ditugu lan huntan denak baliatzen ahalko.

(1) *Ekai*, materia (matière); *Ideia*, idea (idée); *Bizi*, vida (vie); *Zertasun*, esencia (essence); *Badena*, existente (existant); *Izaite*, ente (être).

1930); Xilen, Recabarren Serreno: azken hau Rusian gaindi ibili zen, hango "parabisua" gozatu nahiz; bainan ikusiak ikusi-ta, etsituan etsitu, bere buruaz bertze egin zuen (1924).

Anglesen "neo-errealismoak" ez du gutartean arrakesta handirik izan, Bertrand Russell-en iritzi zombait euskaraz agertarazi badiutuzte ere.

Ardurazko materialismoa (*empirico-a*) euskaldun radikal edo sozialixta batzuen gogoan datza "positibismo zientzia" zaharraren ondoriotasun bezala; egia erran, materialismo hori bizitzen dute, pentsatzen duten baino-ago. Bizkitartean sudurra begitartean bezain nabarmen dago Pio Baroja baten idazkietan, opatzen duelarik euskalduna berriz ere lurzale pagano bilaka dadin.

Jean Etchepare osakin zenak ere bere *Buruxketan* (1910) erakutsi zuen frango bortizki bere positibokeria, ez bazituen ere golkoan zituenak oro argitaratu. Geroztik, behin edo bertze mintzatu gira harekin gauza hoitaz, nahiz ardurenean auzi horiek ixilik zauzkan. Azaltzen zaukun bere fede girixtinoa kordokatu zitzaiola Larresoroko ikastegian, filosofia ikastea, eta handik landa, Nietzschen irakurtzeak itzal-arazi ziola. Orduan Reichenbach-en filosofia analitikari buruz bihurtu zen, eta beretzat bizi-modu bat hautatu zuen, Euskal-herriko ohidueri egokitua. Halere haren artikuletan hitz-erdika edo laurdenka usna zitazken haren azpi-gogoetak. Schopenhauer-en ganik atxiki zuen bizi-modu serio eta garratz baten beharra. Gehiago dena, —harrigarri bazaitzue harrigarri—, haren liburu hautetsiena, Kenpis-ena zen, kasik beti sakelan zokarrena. Lehen Guyau batek Loiola-ko Eneko-ren gogo-jardunak laikatu zituen bezala, Etchepare medikuak *Kristoren antz-bide* edo *Imitazio-nea* psikologia-huts joko batetara itzuli zuen. Bizkitartean behin berak hauxe izkiriatu du: "Nik egunero ohoratzen dut Jesu-Kristo."

Bertze euskaldun batek Haeckel-en aburuak on-harturik, espainolez hedatu zituen. Iñacio Gamboa zuen izena eta Mexikon bizi zen. Bainan 1906-ra gabe ohartu zen Ienako jauntxoa sasi-jakintzan ari izana dela, eta zintzoki gibelerat egin zuen bere lehenbiziko erakaspenak behaurek gezurtatuz.

* * *

Idealismoak izan du bere menta Croce, Brunsvicg eta Kant-zale berriekin. Ez dut uste Euskaldunek abegi egin dioten, bederen azkeneko jauntzitan atera delarik.

Zer nahi den, Lachelier danik Parodi arte Frantzian alha izan den idealismoa hobekienik jorratu dutenen kritikatzaletarik bat, Aita Auguste Etcheverry Ziburutarra izan da, inarrosi ederrik emai-

ten zeila Brunsvicg eta Hamelin bezalako biligarroeri. Gisa be-rean, bertze liburu batean, Weber-en idealismo logikoa ere galanki zafrazten zuen, bainan beti frantsesez.

Platon-en idealismo zaharra Zaitegi apezak azaldu dauku *Platon-eneko aatrian*. Ez dakit funtsean liburu eder horren egileak be-renaz on-hartzen duenetz, den bezala, filosofia hori. Ene aldetik erran dezakedana, hauxe da: Atenaitar handiaren jainua miresten badut ere, ez nitzaiola haren sistimari atxikia; ez nindaiteke batere harri, Zaitegi ene adixkidea kasu bertsuan balitz. Jean Ithurriague aldiz, Baionako euskal-erakustokiko buruzagi zenak, Platon-zale osoa zela frogatzen zuen bere dotorgorako bi liburuetan.

* * *

Biziaren filosofia laketago zuketen askoz ere Euskaldunek, ba-tez ere Bergson-ena eta pragmatistena.

Jakin editorialeko liburu batean, Salaberry kalonjeak lan bat ager-arazi du Bergson-ez: haren arabera, filosofo horren erakaspe-na euskaraz aise azal ditake, dena itxura eta zentzu delakotz, gure hizkuntza bezala.

Hargatik, Orixe zenak, Bidarrain bizi zen urtetan, nahi izan zuen Bergson-en kritika bat ager-arazi. Ez dakit zertako etorri zi-tzaitan bere orri-alde batzuen irakurtzerat. Baionako Darracq irar-kolan ginen. Uste nuen ene iritziaren galdez heldu zela, eta ez bai-tezpada txaloketa. Zoritxarrez erran nion, filosofo handiaren zon-bait pasarte ez zituzkela ongi ulertu. Mokoka-aldi ederra sortu zi-tzaikun “*évolution créatrice*” delakoaz. Gutik egin zuen ez bainin-duen jo. Luzaz ez zautan barkatu. Bainan lanoak itzali ziren, eta Euskalzaindian sartu zen egunean, Leizan, haren bi babesletarik bat izan nintzen. Damu dut ez bainuen sustatu bere lanaren argita-ratzera, zombait huts gora-behera. Haren paperetan gai hortaz zer-bait atxeman omen baitute, opa dut bihotz-bihotzetik, lehen-bai-lehen ager-araz dezaten.

Bertze euskalzale, bat Georges Lacombe, arras Bergson-zalea zen. Urbildik jarraitzen zitzaion: haren liburu eta den menderen lerroak biltzen zituen: haren hitzaldi gehienetan aurkitzen ohi zen, Alemaniarat edo berdin Angleterrarat berdin haren ondotik zebil-la, haren hitzik ez galdu nahiz. Ez zituen halere Bergsonen aburu guziak beretzen. Ez zuen naski lagunduko krixtautasun-alartzaraino. Beha zagon batzutan Pierre Janet-en ganat, bertzetan Lachelier-en ganat, nehon ere bere gogo finkatu gabe.

Gure mendean nehor guti da bere baitan hetsia dagokenik; orok jakin nahi dugu bertzek zer duketen gogoan; eta heien erra-

netan zerbait doakunik aurkitzen dugun ber, mailegatzten eta gure-tzen dugu. Ez harri beraz Bergson eta William James, asko eskole-tako pentsalariak baliatu baitituzte. Gauza bera erran ditake Blon-del-ez.

Bainan Blondel huni, Uztaritzeko euskaldun gazte batek arta-rekin bota dio begia, eta hartaz bi liburu atera ditu frantsesez: *Genèse de l'Action* eta *Apologétique philosophique*. Hirugarrena bidean dauka: *Une phénoménologie scientifique: l'Action ou le fait intérieur*. Hemen ez dugu dudarik: Raymond Saint-Jean jesui-tak osoki beretzen du azaltzen duen filosofia. Agian egun batez euskaraz jasta-raziko dauku Blondel-en ikuspena.

* * *

Zertasun edo esentziaren filosofia ez du bide handirik egin Euskaldunen artean. Zeiharka baizik ez zaiku baliatu.

Adibidez, Scheler-ek moralisteri esondatu deezte berexkunde xehe-xehe batzu, elgarretarik banaituz “egin-gogoa”, “egin-nahia”, “xedeia” eta “hel-burua”, edo berdin “egin-beharra” eta “izan-beharra” eta “izan-beharra”.

Menturaz ere Scheler horrek berak, ondar-gerla aintzinttoan, “personalismoa” bultzatu duke Lapurdiko gazte batzuen bihotzetan, nahiz (gure iduriko) heien “personalismoak” zor gehiago zeien Daniel-Rops, Dandieu, Alexandre Marc eta Emmanuel Mounier idazleri.

Aita Bordachar euskaldun betharramixtak lan handia egin zuen bere urhezko lumaz “personalismo” horren hedatzeko.

* * *

Badena-ren edo existentziaren filosofia gain-gainetik argi-arazi du Unamunok. Unamuno ez zen jarraile: izaitekotz aintzindari, aurre-ibildari. Eskola hortako buru handiak (Marcel, Sartre, Camus, Heidegger, Wahl, eta abara) haren ondotik etorri dira.

Hizkuntza eder batean nola ez du aipatu “bitziaren latza”? Nundik dator latz hori? Don Miguel-ek erantzuten du: “biziaren eta adimenduaren arteko etsaigotik”. Jitez ezin onets dezakegu hiltzea, eta adimenduak hil-beharra erakusten.

Zoinek du arrain? Gure filosofoak sinetsi nahiago du bizia, bere beti irauteko egarriarekin: adimenduaren boz hotzari nausi oz ote zaio odolaren mintzo beroa? Beraz, dio Unamunok, ukatu behar dugu betiereko hiltzea, eta heriotzetik landako bizia irabazi. Don Miguel-ek ez zuen Eliza gogo, bainan kristautasuna gora zau-

kan. Gizonek haren ganik ikasten ahal dutelakoan etsimenduari iharkitzen.

Existenzialisten izarretan, ez bada ere beti argiena, Unamuno ez da segur ttipiena.

Bitxi bada, bitxi —oraiko gure herritar gazteak ez zaizko bizi-ki jarraikitzen: zonbait, Camus'en ildoan ibilki ikusten ditugu, kexu eta griñatsu, beren minak gaizkonduko badituzte ere, beti beren zaurieri hazka, non ez dituzten, Job zaharrak bezala, karrakatzan: aldizkari-artikulu ala prediku, ipui ala antzerki, kantu ala olerki, entsegu ala ele-berri, orotan senditzen dugu kezka sakon bat.

Nork edo nork erranen dautzue aspaldikoa dugula gaitz hori Euskaldunek. Erromanoek ez ote zioten "inquietus cantaber"? Bainan jakin behar litake ea "inquietus" horrek "griñatua" erran nahi duen ala "ezin egona".

Mirande gure poeta euskal-paristar zenak Kafka itzuli zuen, hala da: bainan ez dut uste judu horren filosofiaren maitez egin zukeela.

* * *

Izaitearen filosofia Euskal-herriko asko ikastegitan eta semenario guzietan guti edo aski sartu da azken urte hautaraino, eta hainitz euskaldun agertu da horren alde European eta Ameriketean gaindi.

Mende huntan "neo-tomistak" izan ditugu bereziagoki. Hiruz-palau baizik ez zaizkitzue hemen aipatuko.

"Neo-tomista" erran dugu, Euskaldun maisu gehienek ez baitute tomismo hutsa beretu, bai ordea zoinek bere gisa zahar-berrikatu.

Orroitz naiz Donapaleuko Remi Fourcade teologoaz: Tolosa (Toulouse) hiriko "Institut Catholique" delakoan erakasle zen. Maiz aho-mihitan zuen San Tomasen izena: bainan ez zen hargatik beti haren aburuko. Orok gogoan ditugu Fourcade kalonjearen erran-bide batzu. Ospe handitan hasten zen: *Divus Thomas quidem dixit quod...* eta gero oilarkaturik bukatzen zuen: *Nec pro tanto dicendum est...* gauzak bere ustez haxean ezartzen zituela.

Mathieu, Akizeko jaun apezpiku hazpandar zena, nihaurek izan dut Baionan erakasle eta zor handiak diozkat, bertze askok bezala, pentsatzen erakutsi baitzaukun. Mercier kardinalaren meanean egona zen Louvain-eko ikastegi nausian, Wolf-ek horko erakasletzat begizatua. Bazaukan "philosophia perennis" dalakoak ez zuela bere betikotasun hura atxikiko, beti idekia egonez baizik, hots, balore aurkitu-berriak lehen-bai-lehen beretuz. Bera aditzeko zen gure "otto Klement" —zonbaitek hola deitzen ginuen gutartean— "hilemorfismoa" electro-kimiaren medioz frogatzen zue-

larik, ala "apologian" bai Sabatier, bai Blondel, Bai William James baliatzen zituelarik; ekonomiari buruz, Charles Gide eta Georges Valois zituen maisu, orai segur zaharkitu zaizkunak baiñan orduan (duela berrogoi-ta-hamar urte) arras modan zirenak.

Duela bortz urte, Aita Diharce, oraiko Belok-eko Beneditanoen abadeak, ager-arazi zuen liburu bat, Aita Candau garaztarraz. Misionest hunek Japonian harrigarriko arrakesta ukan zuen pentsalari, mintzalari eta idazlari bezela, bai girixtinoen, bai paganoen artean. Hango mintzaira hain ongi beretua zuen, nun hil zelarik ehozketa ofizialak egin baitziozkatzen. Omenez tomista zen, bainan San Tomas guti edo asko japonestu zuen, bertzalde eratzikitzen ziozkala Thibon-Sertillange, Maritain eta Lavelle-n asko emendagailu.

Ortega y Gasset-en hildoan (nahiz jaun hunek ez aaukan tomismoare-kilakorik) neo-tomista batzu agertu dira, itzal handikoak. Bi izen baizik ez ditugu hemen aipatuko.

Zaragueta jaun apezaga agure sendo bat da, euskalduna eta euskalzalea. Louvain-eko ikasle ohia, bere eskolastika alde guzietarat zabaldu du. Haren filosofian ageri dira zer nahi azterna eta orroitzapen balios. Ezagun da barna danik irakurri dituela Georges Bastide, Maurice Legendre, Ortega, Bergson, Jacques Chevalier, Boyer, Gonseth, Tonini, Morandini, Fantappié, eta abar. Bere bilduma edo sintesi aberatsetan neurri onean sar-arazten ditu mota askotako jakintzak: matematika, antropologia, linguistika, fenomenologia. Haren lumatik hogei-ta-hamar bat liburu jalgi dira, geienak españolez idatziak, batzu hargatik frantsesez, ezen frantse-derki baderabil, Uztaritzeko uda-erakastaldi batzuetan hainitzek frogatu ahal izan dugun bezala. Gai guziak on zaizko: bizia, arima, baloreak, aldia, ikas-bideak, adimendu-bideak, sendimendustraiak, eta abar. Zonbaitek Zaragueta ezartzen dute Auguste Comte, Cournot eta Jaspers-en lerroan. Ez da guti, ez eta gehiegi.

Xabier Zubirik Zaragueta izan du maisutzat, bainan bera ere maisuhandi bilakatu da. Bortz-pa-sei hizkuntzaren jabe, ikertu ditu lehen pausu batean biologia, fisika, eta matematikak; gero buru eta beharri filosofian murgildu da. Husserl-i zor handiak diozka, bainan Frantz Brentano-ri handiagoak: huni mailegatu dio bere "objetebizmo radikala". Dionaz, oraiko arimari doakon lan gaitza eta beharrena zera da: egiazko izakirat heltzea. Hortaratzeko, nahi lituzke hain berex dauden metafisika eta jakitate positiboa elgarrekin ezkondu. Positibistek munduko legeen harat-hunatarri baizik ez omen dute eskerrik, eta horrela filosofia sor-gortzen edo zurmintzen dute. Lehen-bai-lehen funtsezko jakintza sakon batetarat jo behar litake. Hori da naski Zubiri-ren asmurik barrengoena. Salatu du Parisen, Erroman, Barzelonan, Madrilen, hitzaldi zaratatsu batzuetan. Liburu guti ateratzen du, bainan, luzaz onturik agertzen

direnean, badutela aipaldi! Orai hamar urte, adibidez, zer arrabotsa ez zuten egin aldizkariak "Esentzia" deitu liburua sortzearekin! Orok behar zuten erosi bederen. Zonbategi duten bururen buru irakurri, hori bertzerik da. Ez dut uste erostun bezenbat irakurle izan duen. Filosofia hori izigarri idorra da alabainan, lehengo asmoz orratua, baina berri-berria, Espainiako, Frantziako eta guziz Alemaniako pentsa-oldek markatua. Hots, Europano goi-mailekoa. Erran behar dugu gizona bera arras maitagarria izanez, haren obren arraketa aise ulert daitekela.

* * *

Filosofiari buruz eman dugun solasa ez ginuke amaitu nahi, Carlos Santamaria gure adixkideaz bi hitz erran gabe, hain da Europan gaindi ezagutu eta estimatua. Lan-bidez matematikari delarik, denbora berean filosofo girixtinotzat famatzen dute bazter guzietan: españolez, frantsesez ala euskaraz berdin garbiki eta xugunki mintzatzen da. Gai asko badarabil, baina kritikologian iduri zait dela nausienik. Gutik harek bezain xeheki eta ausarki ikertu dituzte fedearen ingurumen edo baldintzak, erlisioneari doakon askatasuna, eta zer hartu-emanak dituzketen elgarrekin segurtamen mota bereziek. Aita Auguste Etcheverry-rekin ez bide da Euskal-herrian kriteriologo hainitz, lehentzen ahal zaionik, zuhurrez ala zorrotzez.

Huntan bukatzen dut Euskaldun filosofoen zerrenda. Ontsalarik, beharko nituen bertze asko eta asko buru handi aipatu, hala nola Ramiro de Maestu, Alkorta y Echevarria, edo Dominguez Berrueta: aitortzen dut lañoki, heien izenez bertzerik ez dakidala. Otoi-otoi, barkatu!

GIZARTE EREMUAN

Gizarteari doazkon lanez mintza gaitzen.

Ez dugu zeren uka, Euskaldun gehienak ez direla metafisikazale: laketago dituzte ikusten, aditzen eta haztatzen dituzten gauzak, ezen-ez nunbaiko asmu huts eta hotzak. Gogotikago lotzen zaizko beraz deretxoari, politikari, ekonomiari, herri hezkuntzari. Gai horiek erabili dituzten pentsalari euskaldunak inobre datezke; inkesta doi-doia hasia dudalarik, idazle hoieri buruz, Ameriketarik 77 fitxa bildu ditut, Europatik laurogoi bat.

Ikus xoilki gure liburu azoka edo feirietan agertu katalogoak, edo "Principe de Viana" batzordeak ateraiak, —harrituko zirezte deretxoak hartzen duen lekuaz:

Derecho constitucional,
Derecho foral,
Derecho civil,
Derecho municipal,
Derecho parroquial,
Derecho mercantil,
Derecho marítimo,
Derecho político,
Derecho penal,
...eta abar.

Oro erdaraz ari direlarik, ikerzale zorrotzak badituzte deretxoaren adar guziak.

Ardurenean gure-gizonen legeak diren bezala on-hartzen dituzte, beren on-gaitzekin, —bilatuz hala beharrez, ea ez dutenetz uzten itzur eta itzul-biderik.

Badira halere hain arrunt ez direnak, eta agintariak beren gisa egin legez gorago daudenak, zer nahi gerta ere, oroz gaineko zuzenak begiratuz. Horietarik ziren, bertzeak bertze, Galindez eta Bonifacio de Echegaray, betiereko eskubideri behatuz ezagutzen baitzituzten gure lege zaharren zuhurtzia, eta bertze batzuen akatsak, adibidez Ameriketako herri baten edo bertzearenak. Galindez eta Echegaray bezelako guti izanik ere, nola ez aipa: Augustin Azpiazu, Bolibian; Pedro Irigoyen, Perun; Irueta Goyena, Urugaien; Pablo Garriga, Xilen; Manuel Azpiazu, Mexikon; eta hain urrun joan gabe: Irujo eta Saint-Esteben, Parisen; Dravasa eta Larronde, Bordelen; eta bertze zonbat ez Madrilen, Bilbon, Donostian, Iruñan, Gamboa eta Criquiain bezalakoak?

Elizaren deretxoaz, dugun erran bakarrik beti danik gure apez eta fraile hainitzek arta hartu dutela bai munduan gaindi, bai eta Batikano inguruetan ere.

* * *

Euskaldunek ekonomiari gogotik emaiten diote begi.

Euskaraz, egia erraiteko, agertu dira zonbait liburu nekazari-tzaz, hazkuntzaz, etxalde baten erabiltzeaz (Gogoan ditugu Duvoisin, Oñatibia, Abadie, Aguerre, Gaxitegi eta holakoen lanak); baina maizenik, balios izana gatik, axalekoak dira, jende xehearentzat larri-larria eginak.

Españolez eta frantsesez, gutarteko agerkarietan badira segur sakonagoak. Baina Ameriketako gure Euskaldunek jakitate gehiago eta abaila handiagoa derakuskigute: orroit, adibidez, nola Uru-

guaiko Mariano Berrok laborantza berriari idekitzen diozkan ezin-sinetsizko bideak.

Laborantzatik kanpo, ez da euskaraz lan handirik jalgi ekonomiari buruz, azken urte hautaraino. Orai ba, ederki hasi zaizku G. Antsola, J. L. Lizundia, X. Irigaray, R. Camblong eta Davant batzu. Españolez aldiz Euskaldunek gai horietaz egin dituzte ixtudio serioesak. Aitortuko dugu, gehienetan politika-gibel-asmuz azpilduak direla. Bainan gero zer? Frantziako minixtro Luis baroinak ez ote zituen elgarri josten dirugintza eta politika? Aipagarriak zaizku Komerzioko ganbarek egin dituzten ikerketak Iruñan, Gazteizen, Donostian, Baionan, bainan oroz gagnetik Bilbon.

Izen batzu emaitetokz, plazarekin gorets ginezazke Europan: Luis Etcheverry, Luis Inchauspe, Leizaola, Soraluze, eta abar; Amerikan, bertze hainitz: Xilen, Manuel Zañartu, edo Miguel Cruchaga; Porto-Rico-n, Arteaga eskola zaharrekoa; Guatemalan, Evarista Uriburu; Madrilen, Olariaga, Prados-Arrarte.

Politikan, ez dugu paper eskasik. Alderdi guziek hedatzen dituzte, tole! Bainan egun ez naiz itsaso hortan sartuko, uharri eta ekaitzen beldurrez.

* * *

Zozial-sailean ere Euskaldunen ideiek badute zer ikusi auzoenekin. Damurik Juan Thalamas gure adixkideak ez baiteie jarraipenik eman hain ederki hasi zituen sozial erakaspeneri, edo Aita Azpiatzuk herrik-herri abiatu sozial-inkesta biderditan utzi baitauku!

Ezin ahantzia zaiku Eibar-eko Roribia Echavarria zena. Asko liburutan sozialismo liberal bat aurkeztu du, marx-keriarik gabekoa, osoki bakeari emana, girixtino izaitea merezi zukeena.

Aita Gregorio de Jurre-ren "filosofia soziala" ere aipatzekoa da, Totalitarisme et égalâtrie haren liburu ederrarekin batean: duela hameka urte azken lan horrek bazterrak inarrosi zituen.

Ez ditugu marxistak berriz gogoraziko: aski-badugu hetaz erranik materialisten kapituluan.

Bainan Ameriketako soziologo euskaldunetan haizu bekit zonbait izenen berextea:

—*pedagogiari buruz*: Jose Benjamin Zubiar; Luis Tirapegui; Jose Maria Izaguirre; José Antonio Zuleta; Enrique Cesar Urien; Luis Galdames.

—*sozial osakintzari buruz*: Lucas Ayarragaray;

Soziologia jeneralari buruz: Carlos Echenique; Vial Guzman.

Gerla behar ote diogu gizarteari eratziki? Ameriketean euskal odoleko jeneral hainitzek idatzi dute berek "arte" deitzen duten gauza izigarri hortaz. Gudu-erakasle horietatik ezagunenak dira: Manillen, Orozko Zuñaga; Argentina, Toribio Luzuriaga, Theophile Iriarte, bai eta Garmendia; Ekuadorean, Franco Salazar; Kuban, Ichaso Macias; Perun, Zuleta Celso. Heien gudu-molde gehienak Europako eskoletari bilduak dira, bereziki Alemanetarik, nahiz U. S. A.-ko zombait ere hartu dituzten. Hemen gandi ez dugu ezagutzen liburuxka bat baizik iraultzari buruz egina, Mao-Tse-Tung eta Trinquier-en ideien araberrakoa" Frantzian gobernuak debekatua da.

KONDAIRA

Euskaldun eskolatuek biziki laket dute ixtoria, eta astia dute-larik gogotik idazten dute.

1890-etik 1960-erat gure fitxetan altxatu ditugu Ameriketean berrogei edeslari euskaldun. Adibidez:

Carlos Gayarrek frantsesez eta anglesez Louisiane herrialdearen ixtorioa kondatu du;

Jose Eyzaguirrek espāñolez eta frantsesez Xileko elizarena;

Alejandro Larrainek kristautasun osoarena;

Adolfo Saldiak espāñolez eta frantsesez bere aurkintzarena;

Joakin Arciniegaz-ek Amerika latinaren arimarena, hogei tometan.

Gure zazpi Euskal-herrietan, tokian tokiko edestiari eman zaizko elementia bat idazle:

Hastapen aldietako berri eman daukute Arantzadi, Eguren, J. M. Barandiaran, Elozegi, Laplace-Jauretche bezalako ikertzailek;

Geroztikako kondairan ari izan zaizkigu Campion, Altadill, Carmelo Echegaray, Iturralde y Suit, Jaurgain, Daranatz, Haristoy, Duvoisin, Iturbide, Iribarren, Michel Etcheverry eta bertze asko. Egungo egunean nola ez aipa Justo Garate, Fausto Arozena, Manuel Lecuona, Ildefonso Gurruchaga, Arteche, Lacarra, Goyhenche, Idoate, Urrutibehety, Moreau, Claveria, Tellechea, Estornes Lasa, Arbeloa, Uranzu, Gereño, eta bertze zombait ez?

Bainan gutik, Garcia Morente nafartarrak bezala, azaldu daukute ixtorioaren egitura edo "estruktura".

Kondairaren filosofiaz ez dugu aztarnarik aurkitu Pierre Narbaitz kalonjearen lan batean baizik: Toymbee-ren ikuspenak eratziki diozka Euskal-herriari: eragozen handiek biziarratzen omen dituzte populuak; zertako? Hil-zorian gertatzen direlarik, olde gai-

tzean inardokitzen dutelako eta atzartze horrek iraupen berri bat emaiten deielakotz. Narbaitz-ek Euskaldunak ikusten ditu menderen mende beti gal-orduan, beti hil-etsian, beti leize-hegian, baina ez behin ere erortzen, azkenkenkan suntsi-bidetik nolazpait mirakuluz bezala ateratzen direlarik. Iduri zaio egungo egunean ere kordoka gabiltzala, baina etsipenezko oldar batek bizi berri bat emaiten ahal daukula. Zertako ez, Jainkoak nahi badu?

EDERKINTZA

Ez-jakin zozo batzuek, Euskaldunen amaiak ez lezokela munduari kalterik ekar, erranen dautzuetan, heien arabera jende basa atzeratu baizik ez girelakoan gure mintzaira traketsarekin. Ez bide dakite zer joia aberatsa den eskuara eta ez dira ohartu gure kultura ez dela hain erdaintzekoa, ez balitz ere edertiaren konduan baizik.

Ez gira bakarrik mintzo herri-etxegintzaz, herri-apaingintzaz, herri-musikaz, herri-dantzaz, herri-literaturaz, nahiz baduten asko goresle eta ikerle munduan gairi.

Bainan folklore horren inguruan eta haratxago nola ez gogora gure ederti landua?

Oñatibiak bere 7.000 euskaldun artixten hiztegia aterako duen artean, bada nun zer ikas bertze asko liburutan.

Margolaritzari buruz hor ditugu argitzale Gorostiza, Kaperotxi-pi, Luis Madariaga.

Etxegintzari buruz, Gallastegui, Yrazar, Oteiza.

Musikari buruz, Aita Donostia, Fagoaga, Aita Emilio Barandiaran; baina Amerikan ere aurki ditazkete musikologoak: adibidez, Mexikon, Elizaga; Uruguaien, Saralegui; Argentinan, Menchaca.

Ederti guziari buruz, ditzagun aipa: Perun, Berrozabal; Xilen, Urmeneta; Mexikon, Basabe; hiruak (egia erran) ixtoriazale eta konparatistak, Fechner eta Helmholtz-en eskolakoak.

Bainan izan ote dugu edertiaren filosofiari emanak?

Biga segurik bai: Oteiza eta Muniain.

Oteiza-ren arabera, herri baten edertiak salatzen du herritarren arima. *Quousque tandem* liburuan erakutsi nahi du Euskaldunak jitez eta eitez ez girela ez harro, ez handikari, ez mihi-luze, baina zuhur eta xuhar, erraile baino adi-erazleago, iduri-eta gure leloa den latinezko "intelligenti pauca" eta gure ingurumeneko jende guziak argi eta erne dauzkagula.

Sanchez de Muniain erronkariarrak hamabortz bat liburu ida-

tzi ditu ederkintzaz. Bertzeak bertze, bilatu du zerk ederresten dauzkigun herri-bazterrak: nola itsuel asmatzen duten edertasuna; zer-ikusia duen hizkuntzak edertiarekin; zertan datzan gozamen estetikoak; ea mistikak badaukan harekilakorik; nun den gutarik kanpo ederraren funtsa... Gai horiek baizik ez balitu ere erabili, Sanchez Muniain aparteko ederti-zaletzat behar ginuke estimatu.

ERLISIONE SOLAS

Ohartu zirezte Muniainek zerbait lokia atxemaiten ziola erlisioneri edertiarekin. Zer nahi den, ahaide ez badira, auzo diren ber, ederkintzaz mintzatu ondoan, mintza gaiten erlisioneaz.

Frantzian "catholique et français" erraiten eta kantatzen zuten bezala, guk ere "eskualdun-fededun" errepikatu dugu askotan dei eta hel-buru gisa. Ez ginuen den gutienik adi-arazi nahi fedea odolari edo mintzaiari lotua zitzaizela, bat egiterainokoa.

Jakina: euskaldunak baziren kristautasuna hunara gabe; eta geroztik ere, luzaz, kristauen auzotegian euskaldun jentilak bizi izan dira. Egia erraiteko, ez da sekulan jentil eskasik izan euskal-herrietan, nahiz gehientsuak ixil-ixilak zauden elepiderik ez emaiteko.

Azken mende huntan idazle euskaldun zonbaitek lañoki aitortzen dute beren fede eskasa. Jadanik hori hauteman dugu filosofiak aipapztean.

Kuban, Antonio Iraizoz "hargin beltzen" nausi handia izan zen, Elizaren etsai amorratua eta Juakin Aranburu batasun bereko idazlari suharra; hala-hala Parisen Bidegain laputzara Framazonen segretario lehena egona zen, esta liburu batean kondatu zuen nola okasturik utzi zuen batasun hori.

Mexikon, Zavala delako batek espiritista-erakasperak luz hedatu ditu espānoles.

Hemen berean, Donostian, protestantek ideki dute euskal-eliza bat, Juan-Maria de Olaizola dutelarik eskual-liturgista.

Krutwig euskalzainak poema hinduista bat ontu zituen beihala, ez baitakigu zinez ala fantesiak ari izen den.

Katolikoe artean egin diren erlisione-liburuak izan dira konda-ahala, bai latinez, bai erdaraz, bai euskaraz.

Behar dugu aitortu lan horietan ez dela nortasun handirik ikusten: Elizaren erakaspen arrunta ageri da, bertzerik ez. Eskuaraz bereziki, liburu arrotzetarik mailegatu eta itzuli gaiak nabarmen dira. Zorigaitzez, edo dira irakur-errexak eta orduan ardurenik idor, zail, astrakto, trakets, ezin irakurrizkoak.

Liturgian egin da segur indar ederrik, eta eskerrak zor dioz-kategu lan horren egileri. Haatik apezek badukete buru-hauste frango, Liburu sainduen pasarteak nahi badituzte fededunentzat behar bezala argitu.

Mistikaz gauza guti gure literaturan. Orixek miatu du gai hori erdarazko idazkietan eta euskaraz egin bilduma bat bere gisakoa, *Jainkoaren billa*. Sarri Juan Maria Lecuonak sakonki aipatuko dautzue. Haatik berezioagoa daukat Sorazu-ren obra, erdaraz izana gatik, zeren den bere baitarikakoa. Haren berri eman dauku aita Villasantek bai erdaraz, bai euskaraz, eta haren idazkiak ager-ara-zi ditu.

Ez jakin haatik zonbat irakurle murgilduko den mistika ho-rietan.

MINTZAIRE ETA LITERATURA

Euskara eta euskal literatura alde batetik, Euskaldunak arrotz literaturetan bertze aldetik aipatzekotz behar ginituzke hiruzpalau hitzaldi.

Euskalaritza behar ginuke ikertu, lehenik Francisque Michel, Antoine d'Abbadie, Louis-Lucien Bonaparte-en inguruan; gero Champion, Manterola, Azkue, Arana, Hiriart-Urruty-ren inguruan; gero Urquijo eta Ariztimuño-ren inguruan; hamar jaun horiek ez badira ere bakotxa exkola baten buru izan, langile askoren argi eta biltoki izan baitira.

Ikusteko ginituzke garbizaleen entseguak bai eta herrikoia-goenak.

Ikusteko, Euskaltzaindian izan diren gora-beherak euskararen batasunari buruz.

Ikusteko, nola euskalaritza kutsatu duten, bakotxak bere al-dian, logikoez, formalistek, neo-gramatikatzalek, siko-mekanistek, estructuralistek.

Erakutsi behar ginuke nola aurreratu diren gure euskal-iztu-dioak tresna berri askori esker (hiztegi, enziklopedi, euskal-litera-tur-ixtorio, aldizkari, editorial berri, eta abar).

Onorioak nabarmen dira. Ikus, adibidez, Juan San Martinen lana: "*Escritores euskéricos, catalogo bio-bibliografico de mas de 400 escritores contemporaneos en Vasconce*". Ikus bertzalde Man-terola editorialak agertu "Catalogo general de obras referentes al Pais Vasco", bere 1.800 tituluekin.

Bainan gure herrietarik kanpo filologo eta literatura-kritikari euskaldunak ez zaizku faltatzen. Ba ahal dakizue Mexikon Zabala

kalonjeak *Hiztegi Maya* bat moldatu zuela eta liburu bat ager-ara-zi frantsesez: *Le Dieu de Victor Hugo?* Hiri hortan berean Arango hebreo-zale bikaintzat famatu da. Xileko Santiagon linguista batzu ere baditugu: Oroz, Ortuzar, Charo. Kritikari buruz, nork ez du erdi-ugar-tean Jose-Maria Salaverria ezagutzen? Lapurdin Belokeko J. P. Inda abade ohiak omen handia du Francis Jammes egin di-tuen lanen gatik eta Pierre Espil hazpandarrak ere ospe zerbait bildu du literatura ikerle gisa. Bainan Hego-Amerikan 28 kritika-lari ezarri ditugu gure fitxetan. Ezagutuenak dira: Mexikon, Fran-cisco Ikaza; Kolombian, Florentino Goenaga; Xilen, Hermogenes Irisarri; Ekuadorean, Gonzalo Zaldumbide; Kuban, Antonio Zem-brana; Uruguaien, Antonio Zubillaga.

* * *

Literaturan berean sartzeko, behako laster bat botako dugu entsegu, antzerki, ele-berri eta olerki eremuetan.

● Euskarazko entsegu egile guti. Aipa detzazkegu halere Etchepare medikua, Jon Echaide, Luis Michelena, Etienne Salabe-rry, Txillardeggi, Inurritza, Villasante, Azurmendi, Aita Zabala, Ai-ta Inchausti, eta Kardaberaz, *Jakin, Ipar, Etor, Gero, Auñamendi* edo *Itxaropena* bildumak hazten dituzten hainbertze idazle! Ez gi-nituzke ahantzi nahi gure Amerikanoak: adibidez, J. B. Alberdi, italiano-z izkiri-atzen duen Manuel Iturriaga, españolez eta frantse-sez ari diren Orozko Muñoz eta Adolfo Ortuzar; aipa ahal ginezaz-ke andere batzu ere, hala nola Lucrecia Undurraga eta Carmela Eulabe.

● Laurogei urterik barne eskuarazko teatroak atera ditu 540 bat antzerki, hetan konda baititazke hogeit bat opera. Ikus Laba-yen jaunaren *Teatro euskaro*. Antzerki hoietarik askok indar guti dute: alabainan luzaz ahamen ttipiko aditzaleak izaki! Bainan, egia egitari zor, urratz handiak egin dira aintzina, Labayen, Mon-zon, Larzabal, Zubicaray, Aresti eta traka hortako jauneri eskerrak, nahiz zonbait lasterregi abiatu diren, Camus-en "Les Justes" beza-lako berrikeriak euskaraz emanez.

Bertze mintzairez, aurkitzen dugu Unamuno-ren izen handia. Bainan eratxik detzozkegu hogoi bat antzerkari euskal-amerikano. Adibidez, Argentinan Juan Pablo Echagüe, haren obra frantseserat itzulia baita; Carlos Goicoechea, Juan Antonio Saldiras, Real de Azua jostakina; Mexikon, Elizondo (Pepe Nava, izengoitiz), angle-sez eta españolez 40 komedia segkurik moldatu dituena; Villa Urru-tia, teatrolari eta zinalaria; Xilen, Urzua, Ureta, Arostéguy; Boli-

bian, Nathanael Aguirre famatua; Uruguaien, J. L. Bengoa; Kuban, Heredia, Ugarte, Zamacola, Jose Aguirre Acha; eta bertze nunbait Hego-Amerikan Victor Ruiz Añibarro, "teatro vasco" bat izkiriatu duena españolez, euskaraz itzultzekotan.

● Euskarazko ele-berria nekez abiatu zen Piarres Adame eta Athekak liburuxkekin hemeretzigarren mendean: ipui batzu baik ez ziren. Domingo Aguirren *Garoa* eta *Kresala* xutik daude, nahiz ele-berriak egin duen bide 1912-tik hunat. Opa ginezake maisu xaharra bainogoak balira geroztikako idazlariak: pondu batzuetan gainditu dute Anabitarte, Erkiaga, Echaide, Pellen, eta Bertze batzuek. Bizkitartean ez zaiku iduri Txillardegi bera ere bete-beterat heldua den. Halere zuzengabeki arbuia litazke Barbier, Irazusta, Eizaguirre, Gereño, Mirande, Zarate eta holakoak.

Españolez Campion, Pio Baroja, Unamuno, Zuntzunegi-en ele-berriak gain-gainekoak dira: bainan irakurtzekoak daude frantsesez Lhande, Apestéguy eta Espilenak. Amerikanoetan nola ez goretz: Kuban, Zendegi, Roig Salazar, Zembrana; Buenos-Airesen, P. Echagüe, M. Aldao, Ant. Saldias; Mexikon, Fr. Gamboa; Bolibian, Adela Zamurdio anderea; Xilen, Zañartu, X. de Viana, Leonor Urzua anderea, Juana Gorriti anderea. Nafarroan aipa ginezake Mariano Estornés Lasa.

● Olerkia, edo bederen bertsoa, beti danik estimatua izan da Euskaldunen artean. Hor dira lekuko milaka Manterolak, Azkuek, Donostiak, Zabalak eta bertze bilketari batzuek argitaratu kantuak. Lekuko bertzalde Santi Onaindiak bere loretegian ezarri dituen 1013 olerkiak eta aipatu 280 olerkariak. Berriki arte teknika xaharrari atxikiak ziren olerkari eskolatuak ere eta erromantiko kutsuak jotzen zituen gehienak. Egungo egunean, gai ala molde, oro berritu dira olerki lantuetan. *Olerki* agerkaria irakurtzen duenak edo so bat egiten Oxobi, Iratzeder, Lizardi, Lauetxeta, Jauregi, Zaitegi, Aresti, Amilaitz, Lete, Mirande, Erkiaga eta bertze batzuen bertsueri, ezin uka dezake aldakuntza. Denak ez badira ere "surrealismoari" bat-miñot lotuak, aspaldiko modatik arras urrun daude.

Erdal-mintzaietan ere Euskaldun zombait olerkari izan dira. Frantsesez bota ditzagun hiru izen: P. Lhande, P. d'Arcangue, P. Espil. Españolez literatura esku-liburue tan berrogei-ta-hamarrez goiti aipatzen dauzkute. Hurbil-hurbila, orok ezagutzen ditugu: Unamuno, Bazterra, Pio Baroja, Rafael Sanchez Mazaz, Juan Larrea, Celhaya bederen. Itsasoz haraindian gure Euskaldunek olerki mota zer nahi erabili dute: liriko, epiko, politiko, jainkozko, sendimendutsu, kitzikatsu, lizun, filosofiazko, simbolista. XIX-garren mende azkenean izen famatuenak ziren: Errazuria, Arango, Alza-

buru, Carlos Augusto Salaverri. XX-garren mendekoetan, ditzagun aipa: Arrieta, haren obrak frantsesez itzuliak izan baitira; Raoul de Azua, asko mintzaireretan idatzi duena; Urdaneta, Venezuelako president baten semea; Mendilaharsu lapurtarra; Esteban Echeverria, Xileko "klasiko berria"; Pablo Garriga, gure laguntzale baten ahaidea. Bainan nola ez aitortu andere olerkariak arrakesta gehiago ukan dutela irakurleen artean, hala nola Juan Ibarburu zena, eta bereziki Gabriela Mistral (Nobel saria, 1945), egiazko izenez Alcayaga, askotan berak goretzi baitzuen zainetan zaukan euskal-odola!

JAKITATEZ-JAKITATE

Bi hitz jakitatezko idazle euskaldunetz. Gai huni buruz gure inkesta arras laburra izan da.

Euskaraz, pentsu duzuen bezala, haurrentzat eskola-liburu xume batzuek bertzerik ez da sortu; eta jende xehearentzat hedamenezko liburu errex arin zombait, zuhaitzez, zoriez, haurren artatzeaz eta holako.

Euskaldun jakintsunek beti erdaraz idatzi dituzte beren lan sakonak.

Huna zombait izen lasterka:

—Matematikazalean: Jose Vergara, Iturriaga, Garaicoechea.

—Fisikazalean: Loyarte, Biscar.

—Kimikazalean: Ugarte.

—Mineralogistetan: Larrain, Larrea, Urriarte, Ospina, Aguirre.

—Hidrografizalean: Jose Luyando, Luis Uribe Orrego: azken hau Xileko itsas-ministro ezarri zuten.

—Naturalistetan: Jose Arechavaleta, Manuel Iturriaga, Claude Dendaletche.

—Tele-bidetan: Echaide, Vergara Robles.

Medikuntzak menta gaitza izan du Euskal-herrian. Irakur R. I. E. V. aldizkarian (1929) Justo Garate-n lan ederra gai hortaz. Behar litazke miatu bertzalde osakin-bibliografiak.

Anartean, jasta bezala, izen da ditzagun:

—Osasunlarietan: Ugarte Gutierrez;

—Buru-min artatzaletan: Julian Ajuriaguerra;

—Fronologoean: Bernard Etchepe.

—Begi-artatzaletan: Salterain;

—Ebaketari-maisuetan: Julio Etchepare;

—Zain-xuri artatzaletan: Michel Bergouignan;

—Tanatologuetan: Fermin Irigaray (Larreko);

—Guzitarako medikuntza-maisuetan: Abel Ayerza, Jose Ochoa, Julio Iribarne.

Izenda ditzagun azkenean bi idazle harrigarri: Mariano Etche-
garay-ek bere osakin-jakitarea bildu du 20 tomotan eta frantsesez
itzuli dute haren obra guzia: Arroz Alfarok aldiz Argentinan bere
erakaspena 120 liburutan ager-arazi du.

Hortan geldo gaiten: xifre horrek badu burzoratzekoa.

* * *

Elgarrekin orentto batez egin dugun itzuliak bide bakar batzu
urratu dituzke, bertze bilari eta ikertzale zombaitentzat.

Hauieri eskubide osoa uzten diotet, ene iritzien ez on-hartze-
ko: badakit engana naitekela.

Ene ametsa litake, doi-doia hasia dudana bertze norbaitzuk
jakitate gehiagorekin burura dezaten eta alegerakiago ezagut-araz.

* * *

Apezkide jaunak, Don Juan Maria Lecuonak egin dautan gal-
deari erantzun diot euskaldun pentsalari zombaitzu aipatuz. Bainan
badut beldurra zuen barneko xedeak ez ditudan osoki bete.

Hunat bildu zirezte —irakurri dudana deiak dionez— bilatzeko
nola fedeak bere tokia aurki dezaken gure aroko eta ingurumeneko
gogo-bihotzetan.

Oixtion erranetarik ezagun bide da pentsalari euskaldunek ez
dutela elgarren arteko batasun handirik, salbu menturaz pondu
batean: bana-bertze metafisikarat eta mistikarat ez baitira biziki
ekarriak, ez izanik ere arras hetsiak. Munduko edozoin kulturak
kutsatzen ditu. Nola duzue bada eman dezaguten gure auzoko he-
rritarren itxura egiazkorik?

Gure parroketan, bertzenaz ere, zoin desberdin elgarretarik
bai nekazariak, bai arrantzaleak, bai fabriketako langileak, bai
nausiak, bai bere gain ari diren ofiziale xumeak, bai burges ttipi
ala handiak!

Fedearen auzian, uste dut, oro har, pentsalarien berri jakiteak
garrantzia gutiago duela, geinertikoen ezagutzeak baino, nahiz Je-
susen hitza hor dugun gidari: *opportet ista facere et illa non om-
mittere*.

Bertzerik ez!

Donostian emana (21-III-73).

ITURBURU ZONBAIT

Panorama des idées contemporaines, Gallimard, Paris, 1957.

La philosophie contemporaine en Europe, de Bochenski, Payot, Paris, 1962.

Les thèmes actuels de la philosophie, de Brehier, Paris, 1954.

Historia de la literatura vasca, por Luis Michelena, Madrid, 1960.

Historia de la literatura vasca, por Luis Michelena, Bilbao, 1961.

Le basque et la littérature d'expression basque, de Pierre Lafitte, Bayonne, 1941.

Historia de la literatura española, por Angel Valbuena Prat, Barcelona, 1953.

Histoire illustrée de la littérature espagnole, par R. Larrieu et R. Thomas,
Paris, 1952.

Panorama de la littérature contemporaine aux Etats-Unis, par John Brown, Pa-
ris, 1954.

Panorama littéraire des Etats-Unis de 1890 à nos jours, par Alfred Cazin, Pa-
ris, 1952.

La littérature portugaise, par Georges Le Gentil, Paris, 1951.

Les écrivains contemporains de l'Amérique espagnole, par Francisco Contreras,
Paris, 1920.

Histoire de la littérature américaine de langue espagnole, par Robert Bazin,
Paris, 1953.

Historia de la poesía hispano-americana, por Menéndez Pelayo, Madrid, 1948
(lehen edizioa 1893).

Nueva historia de la literatura americana, por L. Alberto Sánchez, Asunción
del Paraguay, 1950.

Proceso y contenido de la novela hispanoamericana, por L. A. Sánchez, Ma-
drid, 1953.

La gran literatura iberoamericana, por Arturo Torres-Rioseco, Buenos-Aires,
1945.

Escritores Vascos-Americanos, Boletín del Instituto Americano de Estudios Vas-
cos, Nos. 48, 49, 50, 51, 52, 53.

Vascos en Cuba, por Jon de Bilbao, "Ekin", Buenos Aires.

Los Vascos en el Uruguay, por Tomas de Otaegi, "Ekin".

Gentes vascas en América, por Mariano Estornés Lasa, San Sebastián, 1961.

Milla euskal-olerki eder, S. Onaindiak bildurik, Amorebieta, 1954 (280 olerkari
aipatuak).

Teatro euskaro, por Antonio María Labayen, 2 vol. San Sebastián, 1961 (167
antzerki-egile aipatuak).

Cien autores vascos, por N. de Cortázar, San Sebastián, 1966.

Escritores euskéricos, catálogo bio-bibliográfico de más de 400 escritores con-
temporáneos en Vasconia, por Juan San Martín, Bilbao, 1968.

"*Auspota*", herri-literaturazko bilduma handia, aita Antonio Zabalak kudeatua
(ehun liburuz goiti).

Catálogo general de obras referentes al País Vasco, por la librería Manterola,
San Sebastián, 1973 (1.800 titulu).

EUSKALERRIKO LEEN-GIZAKIEN SIÑISTEAK

Euskalerrria, ibillaldi luzean, zear, eldu zaigu gaurko izaera eta egokera ontara.

Ibillaldi ortan eginiko urrats batzuek ezagutzen ditugu, gandu artean bederen. Edesti edo idaztaroz aurreko direnak ordea orieta-rik asko. Auezaz mintza naia dut gaur emen. Bainan ez urrats auen alde guztiei begira, ikusgune bati baino: erlijio-alderdiari alegia.

Ezin ordea alderdi ori nola den igerri, beste ikusguneai ere begite-lege bat bederen egin gabe. Gizarte batean uztarturik da-biltzan gaietarik bakoitzak ez du mintzorik besteengandik arat al-dentzen ba-dugu.

LEEN URRATSA

Euskal-lurralde ontan bazebillen gizakia, orain dela 50.000 ur-te. Berazak dakizkigu berri auk:

- 1) *Homo primigenius* izeneko gizakien azkazikoa zela;
- 2) Garai artan, lenegotik, giro aski biguna zuela; gero berriz oso otza, *Würm* izeneko izoztea, alegia.
- 3) Ba-zitueta bizilekuak Zubero'ko *Gatxarria'n*, Benabarre-ko *Isturitz* arpean, Ganbo'ko *Olha'n*, Arrasate'ko *Lezetxiki'n*, eta *Axlor'ko* arpean.
- 4) Arrian —suarri eta arbelgogorrean— bere eskuz landuta-ko lanabes eta izkilluak zerabiltzala.
- 5) Sua ba-zuela eta bere bizilekuetan sutokiak ere ba-zitueta.
- 6) Iizien okela edo aragia zuela jaki: bisonte, errinokeros edo adarbakarra, arrangifera, oreina basakerra, auntza, zaldia eta beste orelako iiziena.
- 7) Eizetik azkurri ori zekarrela, uxa-eiza eginaz batez ere.
- 8) Eiztari-elkargoak ba-zitueta.
- 9) Bere ildakoak arpeetan, batzuek bederen, jartzen zitueta,

dirudienez: Lezetxiki'ko eta Axlor'ko giza-aginak ori adierazten, nere ustez.

Orain galde bat buruan sortzen zaigu: gizaki arek utzi zizki-gun tresnen artean ba-ote dire emengo bizi-asmoari eta antze-iakin-zari eragiten dion gogoetaren adierazgarririk?

Axlor'ko, Lezetxiki'ko, Olha'ko, etab. gizakiak mundu eta mundukoan gaineko bati begira —Jainkoari begira— bere jokaera eragiten ote zuen?

Ez da errez galde orri erantzuten. Arrizko tresnak, alde eta esan-nai askotarikoak dire berenez; gogoetak eta asmoak berriz ez dute, arriak bezela astunki irauten, ez dire, ezurak bezala, arri-biurtzen ere eta ez irauten.

Bainan lurgorri-koskoak (Axlor'en eta Lezetxiki'n), zenbait bitxi, hots, Lezetxiki'ko berunmeak, eta an bertako eta Axlor'ko arrilorak (suarrizkoak), antze-iakintzari eta emengo biziasmoari eragiten dion buruzpide bat adierazten digute bear-bada, erligiozko zuraje bat ba-zutela ordukoak ere, alegia. Agian obeto adierazten digute au bera, aldi artan Euskalerritik urbil —Dordoña'n— be-girunez ehortzi zituzten lagunak eta beren kutun, babesgarri eta opariak.

BIGARREN URRATSA

Euskalerrriaren beste urrats aundia —bigarren urratsa— *Goien-paleolitos aroa* da: Kristo baino 35.000 urtez aurretik asi eta *Würm* izoztearen azkenalderaino.

1) Garai ortan *Homo sapiens sapiens* edo Cro Magnon izeneko giza-enda omen.

2) Giro otza zuen benetan lurralde ontan.

3) Bere babesleku eta bizilekuak arpeetan: Santimamiñen, Lu-mentxa'n, Bolikoba'n, Arenaza'n, Atxeta'n, Ermittia'n, Urtiaga'n, Ekain'en, Altxerri'n, Aizpitarte'n, Isturritz'en, etab.

4) Arrian —suarrizko igekietan, batez ere— bere eskuz lan-durik, lanabes eta izkilluak egiten zituan eta gero erabiltzen; leen baino obeki landuak ordea et mota askotakoak. Ezurrez eta adarrez egindakoak ere asko zerabiltzan.

5) Uxa-eiza geientsu onek ere, dirudienez: leengo iizi-motak zebiltzan geien orain ere.

6) Uxa-eizari zegokionez, eiztariak elkartean zebiltzan.

7) Sua lagun zuen: bizitokian, berogarritzat, janariak egosteko eta pixti gaiztoak uxatzeko.

8) Bere lanabes asko marrezturaz edertze zituen; baita beste artxabal eta ezurak ere (lanabes etziranak).

9) Marrezturaz eta margoz eginiko idurik arpe batzuetako labarriak apaintzen zituen: iizien iduriz batez ere.

Beraz eiza, eskulanak, ertigintza ziren ordukoen bizibideak.

Orain ere galde au: aro artan Euskalerrian zebillen gizakiak ba-ote zuen erlijiorik?

Ba-zerabilzkien orduan ere lurgorri-koskoak eta arrilorak, baita aginzulatuak, maskor eta ezur koskadunak ere; illak berriz artaz ehortzen zituen, toki batzuetan beñepein. Ez dirudi gauza eta egingtza auek janbearrez eta atsegin-minez sortuak direnik, antze-iakintzari eragiten dion gogoetaz eta gurariz baiño.

Ainbat gogorkiango aitortu bear ori bera, arrietan eta ezurrezko lanabese tan eginiko iizien iduri eta beste ezagungarri marreztuak buruz: orduko burzpideen ezagungarri eta irudikurak ziren noski.

Berdin uste bear arpeetako labarrietan ageri diran iizi-iduriezaz ere. Lengo aroeta etziran ezagugarriak auek, Auriñak-aldiatik Madelein-aldi arte, ogei ta geiago milla urtetan iraun zuen oikundea beraz. Ezazungarri eta irudiak —iizien iduriak: zaldi, bei, orein, arrangiferra, basauntz, auntzak, etab.—, lanabesetan eta esku-gauzetan ez ezik, arpe-labarrietan eginak, eta ez nola-nai: arretaz eta buruzpidez eraeunduak. Oraingo Euskalerrri txiki ontan ba-dire orrelako iduri-sailak amaika arpe edo leizeetan: Laperra, Arenaza, Santimamiñe, Goikolau, Ekain, Altxerri, Alkerdi, Isturitz, Harixtoi, Sasixiloaga eta Etxeberri'n. Orduko buruzpideen eta asmoen ezagungarri eta irudikurak direnik ezin uka.

Zer adierazi nai digute ikur oriek? Jainko edo jainkozko izakien ezagungarriak ote? Eta izaki orien eginbideak zer? Agian otoitzak? Zer otoitz? Ez da errez jakiten. Bainan gogoeta bat bederen sorrerazten dute gure buruan: sekulako illunpean, toki ezkutueta eta bazter ibilkaitzetan eginiko iduriak ez direla lagunak ikusgarritzat bakarrik asmatuak: guri eragiten digun zerbaiten edo norbaiten ezagugarritzat eginak noski. Aterbe eta kokaleku auek dira, dirudienez, gure leen-elizañoak.

Gai ontan aintzat artzeko gauza degu auxe: euskal-esaunda askotan oso aipatuak dira arpeetan bizi omen direlazko irelu edo jainkoizunak; zaldi, zezen, auntz eta beste iizi batzuen idurian agertze direla esan oi da. Beraz Goi-paleolitos-aroko lagunak arpe edo leizeetan ikusten eta marrezten zituzten iduri berak, gaurko euskaldunak ere ikusten dituzte.

IRUGARREN URRATSA

Euskalerrriaren beste urratsa —irugarrena— *Megalitos-arokoa* da. *Megalitos* deriotzagu, arriaundiekin eginiko illobiak, orain dela 5.000 urtez gero eraikitakoak.

Leendik aldaketa aski sakona egina zen emen: Würm izoztea izan zen, azkena jozuen; giro bigunagoa sortu zen; leen bizitzeko on etziren lurraldeak orain egoki ziren eta gizakiak toki orietan bizi al zitezkean, baita beren aterbeak arpeetatik arat eraiki ere; lenengo iizi batzuek emendik aldegin zuten, beste batzuek berriz ugaldtu; larreaki azi eta mendi gainetan eda; baartzakiak eta zuaitzak azkurria ugaritu. Bizibide berriak beraz.

Giza-enda bera ere aldatu zan: leen Cro Magnon azkazia; beregandik orain euskal-enda Pirene inguruan sortu zen.

Garai artan gure aurrekoak, emen zebiltzan basa-bei, basa-beor eta auntzaki ezi zituzten; ala beti jakia eskuan izanen baitzuten. Ortarako ordea beren abereekin lekuz maiz aldatu bear, beti larre eske: udan goietan; neguan beeretan.

Udako sarrietan ba-zituzten beren aterpeak, baita illarriak ere-trikuarri edo dolmenak, alegia; negu soroetan, berdin.

Erriberaetan eta zenbait lur marduletan, lurlantzean ere asi ziren: nekazaritzaren asiera.

Aldi artako aterbe-toki edo oroietarik gutxi dire ezagun: Albaina'ko *Charratu'n*, Aizkorri'ko *Elola'n*, Laguardia'ko *Los Molinos* izeneko tokietan eta beste bizpairutan. Bainan orduko illarri asko non diren ba-dakigu. Badire 400 baino geiago trikuarri Euskalerrriaren ikusiak. Illarri orietan ipintzen zituzten beren illak orduko lagunak.

Trikuarri edo illobiaren luzearoa sortaldetik sartalderuntz, Eguzkiaren lerroan, doa, eta illen soinak lerro berean: buruak sartaldean, oinak sartaldean. Zuzenbide au Eguzkiaren gurtzeari datorkio eta oni begira asmatua dirudi.

Illen soinak izkilluen eta kutunen bidez babestuak jartzen zituzten obietan: geziak, labanak, aizkorak eta eztenak; baita arri-lorak, lurgorri-koskoak, arbillzulatuak, artzen, zaldien eta basurden agin zultuak, artxabalezko, azabatxezko, alabastrozko eta ezurrezko zintzilikaik etab.

Emakume-iduriak, ezurrez eginak, zeuden Samartin'go trikuarriaren ildakoen ondoan ezarriak: ireluen edo jainkoizunen iduriak bear-bada. Oikunde oriekin doa trikuarrien sartaldean —ate-aurrean, alegia— suak piztea eta lurrontzietan opariak ipintzea. Tri-

kuarri arta ba-ziren iru artzabal, buru bat biribildua, geroztiko illarri biribillen antzekoak, ustez eta ildakoen argi-iduriak.

Ori guztia ez da emengo bizibide soilak bearturik zerabilkien gogoeta, il ondorengo beste bizitza batez zerabilkiena baizik: azkurr-i-bilketari eta antze-iakintzari eragiten dion norbaitengan siñistea eta itxarotea, alegia. Gogoeta ori ageri da orduko erlijioaren eta gizabidearen oiñarri bide.

Zeatzki auxe esan gentzake gai ontaz: Paleolitos-garaitik zertorzkien siñeste eta oikunde batzuez gainera. Eguzkia eta sua gurtzen zituztela; baita muno batzuen eta zenbait zuaitzen ireluak ere eta ildakoen argiak. Ara or aldi artako erlijio-ikusgune batzuek.

Bizibideen eta antze-iakintzen aldaketen eta elkarte-berritzearen arabera aldatu ziren erlijio eta gizabidearen adierazgarri eta idurikuarrak, orduan beti bezala.

LAUGARREN URRATSA

Euskalerrriaren beste urrats aundia —laugarrena— erromatarren aldikoa.

Aldi ortan euskaldun geienak, leengo eran, abelzaintzatik bizi ziren. Bainan nekaritza, leengo aldietan asia, edatzen zijoan, batez ere erriberaetan. Gainera zenbait lekutan meatzaritza, olagintza, eiza, arrantza eta eskulangintza.

Larreak, lurrak, oianak, mendiak, iturriak, erreka^k eta itxaso^a eta iiziak; goian Eguzkia Illargia, odeiak eta aizeak. Ori zan garai artakoen mundua. Eta gauza oiek, oraindik gutxi ezagunak eta garaitu gabeak, bainan bearrekoak, ireluz albizituak zeudela uste, jainkozkoak zirela alegia. Orien izenak jainkozko izakiak adierazteko erabiltzen zituzten beintzat. Orregaitik, tokiak, mendiak, iturriak eta zenbait abere jainkotzat zeduzkaten eta ala jauresten.

Ara emen, adibidez, irelu edo jainkoizun batzuen izenak: *Tulonio* (Arabako Alegria'koa), *Ubarna* (Kabriana'koa), *Sandao*... *vimburo* (Arzeniega'koa), *Baelisto* (Angostina'koa), *Useae* (Laguardia'koa), *Selatse* (Barbarin'goa), *Loxa* (Argiñariz'koa), *Losa* (Lerate'koa), *Lacubegi* (Uxue'koa), *Ulbelteso* (Oyarzun'goa), *Herauscoritsehe* (Santa-Madalen, Atarratze'aldekoa), *Ninfae* (Iturtxaran-Araya'koa), *Loci* "tokiak" (Kabriana'koa), etab.

Orain esan degun onek adierazten digu auxe: aldi artako gure aurrekoen ikusbiran geien ageri ziren puskak irelu edo jainkozko zerbait zirela euskaldunen ustez. Irelukeria non-nai, politeokeria.

Ireluen adierazgarritzat egindako abel-iduriak bear-bada zenbait aldareeta ilarrietan ageri diren marrezturak: Uxue'ko aldare-

-arri batek ba-du zezen-buru baten iduria; Ibero'koak, bi zezen-burueenak, eta bertan beste batek zaldiaarena; Okariz'koak, zezen batena, eta bertan beste batek orein batena.

Irelukeria beraz. Ala ere leenagoko aroetan susmatzen dugun erlijioaren muina zebilen or: gizakiari eta ikusbirari eragiten dion norbaitagaz zerabilkien gogoeta, alegia.

Ortan zegoan Euskalerrria bere idaztaroaren asieran. Orduantxe zeatzki agertu zen emen Kristaугоa.

Kristau-erlijioak etzuen euskaldunak leendik zekarren erlijio eta gizabidearen oinarria kendu; indartu eta albizitu baino. Kristaугоak baztertu zuen bai irelukeria, "animismo" eta "politeismo" erderaz diotena. Kristauen iritzia eta siñismena beste bat zan; ikusbira edo mundua ez dela alegia jainkozko zerbait, eraikin aundi bat baizik. Eraikina bere puskekin, berezko oikunde edo legeen arabera dabilena; berez adimenik ez duena eta autamen gabea, eta maila ortan gizakiak baino tikiago, et guk ezagutzen dugun neurrian gure laguntzaile bilakatu bear dena. Gizakiak, aldiz, ba-du adimena, baita autamena ere; ez da ordea bere baitan ori ere, berari eragiten dion norbaiten baitan baizik: Jainkoaren baitan, alegia. Jainkoa beraz gure asiera eta gure elburua. Eta ortan, bide ortan, gure eredu: Jesukristo.

Eta euskaldunek artu zuten benetan Jesukristo beren eredutzat eta irelukeria baztertu: ala jardun dute, mendez-mende, gaurdaino.

Orain berriz, leen baztertua antzokiaren erdira ekarrerazten ari gerala esan legike, eta Kristaугоa baztertzen. Bainan gai au ez da nere gaurko gaia.

JUDUAK EUSKAL - ERRIAN

ISRAELDARRAK NAPARROA'N

ANTONIO MARIA LABAYEN.

I. - Israeldarrak Naparroa'n - II. - Erritarren Arrera txarra III. - Judimendi ta Arriaga'ko Anaitasuna Araba'n - IV. - Bizkai'ko Bazter Batean - V. - Gipuzkoa'ko Lege Zorrotza - VI. - Gaon'en Erailketa - VII. - Juduak Bayona ta Inguruan - VIII. - Prantzia eta España Artean Zelatari - IX. - Industrigintzan - X. - Euskalduna Semita Ote? - XI. - Juduak Bertsoaldi ta.

I

Uste danez Israeldarrak ez ziran azaldu Euskal-Erria'n Amargarren mende edo gizaldi arte. Aurreneko zantzuak 905 urte inguruan arkitzen ditugu Naparroa'n Santxo Abarka errege zala.

España'ko kristauok Islam'go mairu jendea ego aldeko iri ta bazter askotatik baztertzen ari ziralarik, bertara juduek sartzen ikusten ditugu eta lur artzen.

Garai artakoa, omen, Iruña'n irikitako sinagoga, Nabariria zeritzan auzoan. E. Leon'ek "Histoire des Juifs de Bayonne" liburuan esaten digenez sinagoga ori gaurko "Lindatxikia" karrika aldean zegoa.

Mariano Airigita Lasa ere iritzi ortakoa da bere "Los Judíos en el País Vasco" liburuxkan irakur ditekenez.

Navarro-Villoslada eleberri ta historigilleak "*Amaya*" *los Vascos en el siglo VII*" idatzi arren VII garren mendetik ezkerre juduek Naparroa'ko erreinuan beren "aljama" ta elkargoak ba —zituzte— la eta izen batzuek emanez, Rab Abraham, Aben Hera aldi artan Iruña'n bizi ote ziralakoak, Arigita Lasa'k ukatu ta ezezkoa ematen dio, Historiaren berri zeatzak baño irudimenaren asmakizunak diralakoan.

Beraz, *Amaya'n* V. garren atalean agertzen diran israeldarrak eta batik bat euskeraz mintzatzen dan Gartzia eta euskaldunekin bat egiñik Witiza'ren aurka burrukan diarduna baezpakoak dira.

Arigita'k dienez Naparroa'ra lenengo etorritako judu gallena Rabbi Abbu Aben Nasdai mediku ospetsua izan zan Cordoba'ko Kalifatoan oso goretsia. Ain zuzen Aba-de-Rahman III garrenaren

sendagille auta. Iruña'ko Toda Erregin amak ekarri arazi zuana bere billoba Enrique (Enrique el Gordo) senda lezan. Toda erregin ori 958 garren urtean Santxo Gartzia'ren alargun zan. Orobat Santxo IV garrenaren ama eta aitatutako Enrike "Iodikotearen" amona.

Onek billoba Leon'go errege jarri nai zualarik eta osasunez ondo gertutzeko, Rabbi Abbu'ri dei egin zion mezulariak bidaliaz. Ala etorri zan Naparroa'ra mediku judua eta bai Enrique printzea gizentasun gaitzetik sendatu ere.

Ordainez, Rabbi Abbu'k orrek bere sariaz gañera, nagusi zuan Kalifarentzat zenbait gaztelu ematea eskatu zuala diotsa Arigita-Lasa'k; eta ori ezik judutarrentzat aurrerantzean Naparroa'n bizi izateko eskubidea ta beste mesedeak.

Juduek onela sartu omen ziran Euskal-Erria'n eta bertako lur eta ondasunak bereganatzen. Indarrik aundiena artu zuten lekua Tudela'ko eskualdea. XI garren menderako (1033) Jusep, Albofazam eta beste asko etxe-jabe, diru-tratalari eta zer nai beste ogibidetan agertzen dira Naparroa'ko erregek eman zizkioten erreztasunai eskerrak. Santxo Aundia'k eta onen seme Najera'ko Gartzia'k juduok ea aundikien paretzat zeuzkaten.

Are geigo oraindik: Santxo jakintsua'k erri askotako gazteluak judutarren eskuetan utzi zituan, zaindari oberik ez zegolakoan edo?... Nola nai ezin uka diteke gauzaz baliatzen ba-zekitela. Petxa eta zergaz beren buruak arintzen mutillak ziran. "Lezta" zalakoa (edari zerga) alegia kendu zioten. Bestela ere, langintza asko tan. diru-tratuan, merkataritzan et medikutzan oso trebe izanik urte gutxi barru aberastasun ugarien jabe egin ziran.

Au, jakiña, kristau-erri xeak gaizki ikusten zuan. Juduen igoera ta diruketa, nekazari ta langille arruntak bear gorrian zeudelarik. Au-dalata bien arteko gorroto ta ezin ikusia zabaltzen joan zan eta ixkanbillak gero ta geiago sortzen. Eta Erregeen itzala ta aginteak ez ziran aski izan giroa eztitetzeko elkarrekin pakean bizi zitezen.

1274 urtean Tibalt (Teobaldo) II il ala liskar beldurgarriak piztu ziran, Iruñeko auzo zan Nabaririan juduek batetik eta San Zerni tan San Mikolas iritarren artean bestetik. Eriotz, lapurreta ta ezbearrak sutan jarri zuten Iruña zaarra. Prantzia'tik gudari-talde aundia Bellamar buruzagia zuala paketzera etorri bear izan zuan.

Ondoren, judutar etxadi, denda ta lantegi guztiak zeatu ta ondatu zituzten. Urte ta urteetan ez zituzten berritu al izanen.

Guillaume Aneliers olerkariak gerrate aren berri eman digu. Eta ez dakigu arrazoiz edo griñaz baiñan bi judutarrok salkindari, paltso ta maltzurtzat dauzkala.

Ixkanbil eta auziabtza ez zan Iruña'n bakarrik gertatu. Tu-

dela, Funes, Biana, Marzilla ta San Adrian'en; eta batez ere Lizarran (Estella) antzeko odol isurtze negargarriak jazo ziran.

Lizarra'ko sarraskia izan zan ankerrena. Emengo judutarrak eroso kokatuak "Olgazena" ballara ederrean zuten lan eta bizi lekua. Zoritxarrez 1328 peri egun doakabe batez ingurumai artako "artzai-gudate" menditarren asarrea piztu zan. Damurik, su-emaille Pedro-Ollogoyen praile pransiskotarra. Onek, itsutasunez, "*pro aris et focis*" ari zalako uste okerrez erriko jendea asaldatu zuan eta juduen auzora joanez, kale guztian etxez-etxe gizon-emakume ta aurrei ere lepo egin zien, aleunka illik utzirik, kaleak odolez gorri eta erri osoa goibeltasun illunean. Erregea'k gertakizun itzal eta lazgarriak jakin zitualarik Lizarra ta inguruko errixkak gaitzetsi zituan millaka urrezko txanpenez eta isunez zigortuaz.

Praileak igesi eta ezkutatu bear izan zuan zigorrari anka egiteko. Koldar eta kristau-erlijioaren kaltean jokatu zuala esan ditteke.

Judutarrok, Naparroa guztian aldi luze baterako zapaldurik gelditu ziran, eta asko eta asko naigabe eta beldurrez Kastilla alde-ra alde egin zuten.

II

ERRIA'REN ARRERA TXARRA

Laburkiro, bederen, ikusi dugunez Israelgo semeok urte txarrak ezagutu zituzten gure lurraldeetan.

Jazarkundez gañera izurte, eritasun eta beste gaitzak asko urritu zuten judutarren askazia.

Alaz guztiaz astiaren indarrez, pizkana-pizkana berriz burua altxatzen joan ziran eta esan bear da geienetan Naparroa'ko erregeok ez ziela laguntzarik ukatu. Karlos II garrenak (El malo "deitua") 1349 urtean medikutzat Tudela'ko Rabbi Salomon arturik zeukan.

Karlos III gna "El Noble" ots aundiko errege marzalak bere errege-jauregiko arduradun judutar anitz izendatu zituan, kristauak baño areago... Ala agertzen dira: Abraham Abem, zerga-biltzaille; Jusen Orabuena, Jakob Aboazar, Abraham Comineta irurok sendagille; Johan Abenid eta Samuel Alfaqui botikario; Zakaria Ebenayon, Salomon Carrut, jostun, urregille; ta beste zenbait lantegi ezberdiñetan.

Olite'n Errege'k zeukan jauregi bikañean arduradun nagusi izateko Saul Arnedo judutar ezaguna aukeratu zuan.

Aitortu bear da, ordea Errege guztiak ez zutela ain zabal jokatut judutarren alde. Eragozpena Eliza'rengandik zetorkien eta aundiago oraindik erriko jende xeak juduoi zien gorrotoarengandik.

Letran'go Baltzarrak 1215 urtean galerazpena ipiñi zuan judutarrekin sal-erosi ar-emanetan iñor ibilli ez zedin.

Gregorio IX gna'k bulda bat bidali zion Santxo VII erregeari juduok beartu zitzan jantzi berezi bat eramaten. (Soñekoan azafran kolorezko oial zerrenda bat lau beatz zabal bai bularrean eta bai bizkar atzealdean). Agindu ori ez omen zan bete Naparroa'n ona zergatik Aita Santuak beste bulda ta agindu berdiña igorri zion Teobaldo I erregeri.

Erregeok juduen onean ezin ba ziran geiago nabarmendu, alik eta kalterik gutxiena egiten zien. Eta ontarte ta isil-laguntza ortaz baliatzen jakin zuten erri xearen bizkar. Ez da arritzekoa jende arrunta azpi-joku ori dala-ta arras mindurik egotea. Batik bat judutarrek diruzale, "lukurlero" zikotz fama zutelako.

Arenkura Erroma'raño eldu zan eta 1257 urtean Tibalt II garrenak bulda berri bat jaso zuan au esanez: alegia judutaro "Usura" ren bidez pillatutako ondasunak kentzeko eskubidea.

Agindu ta baimen ori zala-ta neurri estu ta zorrotzak artu zituzten judutarren kontra, auek "Aljama'ko bere exetatik atera ez zitezen. Ikaraturik gelditu zirala ez da duda-mudarik.

Ordukoa da Naparroa'ko "Fuero General" legean agertzen dan arau gogorra "*Juduen Ziña*" deritzana. Juramentu lotsagarri ortara beartzen zituzten kristauekin auzitan sartzen baldin ba'ziran.

Itzez-itzez: "ARRUTH ATHA, NUPI, ANGUERA" (madarika-tua izan zaite Jainkoa'ren agotik) gezurretan edo iruzur egiñez arrapatzen bazuten kristau baten kaltean. Zenbateraño buku-markurtze, destaña ta lotsa nardagarri jasan bear izan zuten errez da asmatzea. Baita ere joakabide txar orrek elkarren artean sortu zuan gorroto, erra ta ezin ikusia. Laister ondorengo okerragoak gertatu ziran. España'ko lurraldeetan giro berdintsua bait zegon, naiz aldi batzuetan biguñago jardun. Onela iritxi zan 1492 urte gogoangarria. Isabel eta Pernando erregek katoliko deituak juduen aldeko gelditu ziran lege guztiak kendu eta erbestera bialduak izateko agindu zorrotza eman zuten.

Kristau bataioa artu gabe zeudenak España'tik kampa alde egin bear izan zuten, etxe, lur eta ondasun guztiak utzirik.

Auek ez galtzeagatik gizarajo asko bortxaz eta itxuraz kristau egin ziran eta bertan geldituaz begi txarrez ikusiak zeuden "marra-no" gaitzizenez deituak.

Gertakizun oriek Kristo'ren aginduen ukamena izanez geroz, alaber giza-lege zuzenaren kontrakoak ziran, orobat. Eta bizimaña ta ekonomiaren aldetik begiratuta oso kaltegarri Iberia lurralde-tako erreinuen etorkizunerako.

Ezen juduek mediku, lege-gizon eta beste jakintza askotan maisu izanik, ortaz gañera, zerga-biltzaille, merkatari, diru-tratari, ta esku-langille trebe ta ikasiak ziran zer nai ogibideetan. Erritan utzi zuten utsunea ez zan beñere beteko.

Emen aitatu nai ditugu Naparroa'n juduen artean gizon otsaundiko batzuek: Guzion gañetik Tudela'ko Rabbi Benjamin XII mendean orduan ezagutzen zan munduaren zear ibillaldi gallena bururatu zuana. Jakintsua izanik aipu aundiko liburua utzi digu: "Itinerarium" izkuntza askotara itzulia eta ebreozale diran Unibersidadetan erakusten dana.

XII garren sigloan bizi ziran: Rabbi Bar Samuel, Rabbi Selvaion'en ikaslea; Ben Aderat, Rabbi Aderat, eta Rabbi Dubbi Destilach, azkena Estella'n jaiotako lege-gizona. Angoxeak izan ziran orobat, Rabbi Abraham Aben Serag eta onen seme Menahem Aben Serag.

Lenago aitatuta utzi dugun Lizarra'go sarraski negargarri artan lekuko izan zan. Eta doakabeak bere aita ta lau senideren erailketa ikusi zuan.

Goroztik ez da arritzekoa andik Kastilla'ra bizi izatera joana izatea. Toledo'n kokaturik ango judutar anaioek aintzat arturik Apaiz edo Rabino izendatu zuten.

Zerrenda ez luzatzeagatik beste bi gizon bakarrik izendatuko ditugu: Bat oso gallena ordea; Rabbi Selomoh Halevi jatorriz judutar garbia baiñan azkenean zin-ziñez kristau biurtua.

Burgos'en jaioa izan arren naparra zuan familia. Eta ain gora igo zan gizona, urte gutxi barru Cartajena'ko Goi-Apezpiku egin zutela. Arrezkero D. Pablo Santa María izen berriaz ezaguna da, eleizgizon ospetsu ezik liburu askoren egille.

Eta azkenik, Rabbi Tod Ben Yeschag mediku famatua ta batera Talmud eta Erljio gaietan entzute aundiko irakaslea.

Arigita-Lasa ixtorigilleak beste izen asko dakarzki eta aren liburuxkan arki ditzazke jakin min dan irakurleak.

Yanguas-Miranda Caro Baroja, Idoate eta beste idazle zenbaitek ere aien berri ematen digute.

Naparroa'n bizi izan ziranak, jakiña. Euskal-Erri'ko beste eskualdetan nabaritzen diran juduen urratzak aztertzea dagokigu ta asmo ortara goaz.

Araba'tik asiera emateko esan zagun Gazteiz'ko iri nagusian oso ezagunak izan zirala; eta Agurain (Salvatierra) La Guardia (Biazteri) eta beste zenbait lekutan judutar alkartasun zantzuak agertzen zaizkigu.

Urrengo atal baterako xeetasunak utzi itzagun.

III

ARRIAGA'KO ANAITASUNAREN ITZALPEAN

Araba'n israeldarrak bizi izan ziran lekuak aitaturik utzi ditugu eta erantsi bear dugu Gebara kondearen gaztelu-errixka, ixtori jakingarri bat bertan gertatu zalako geroxeago azalduko duguna. Nola nai babazorro arrunten artean judutar alkartasun txiki edo aundi iraun zutela gauza ezaguna da.

Nagusiena Gazteiz'koa izan zan, naski. Gaur Calle Nueva dertizan auzoan bildurik zeudela beren lantegi ta bizi-lekuetan agiri askotatik dakigu. Eta "Judizmendi" muñoan, ots "Montjuich" edo "judu-mendi" esango ba'gendu bezela kamposantutzat aien ildakoek eortzitzeko zuten toki donea. Lur onen jabe zirala aldegin zuten erbestera. Orrengatik ez dala urte asko Gazteiz'ko Ayuntamiento batzarrak Bayona'ko juduen alkartasunari baimena eskatu zion jabetasun ura onez-onean bereganatzeko. Norena izan zan ba-zekitela ezaugarri seguroa.

Gazteiz'ko juduen aljama aipu aundikoa izan zan. Gizon espetsu askoren bizi lekua. Letradun, mediku, diru-biltzaille ta antzekoak. Besteak beste XV garren mendean Tolosa'n erail zuten GAON doakabearena.

Norbaitek sumatu duanez Prantzisko Vitoria mundu guztian goretsia dan eleiz-gizon eta legemaisu argidotarra Gazteizko judutren seniartekoa izan ote zan baietzean daude.

Gezurra edo egia beste orrenbeste esan da Fray Luis de Leon, Juan de Avila, Santa Teresa ta nik al datik zenbat geiagorengatik.

Baiñan baezpako gauzak utzirik gertakizun ziur eta jakingarri bat azalduko dizuet Gebara'ko ebreotar batzuei jazotakoa. Segundo Ispizua ixtoriagille ikasiak bere liburu batean ematen diguna. Gebara'ko Sinagogan gertatua omen. Don Jakob zeritzan judu bat il zala-ta, erri artako jauntxo Kondea zanak, eta orobat Oñati'ko agintari, illeta ospatzeko ango abadeak ekarri arazi zituala esaten digu. Dr. Justo Garate'ren iritzian (Ensayos Euskarianos) D. Jakob ura kristau biurtutako judua izango zala adierazten du.

Guretzat bitxiena, ordea auxe da: illeta artan juduek apaiz-gionez euskeraz emen dijoakizuten antzeko zerbait esatera biurtu zituztela:

“Bizi eze, il ei da Don Jakob”

Eleiz gizonok emandako erantzuna onokoxe au:

“Egia, Egia, al diok Eneko”

Esaera illun eta nasiak biak, gure izkuntzalariak, bai Garate Mitxelena eta abar buru-austean jarri dituanak zer adierazten duten ezin asmatu.

Gauza bakarra garbi azaltzen dana: juduek ingurumai aietan bizi izan zirana eta agian euskeraz mintzatzen zirala.

Ezer gutxi geiago esan dezaket Araba'ko judutarrei buruz eta ontaz eman bear azkena.

Arriaga'ko anaitasunaren itzalean juduez lasai bizi izan zirala ba-dirudi. 1492 urtean errege-aginduak jo zituanean erbesteko bide latza artu bear izan zuten, mugatik aruntz Babilonia berri batera malkoak isurtzera joanez.

IV

BIZKAI'A'N BAZTERTURIK

Ez dira askozaz ugariagoak Bizkai aldean biztanle izan ziran judu-taldearen zer nolak. Auek Balmaseda errian alkartasun bat izan zutela gauza jakina da. Martin Hero ixtoriagilleak (Historia de Valmaseda) aien jokabidea zeatz agertzen digu. Eta noiz arte iraun zuten alderdi artan. Eta an bakarrik Bizkai'ko erdal-erri zan baztarrean. Orretarako Erregeen laguntza izan arren 1483 garren urtean erri artatik aizatu zituzten. Buruzagi zuten Don Haron, alper gaiztoan, Gernika'ko Batzarrera babes billa joan zan, bada ez zioten jaramonik egin. Chinchilla erre-ordezkaria ere ez zan gauza izan aien alde zerbait egiteko. Balmaseda'ko juduok guztia galdua ikusirik Laredo ko portutik, betiko, erbestera aldatu ziran. 1492 garren urtea geroztik Errege-Katolikoek emandako legeen ondoren auzia aien kontra erabakia zegon.

Enkartazio deritzan lurralde artara Mena'ko Ballara eta Medina de Pomar'tik barrena Burgos aldetik etorriak ziran. Kastilla'ko iri nagusi ori betidanik juduen biltoki aundia izan bait zan.

Bilbo'n sal-erosi komertziorako leku autu izanik ez dut iñon juduen aztarren aundirik ikusi.

Eta bestela ere, Bizkai'ko jaundegiko ixtorigileetan israeldarrekin zer ikusirik duan ezer gutxi arkitzen da.

Ezin bestean, gauza jakingarriztat azaldu diteke “La Araucana” poemaren egille izan zan Alonso de Erzilla, Bermeo'ko jatorri ortako semea, naiz Madrid'en jaioa izan, judutar odolokea ote zan susmoa agertu izan diotela. Santiago Zaldun izendatu nai izan zutenean, norbaitek ama Zuñiga'ren aldetik judu-kutsua zuala salatu zuan. Zuñigatarrak Naxera'ko juduekin egon zirala-ta... nasturik.

Ain zuzen beste erdi bizkaitar Juan Antonio Mogel idazle ospetsua, euskal liburu ederrenetako baten egillea: “PERU ABARKA” sortu zuanari akatz bera erantsi diote. Alegia: Aita-aitona Naxera'ko judu-ssendagille eskolakoak izanik aien odola zañetan zera-matela.

Izan ere, garai artan odol-garbitasun agiria zeritzana egiteko oitura España'ko lurralde guztietan barne-barnean sarturik zegon. Kezka izugarri orrek parregarrizko gauzak egin arazten zieten.

Toledo'n bertan, mudejar jendeak, au da, mairu kristau biurtuak ez zituzten juduek berekin artu nai izaten.

Andaluzia aldean, lapurrek berak alkartasun itxian bizi ziran arrotzak laguntzat artu nai ezik.

Odol-Garbitasun billatze ori benetako izurtea zan. Eta gu euskaldunok ez gñan gaitz ortatik azke izan.

Gero, gai ortan Gipuzkoa'n zer gertatzen zan aztertzer joan gaitzeanean ikusiko dugunez. Ez uste, ordea, juduek berak arrokeria ortaz kutsuturik ez zeudenik. Beren buruak aitoren semetzat zeuzkaten ta ez ukatzen bere jatorriko odola. Batik bat “sefardita” deituak. Gizon argi ta eleiz-gizon zentzudunak lege ta oitura txar aiek kendu bearra zegoala ta XVII-XVIII mendetatik onuntz kezka aiek aultzen joan ziran eta geiago odol-agiri ta “hidalguia”k diruz erosten ziralako. Giputz lurrera aldatuaz erri-legeen eta Kristau erlijioaren artean elkar-jotze bat zegoala laister antzemango diogu.

Elkar-jotze... eta kristautasunaren ukamena.

V

GIPUZKOA'KO GALERAZPEN ZORROTZA

Errege katolikoek 1492 urtean juduak bere erreinuetatik bidualtzeko legea eman zutenean Euskal-Errian'ere bizi izatea askoz zailagoa izan zitzairen. Naparroa'ko azken erregeek D. Juan eta dña Katalina agindu bera eman bait zuten 1498 urtean.

Alabainan oso gutxi izan omen ziran Naparroa'tik alde egin zutenak, geientsuak, itxuraz, bederen kristau biurtu ziralako.

Ori dala-ta jende mota berri bat sortu zan: kristau berri (cristianos nuevos edo conversos) deituak. Auek kristau zarrendandik gaizki ikusiak zeuden sinismen berrira judu maltzurak beldurrez eta komenentziz etorriak zirala uste zutelako. Kristau zarrek berriei ezpaz begira zioten. Erra ori zala-ta España barruan ezin esan añako salaketa ta auziak izan ziran.

Gipuzkoa'ko Probintzian gogor artuak izan zirala jakiteko asko da Fuero Legeen bilduman 41 atalean diona irakurtzea:

“Capitulo I: Que ningun *cristiano nuevo* ni de linaje de ellos no pueda vivir ni morar ni avecindarse en esta Provincia. Ordenamos y mandamos que ninguna persona, asi de los cristianos nuevos que se hubiesen convertido de judios y moros a nuestra Santa Fe católica, como del linaje de ellos que estuvieren o vinieren a morar y vivir en esta Provincia de Guipuzcoa, o en alguna de las villas o lugares de ella no puedan estar ni morar en ellas, y si estuvieran, que dentro de seis meses que corran desde el día de la publicación de esta Ley, salgan fuera de esta Provincia, so pena de perdimiento de bienes y de las personas a merced de la Majestad real”.

Karlos I erregek 1527 urtean eta Felipe IV'k 1649 urtean emandako aginduak oñarritzat arturik.

Gaurko ideen arabera ta gizalege ta kristautasunaren argitara begiraturik agindu ta neurri anker oriek arrazakeria utsa dirudite. Eta erabaki gogor oiek aurrera eramatea eziñezkoa ezik sinisgai-tza zaigu.

Esan bearra dago, orduan ere ezituztela guztiok onartzen.

Ez letradu ta ez eliz-gizonek ere. Auen artean Loyola'ko gure Iñazio donea aipatu bear dugu. Onek lege aiei buruz bestelako iritziak zeuzkan, eta zenbait obispo ta Apezpiku ta gotzaiek zeuzkatenen aurkakoak. Batik bat odol-garbitasunaren egitea eta beste miraketa zorrotzen etsai zan. Oraindik areago: Iñazio'k judutar-jatorrikoa izatea oso aintzat zeukan eta aren ixtoriagille Aita Rivadeneyra'k dionez eztabaida ta asarre asko izan zituan judutarren alde arpegia emategatik.

Illoba zan Aita Araoz'ek osaba ta nagusi zuanari naigabe asko kentzearren “*cristau-verriac*”, alegia, *judutar jatorrikoek* ez zitza-la Konpañian (lagundian) sartzen utzi, aolku eman zion.

“Compañia zala-ta norbaitek ixekaz “sinagoga” izena eman ez zezaion...

Baiñan Iñazio bere ortan jarraitu zuan.

Diego Laiñez Aita jesuiten bigarren nagusia judutar askasi-koa zala guztiok dakite. Eta baita Aita Polanco eta baita Loyola'ko beste seme eta ikasle asko. 1592 urte arte ez zuten Lagundia'ren sartzeko eragozpenik arkitu izan.

Gerora, ordea, gertakizunen aldaketak, eta Politikaren gorabeerak agintariek beste jokabide batera beartu zituan.

Nola nai dala, juduek sustarretik erauzteko lege gogorrak paporean oso errez ipiñi ziran baiñan “praxix”ean oso zailla zan aurrera eramatea.

Kristau zar eta berriek bereiztea gauza zailla, benetan.

Batetik, juduak kamporatzeko legeak eman ziralarik alde z aurretik, asko eta asko, geientzuenak, bertan gelditzearren baitaiatu ta kristau berri biurtu ziralako.

Bestetik, oso maiz kristau zar eta berri elkarrekin ezkondu-rik zeuden, kristau gizarte barruan sartu ta itsasiak.

Nor eta nola egin bereizketa?

Judutarren senide asko, apaiz, praile edo eliz-gizon egin ziran. Obispo ta Elizaren goi-mallako agintari izatera iritxi ziranak ezagutzen ditugu. Bat, goraxeago aitatutako Pablo de Santamaría entzute aundikoa...

Beraz, gizonok naiz lege gogorrak eman giroa biguntzen joan zan. Eta egia da España'ko lurraldea judutar kutsuz, norbaitek barrabas belarra deitua- beterik dagoala esan ditekela.

Gizarajo asko lege zital aiek bultza España ta Portugal'go eremutatik igesi egin bear izan zuten. Eta ez gutxi Euskal-Erria'tik barrena Prantzia eta Europa'ko iparraldera Flandes eta Holanda'runtz...

Aita Larramendi jesuita izanagatik, gizon argi, zuzen eta ikasia Gipuzkoa'k juduen aurkako emandako legeen aldekoa zan.

Ez zerizkion gaizki eragozpen eta neurri gogor aiei... Odol garbitasuna eskatzea ontzat artzen zuan euskaldungoa osorik gordetzearren. Ori bai, beti erri xearen zale zan; auek gogoz gores-ten zituan aundikiei aña eskubide eman naiez. Guzcion gañetik langille, nekazari ta jende arunt eta apalak maite zituala.

Aren liburu eder “Corografía de Guipuzcoa” irakurriaz nola-ko iritzi errizaleak zerabilzkian. Ez ziran Loyola'ko Iñazio'renak, naski. Au erritik kampo eskolatua ta erbesteko auzi ta burruketan murgildua, mundu guztira begira bizi izan zan. “*Weltanschau*” asmo orokorra zuan gogoan nagusi. Ots! Jainkoa'ren aintza: Ad Majorem Dei Gloria” Dakigunez, Iñazio Inkisizioaren presonde-gian katigu egona zan bai Alcalá'n eta bai Salamanka'n. Eta epai-kari zan Figeroa'k galdegin zionean ea egia ote zan larunbata, alegia “sapatua” juduek bezela gordetzen zuala, irriz erantzun omen zion: Bai jauna! Amabirjiñari jaiera aundia ziolako; eta ez zuala beste jairik ospatzen aren bizilekuan ez zalako juduta-rrik. Onela esaten digu Fauto Arozena jakintsuak bere liburu “*Gipuzkoa en la Historia*”n. Eta au eransten du: Iñazio doneari aleman idazlari batek “*Mitjude*” izena ematen diola, *Erdi-judua*”.

Pablo Gorosabel ixtorigilleak ere Larramendi'ren esanak onesten ditu, Gipuzkoa'n bizi izatez ez zala judu aztarrenik arkitzen bayeztuaz. Pasa-bidean zijoazten juduak jantzian siñale bereziak eraman bear zituztela "arraza txarreko" gizonen ezaugarri.

Au jakiñik ez gera arritzen Hernando del Pulgar sekretario ospetsuak Mendoza Kardenala'ri izugarrizko eskutitza, zorrotz eta latza bialdu izatea. Gipuzkoa'ko lege aien kontra gaizki esaka, asto beltzarenak, ziñez! Pulgar ura ebreatarren jatorrikoa bait zan!

Caro Baroja'k luze diardu gai ortaz bere iru liburu jori eta aberatsetan: "Los Judios en la España Moderna" Arazoa sakondu nai lezakeanak aski du aipatu idaztiak arretaz irakurtzea.

VI

GAON'EN ERAILKETA

Gipuzkoa'ko lurrean iñoiz judutar bati egin izan zaion ezbear odoltsu ta bakarra Tolosa'ko kalean gertatu zan.

Juduok diru ar-emanetan eta zerga-biltzalle trebeak zirala edozeiñek daki Ixtori labor onen zear ikusten ari geranez.

Batzuetan trebe ezik zurrupatzalle aipua zuten, diru gosea odolean zeramatenak, erri xearen iritziz, txanponari korritu aundiak ateratzen zekitenak.

Zer egin ori Errege eta aundikiak pozik egosten zioten, benetan alkabala, petxa, zerga ta amarren mota guztietatik biltzen mutillak ziralako. Nun nai erri diruen arduradun nabaritzen ditugu eta au eginkizun gaitza izan oi da iñor gutxik leporatu nai izaten dutena, doariñ bederen... ez. Juduoi gure erritan arrotz zilararik lanbide ortan jardutea, aide ta auzokideen beldurrik gabe errezaگو zitzaien.

Bai Napparroa'ko ta bai Kastilla'ko erregeek diru premian zeudenean ta bear gorri ortan maiz arkitzen ziran judutar bankeroengana jotzen zuten diru billa.

Era ortan Kastilla'ko eta Gipuzkoa'ko errege zan Enrike IV laugarrenak B. GAON Gazteiz'en bizi zan judua, Gipuzkoa'runtz diru billa joan zedin izendatu zuan. Diru eske ori "pedido" deitua lege-zar eta furoen kontrakoa izanik giputzok ezezkua eman zioten.

Eta bai alde z aurretik gaztigatu ere ez zedilla asmo ortan Gi-

puzkoa'n agertu, Errege eske edo "pedido"ori zuzen kontrakoa zalako.

Alaz guztiaz Gaon dalakoa 1463 garren urteko Apirillean Gazteiz'tik Gipuzkoa'runtz abiatu zan.

Tolosarrok ba-zetorrela garaiz jakiñik asaldatuta zegon gazte jendea bildurik erri sarreran itxoin zioten. Eta Kastilla'ko atetik sartzen asi ala bai gogor eraso ere. Laskorain kalea gaur Korreo eta Elosegia deritzanetik barnera bultzaka eramanez bertan il zuten zerraldo utzirik. Erriko agintariak eriotz artaz beldurtu ziran Gaon ura judua ezik Errege'k bialdutako mandatari bait zan. Eta Enrike IV zearo asarretu ta onetik aterako zala ezbear latza jakindakoan.

Baezpada iltzalleok mendiruntz alde egin zuten eta laguntzaille eta estalkin susmokoak presondegian sartu zituzten. Au dala-ta Tolosa'ko erri guztia kezkatu ta urduri gelditu zan. Eske-rrak bertan bizi zala Donmenjon de Andia tolosar ospetsua, lege-gizon, agintari ta Errege'ren aurrean itzal aundikoa. Gizonki aurpegi eman zuan Erregearengana agertuaz, barkamena eskatze-ra, jakiña, baiñan baita ere esatera Gaon'en bitartez egindako "pedidoa" legearen aurkakoa zala.

Enrique IV'k arrazoiak entzunez eta baretu zanean, denbora gutxi barru iltzalleoi barkamen osoa eman zien. Eta mendira igesi joandakoak etxera itzuli ziran.

Gaon doakabearren gertakizuna ortan bukatu zan, aldi batarako Erria paketurik gelditu zala. Eta oartu bearra dago judu izteagatik baño okerreko zerga-biltzaille jokuarengatik.

Gipuzkoa'n ez da beste judu-aztarrenik arkitzen, nik dakidala, beintzat. Eskribau paper-zarretan, "hidalgi ta odol-garbitasun agirietan batean baten izena... giputz errikide izan nai zualako. Gezurrezko auziaren bitartez batzuen batzu ezkutu ta isilean gure artean sartu ziran eta gaur ez ditu iñork ezagutzen. Ori da guztia. Eta ez iñondik egia noizbait E. Leon'ek dinez "aljama" izan zutela. Ez, ibilkari, bidez-bide pasa ziran gure lurretik.

VII

JUDUAK BAYONA'N ETA INGURUAN

España ta Portugaldik igesi egindako juduak Adur ibaiaren ertzean oñarritu ziran. Azkenik, gora-bera asko ondoren Saint Esprit lekuan Sinagoga eder bat eraiki zuten, gaur ere, 1837 ga-

rren urtetik onuntz arro eta apain arma-arriak erakusten dizki-guna: Bost ankako "grifo" edo egadun-leoia, Torah- ren bost liburuen ikur bezela. Guztia gules margo gorriaren gañean, ausardiaren irudi antzo.

Au da Bayona'ko judu-alkartasunaren eskutu arranditsua. Adierazi naiez bertako juduek Prantzia'ri gizon ospetsu anitz eman dizkiotela :bankero, merkatari, letradun, gudu-gizon, sendagille abar eta abar... Aien jatorria España ta Portugal'dik etorri edo bialdutako juduetatik datorkiela esan dugu.

Naparroa'tik lenbizi etorritakoak 1474 urtean Ziburu, Donibane, Biarritz eta Bayona'ko St. Esprit auzoan kokatu ziran, kristau berri edo "marrano" (ez urde "utsegilleak baizik") deituak.

1496 urtea ezkerro Portugal'dik etortzen asi ziran eta Louis XI garrenak ontzat artu zituan. 1492 urtean berriz burrundara aundian Kastilla'tik zetozten, parrastan. 1550 garrenean Henri II zanak emandako baimenez Saint Esprit lekuan ikusten ditugu eta Henri III erregek ere ameto egin zien... Baiñan 1612 urtean Henri IV laugarrenak Bayona'ko komertzianta ta merkatarien kexua ta arregurak entzunez portugaldar judu guziak bialtzeko agindua eman zuan. Eta ez ziran gutxi ingurumai artan: 800/1.000 bat familia. Agindu zorrotz arri uzkur egiñez, nola edo ala ezkutaturik bertan jarraitu zuten ez burrukarik gabe, kezkatu ta urduri beti Prantzia'ko Erreboluzio edo iraulketa izugarria eldu zan arteraño. Tarteka, ordea Louis XIV garren denboran 1722 urtean abegi onez elizkizunak egiteko baimena lortua zuten.

Louis XV garrenak gogorrako artu zituan ondasunak baituaz eta beste zenbait neurri kaltegarritz zigortzen zituala.

Aurrera jarraitu baiñan lenago 1619 urtean Martxoaren 16 ain zuzen Donibane Lohitzun'en gertatutakoa dasagun. An bizi omen zan D. Antonio Faria portugaldar apaiz bat eta bertan bizi ziran judutar portuges batzuek konfesatu omen zituan Paskuazkoa egin zezaten.

Ala taldetxoa elizara joan omen zan jaunartzera panpantxo... baiñan zelatan an zegon apaiz euskaldun batek. Lizardy izenekoa, bera, ikusi ote zuan aietako andre batek "osti" santua aotik atera, sakelean sartu ta aguro alde egiten zuala. Bai atzetik apaizak eta erriko jendeak segitu ere. Guztion artean laister atzeman zuten eta bai lotuta agintariengana eraman... Emakumezko doakabea, jakiña latz juzgatu ta epaitua izan zan eta gero bortxaz plazaren erdira eramanez bertan erre egin omen zuten. Onela kontatzen du beintzat E. Leon judutar ixtoriagilleak (Histoire des Juifs de Bayonne). Eta erriko jende xea, mariñelok, batik bat gogorren joka zutenak erantsiaz...

Gañerantzekoak, portugaldar juduek, alegia kampaia bialduak izan omen ziran. Gizarajoak 15 eguneko epea eskatuagatik jende arruntak ezezkoa eman zien onela erantzunez euskeraz: "EZ, EZ, ORAIN eta BEREALA". Ez dakigu nora joango ziran Bayona'runtz, naski, Ezen ikusten ari geranez an zuten babesa ez liskar eta burruka odoltsuak aitzeki maitzeki zerraizkiela. Era berean erail zuten Katalina Fernandez zeritzan bat, au ere "ostia" santua lardaskatu ote zualakoan... Michel Fonseca español etsaiekin bat zetorrela ta garbitu zuten. Lenengo prantzestu zan judua Jacques Riguere Cardoze 1668 urtean agertzen zaigu.

Juduen etsairik txarrenak Bayona'ko merkatari ta sal-erosle jendea zala esanik daukagu. Auek nai zutena zan aiek Saint-Esprit auzoko "getto" dalakoan bizi zitezela, Bayona'ko ibaitik bestaldera.

Andik ateratzeko galarezpaneak jartzen zizkieten negoziotan kompetentzia egingo zioten beldur bait ziran.

Arestian aipatutako Jacques Cardoze judutar baiñan prantzes erri-gizon egiñak tinko jokatu zuan auen eskubideen alde.

1723 urtean Louis XV erregek "lettres patentes" eskubide berriak opa dizkie eta onela juduek ugaritzen zijoazen eta sendotzen... Millatik gora izango ziran familiak Bidache, Peyrorade, eta Labastide Clarence'koak kontata. Auen artean Rubio, Jakob Paz de Silva medikuak izen ona irabazirik zeukaten. Auen itzalean juduek apaiz eta eleiz-gizonekin ere auzitan sartzea, arrazoi zutela ausartu ziran.

Saint Etienne elizako erretorerekin, esate baterako, onek zuzen kontrako zerga ta petxak jarri nai izan zizkielako.

Alkate, errejidore ta erri-gizonek ez zioten arpegi oberik jartzen. Ordu jakiñetik kampaia Bayona'ko zubi luzetik igarotzeko oztopo izaten zuten. Beiñola, Jacob Castro Bibilo elbarri zan judu bati ez zioten zubitik Bayona'runt etortzen utzi eta ibaira erortzeko arriskoan Saint-Esprit'eko bere etxera itzuli bear izan zuan.

1789 urteko Prantzia'ko matxinada aundi arte onelako ezbearrak maiz gertatzen ziran. Ez langille bizkorrak ez ziralako. Ordu-rako juduok Indieta'ko lurraldeekin ere ar-emanak ba-zituzten.

Berak sartu zuten Bayona'n txokolategintza. Oraindik 1860 urtean gelditzen ziran iri ortan txokolategille bat edo beste txokolate famatua "arri" sisteman zegitenak, Juduak segurki, ta kristau txokolategilleok ezpa zioten baiñan aiek langintza artan garaille irten ziran.

Bakallo-arrantzarako ontziak gertutzen ere mutillak izan ziran, euskeldunekin batera. Gero Terranova'runtz abiatutako judu asko ez ziran Bayona'ra itzuli Amsterdam, Hanburgo eta beste iparraldeko portuetara bizi izatera joanez.

Juduak izan ziran alaber, Bayona'n gatzaren salmenta sartu zutenak. Arazo guztieratako Jakob Pereire israeldar jakintsu ospetsua laguntzaille aundi izan zuten eta oztopo ta eztabaida askoren ondoren judutarrok beren ogibideai eutsi zioten, erabat beren fedeari atxikiaz. Gutxi izan ziran kristau-katoliko biurtu ziranak. Eta bortxaz edo batzuetan aur zenbait bataiatu izanagatik ortan gelditu zan guztia.

Pixkana-pizkana gogorkeria biguntzen asi zalarik eta 1777 urtean Louis XVI garrenak emandako aginduaren arabera Bordele'ko Parlamentuan juduen izenak ontzat artuak dira. Oni eskerrak 1791 urtean Saint-Esprit'eko judueoi Bayona'ko zubitik onuntz bizi izaten uzten diote. Bost mendeetan galerazia izan zutena zillegi zaie.

Alaz eta guztiaz, geienak Saint-Esprit auzoan gelditu ziran. 1793 urtean Bayona'ko iriak lenengo ziñegotzi edo errejidore judua ezagutzen du: Josep Rodriguez Bernal jauna. Amerika'tik itzulia egiña zan eta Prantzia'ko matxinada aundian buru-belarri sartua. Orduan Saint-Esprit errixkari izena aldatu ta "Jean Jacques Rousseau" ipiñi zioten. Judutar gazte jendea "Armée des Pyrenées" zalakoan soldadu sartu zan. Erreboluzioa bukatu ala Napoleon'ek Batzar batera deitu zituan Bayona'ko erritar guztiak. Abraham Andrade, rabinoa, Castro semea eta Pattro Saint-Esprit'eko izenean Sanhedrin artara joan ziran ordezkari. 1806 urtean Abustuaren 15'n Napoleon'en omenez egindako batzarrean aitaturako Andrade mintzatu zan Bonaparte'ren goresmenez. Jaun au gero Bordele'ko rabino izatera iritxi zan. Napolenzale sutsu agertzen zaizkigu. Naiko larri Louis XVIII erregetzara igo zanean baiñan, bearrik, errege berriak ez zuan erlijio azkatasunik galerazi.

Juduak berez adimen argikoak izanik buru lanetarako gizon gallen asko sortu zituan. Isaak Rodriguez 1837 urtean Bayona'ko lenengo alkate judutar izan zana bat. Andik aurrera Udal-Etxean beti arkituko ditugu judutar erregidorerik; eta agintaritzako beste ate guztiak irikitzen zaizkie. Gora dijoaz eta 1848 urtean Bayona eta inguru-errixketako judu familiak- portugaldar askazikoak geienak- 2.000 millatik gora dira.

Konsistorio deritzan alkartasuna eratzen dute eta Bayona'ko Saint-Esprit auzoan, Maubec... karrikan Sinagoga berri eta eder bat eraikitzen dute egundaño zutik dirauena.

Iñoiz sefardita ta azkenazi taldeen artean leia ta asarreak gertatu izan ziran baiñan anaitasunean paketuaz 1857 ezker esan diteke Sinagoga artan biltzen dirala eta gaur egunean ez dala ezagutzen Bayona'ko Juduen alkartasun bat baizik.

Tren-bide ta geltokitik urbil dagon Sinagoga Louis XVI arkitectura tankeran egiña dago. Elizkizunak portugaldar "rito" edo erara ospatzen omen dituzte Daniel Gerson idazleak dionez (*La ter-*

re retrouvée). Zabalkunde egunean entzute aundiko jaialdia, festa gaitza ospatu zuten Louis Philippe errege lekuko zala, kantu, musika ta alaitasuna gain-gañetik. Gallurrera igoak ziran. Kapitolioa, ordea Tarpeia arkaitzaren alboan dagoala esan oi da eta ez da gezurra.

Bayona'ko juduen aunditasuna txikitu zan. Andik eun urtera bi milla familietatik berreunera jetxi ziran, zio asko ta gertakizunen kariatz.

Judu gaztedia Bordele ta Paris aldera joan zan. Bertan gelditutakoak beste erlijiozko jendeekin ezkondurik eta azken urteetako gerrate ta deportazioak Bayona'ko juduen alkartasunaren indarra urritu dute. Aski da esatea, azken gudatean Sinoburger rabino zana Auschwitz'era nazitarrok eramanez... an il zala.

Geroztik ez zaie juduei errez izan bururik altxatzea. Alare, Pereyre judutar buruzagi ospetsua orain ere Saint-Esprit leku maitean bizi danak eta Albert Levi, Errera ta beste zenbait lagun dituala Israel'go enbor zarrari kimu berriak txertatu arazten ziñez leai dira. Neroni ikusia naiz (1965) Daniel Gerson'ek dionez 25 neska-mutil Bayona'ko Sinagoga'ren eskola aurrean atezai zeudela.

Choukrum rabinoa dute maisu berria. Onek Biarritz'ere eskola ematen du. Adierazi bearra bait dago Napoleon III denboran Juduek Miarrit'zen sinagoga bat izan zutela; eta aren inguruan sarre-ra aundia zeukatela naiz Eujenia emperatriza juduen etsai izan.

Bayona'ko juduek bizi-nai berrizte ortan arategi berezia "*kaxer*" deritzana iriki arazi zuten, baiñan Pereyre'k aitortu duanez alkartasun urri batean oso gaitz dala erlijio oitura guztiak osorik gordetzea. Sinagogan bai liburuak, Thora, sepher, erroldeak gorde al izan dituzte, alemanek sinagoga ikullutzat artu arren.

Eskerrak Musée Basque erakus-tokian puska asko eskutatu zituztela. Eta benetan ori da lekurik egokiena oroitzapen gauzak gordetzeko. Ildakoak ohoratzen juduek leialak dira eta Saint-Esprit-eko ta Bidache eta Labastide'n kampo santuak ondo zainduak dauzate illobitan izenak eta otoitzak elkarrekin nasturik. Auek ikusi ta gogartuaz Auschwitz... eta erbestean datzaten judu doakabeen ezur-autsak oroi-arazten dira.

1808 urtean Napoleon España'ra sartu zalarik Inkisizio-Auzitegia ezebatu zuan. Ondoren, españar beltzak, liberalak, alegia Cadiz'en egindako Constituzio-lege bilduman juduen kontrako agindu guztiak galerazi zituzten.

Egia da ordurako España'n oso gutxi zirala bere burua judutar jatortzat aitortzen zutenak... Geientsuenak, ea guztiak bai arrazaz eta bai erlijioz kristauekin nasturik zeudelako. Andik aurrera, gelditu ziran bakarrak eta Prantzia'ko muga bizi izatez ezagutu ditugunak España'ko politika-gora-beeretan sarrera aundia izan zuten, Errege-aldaketa zala, gerrate, ta iraulketa ta erreboluzio guttien laguntzaille eta zelatari...

XIX mende erditik onuntz gudate ta matxinadak ezitu ta itzaltzen joan ziran, zorionez, karlisten gudua amaituaz Alfonso XII garrena errege altxa zutelarik.

Euskal-Erri barruan naiz aundi maundi ta naiz jende xea bear-kizun eta premi gorrian arkitzen ziran. Lantegi, Industria, burniolagintza, eta sal-erosle ar-emanak arras erori ta erdi-illak bait zeuden. Familia asko, batik bat giza- seme ta alaba gazteak Amerika'runtz, Kuba eta Arjentina'ra geinak joatera beartu ziran ogia irabaztearren. Emen ez zan ogibiderik pakean lantegiak eta nekazaritza indartu ta ugaritu ezik. Ondasunak berriz sortu ta sendotzeko dirua bear eta gai ontan juduek inor ez bezelakoak azaltzen zaizkigu. Zer gerta ere muga inguruan bizitzea atsegin zitzaiela ikusirik gaude. Bayona aukerako lekua izan zuten orretarako. Kar-sisten gerrate urte luzeak izan zirala-a konspirazio jokuan jarduteko ezin arki izan zitekean txoko oberik. An bildu ziran Aviraneta, Muñagorri eta ispitzako azpi-lanean zebiltzan guztiak. Aruntz jo zuten, orobat ezbeurrak eta ikarak bultzata España'tik zetozten igeslari oro: politikari, soldadu-buruzagi, merkatari, jende xea, gizon eta emakumezko.

Besterik ezean aldi baterako babesa eta pakea an arkituko zuten. An errezago zitzaien, gañera, sakabanaturik zeuden etxeoen berriak jakitea. Eta eskuarteko dirua sortzea ere bai judutar banko-etxeetan eskatuaz.

Ontan Israel'go semeak doai berezia dutela gauza ezaguna da,

eta sal-erosketa arazoan beti izan dirala trebe guztiok dakigu. Sena ori berez dute.

Ez da arritzeko gerrate bukatu ala Bayona'ko juduek España'ko Industri ta Komertzioan buruntzalia sartu ba-zuten.

Kapitalista aiei eskerrak esan bearra dago joan dan mendean Gipuzkoa'n Industria-lantegi berri batzuek eraiki zirala; eta bai Bizkaia eta Nafarroa'n ere. Eungintza edo "textil" deritzan lantegiak, Mulhouse eta Rouen'dik ekarritako tresna ta langille maisuekin.

Tolosa'ko "La Guipuzcoana". Bayona'ko Mr. Lesperut etxea 1845 urtean zabaldu zan eta lanean jarraitu zuan gutxi edo asko 1872 arte. 1880 urtean oial lagintza utzirik paper-ola biurtu zan eta gaur bere ortan ari dala "Papelera Española" ren esku dago.

Garai artakoak dira, alaber, Billabona, Irura ta Bergara'n iriki ziran oial-lantegiak. Batzuek suntsitu ziran baiñan Bargara beti dirau oialgintzan gallen indar eta ospe irabaziaz.

Silva, Suarez, Gomez, Salzedo et abar izan ziran asiera eman ziotenak. Nafarroa'ko ekonomiari buruz irakurgarri da J. Caro Baroja'ren "*Economistas Navarros*" liburua xeetasun anitzez ausarki ornitua.

Nere eskuetan dut Isabel II bigarrenaren denborako eskutiz-sail bat emengo industri-ugazaba zenbaitek Bayona'ko merkatariet bialduak.

Karta bat, ain zuzen, Tolosa'ko Jose Yurrita poxpolo egilleak 1863 urtean Salzedo anaiei zuzentzen diena lan-gaiak eskatuaz.

Pakezko ar-emanak ala jarraitu dute gu bizi geran egunetaraño.

Bayona eta inguruko lurraldeak 1870 ezker ez badira biztanlez eta industriz ugaritu, alderantzian emengo Euskal-Erriaren iri nagusi ta erriak Bilbo, Donostia, Gazteiz eta Iruña, amar aldiz gutxienez geitu dituzte bere bizilagun eta ondasun iturriak.

Juduen txanponak ez ziran lur elkorrean erori.

Lenago esandakoaz gañera ta berri geiago ta zeatzagoak eman naiez berriz aitatu dugu 1843 urtean Frois, Silva, Blanc et Cie izan zirala Bergara'n oial fabrika eraiki zutenak.

Andik pizka batera bertako jaun eta dirudun batzuei saldu

zien eta bergararrok lagintza berriaz ondo jabetu zirala eta bearran trebe jokatu zutela jakiteko aski zaigu gaur eun urte igarota Bergara'ko oialgintza oparoari begiratzea. Batik bat "Oial-urdiña" deritzana arrapazka saltzen dute España guztian ta tintatzaille eta oial sendotasunean Catalonia'ko oial onenakin berdintzen dira.

Silva Frères Bayonatar juduek Villabona'n ere beste oial lanteria idiki zuten oraindik lanean ari dana Subijana izenaren zuzendaritza pean.

Rodriguez eta Salzedo israeldarrak auek ere garai artan bertan Tolosa'n beste oialgaiezko ola bat jarri arazi zuten baiñan ez zuan aztaren aundirik utzi. Ezagunakoa dugu 1853 urtean Pereyre aberatsak Tolosa'ko Santa Luzi ballaran eraiki zuan "guata" eta alga-doizko berokiak egiteko lantegia. Au urteen buruan Lizargarate familiaren eskutan gelditu zan. Gero txapelgille ospetsua izan zan Antonio Eloseggi nagusi famatua Lizargarate zan amaren aldetik. Txapelgintzaren asiera ez ote zetorkion jatorri artatik?... Nik baietz uste.

Nola nai oar bat egin diteke: Tolosa'ko lurraldea ez dala textil langintzarako emankorra izan. Ikusi dugunez Bayona'ko Lesperut eta lagunak jarritako oial fabrika aundi ta indartsua laister lur jota erori zan. Eta geroztik asi diran oial lantegi geienak arroketan dabilta.

Papergintza da Tolosa'n sendo oñarritu dana. Tolosa eta inguru ko errietan 1843 urtean Lorion prantsesa Etzezarreta'rekin batera Irura'n paper ola berri bat zabaldu zuten. Aurreko urtean Tolosa'n "La Esperanza" zeritzanaren antzekoa.

Beraz ez da gezurra esatea Bayona'ko bankero ta sal-erosle juduak geienak Gipuzkoa'ko industrigintzan zer ikusi aundia izan zutena.

Bizkaia'n ez orrenbeste. Emen aberastasuna Enkartazio aldeko meatzetatik sortu zitzaion.

Meatza erruz ateratzen asita ta burnigai bezela saldurik diruz ornitu ziran. Inlaterra'tik bereziki urre asko etorri zan eta dirutza ori burnigintza ta itxasontzigintzan erabilliaz Bizkai'ko aberastasuna indartu zuan.

X

EUSKALDUNAK SEMITAK OTE GERA?

Ori ere esan du norbaitek, Alegia juduen antze dugula. Ez dut uste egia danik baiñan euskaldunen jatorria dala ta ez dala ainbeste esames zabalduak dira. Gure musika-doñuari ere aienaren antza billatu diote. Elizan, gizonezkoak emakumezkoengandik berezita egotea sinagogako oitura omen da. Makilla itza ebreo "makel" dik datorrela eta abar. Asmaketan asi ezkeru antza dala edo ez dala ez genduke beñere bukatuko. Eta euskaltzale askori kideasun ori ez zaie oso gogoko izanen. Ezen gure artean "antisemitismoa" sarriago arkituko bait dugu judu-zaletasuna baño... Beste kristau erritan bezela.

Bi zertxo pittin baiñan jakingarri azaldu nai dizkitzuek judutarrekin zer ikusia izan zutenak.

Orain eun urte, gutxi gora-bera Pio IX aita santu zala judutar aurtxo umezurtz batekin gertatua. Aur ori Eggardo izenekoa Sarra apaizak jaso zuala bere etxera bizitzera eramanez. Aita Santuak bere babespean artu zuan eta 15 urte bete zitularik Agustino Ikastetxean sartu ta bataiatu zuten Pio Maria izena eman ez.

Urteen buruan Pio gaztea Agustino-Kanonigotan apaiztu zan eta Euskal-Errian bizi zatera etorria arkitzen dugu. Ez au bakarrrik: Aita Pio Maria Mortara andik gutxira euskaltzale jakintsu bihurturik Oñati izan zuan bizi leku. Aren euskal lanak "Euskal-Erria" aldizkarian irakur ditezke; eta oraindik bizi dira ezagutu ta itzaldiak entzun zizkiotenak. Mortara judutar semea kristau ta euskaltzale... "txantxiku".

Beste gertakizun bizigarria Finalli anai juduekin jazorikoa. Ta ixtoritxo au berrigoa dugu, 1950 inguruan gertatua.

Gurasorik gabe geldituak aleman nazitarrak atxilotu zituztelako izeba batek bi gaztetxoak gorde zituan eta segurugo egon zitezen eskola-emalle andereño katoliko baten eskuan ezkutuan utzia.

Oñen etxean bizi izan lau-bots urtetan eta maitasun eta obe bearez kristau bataioa eman zien.

Gerratea bukatu ala ta izebak gertatutakoa jakiñik beregenatu nai izan zituan. Eta emen sortu zan istillua... Andereño katolikoa ama ba'litz bezela bi anaiak zaindu nairik España'runtz eraman zituan ta konbentu ta etxe batzuetan ezkutatu egon ziran. Noizbait gorde lekua agertu zan eta Prantzia'ko agintariak bi gaztetxo en izebari arrazoi eman ez, onek Paris'era itzuli arazi zituan eta emendik Tel-Avi, ra abioez Sion mendira jauzi egiñez... Yave'ren deia zan nubait...

Nun ote dira gaur euskal-giroa ezagutu zuten bi mutil mai-tagari eiek?...

Azkenekoz, gure adiskide bati gertatutako ez bear goibela azalduko dizuet. 1940/45 gerratea bukatzera zihoan. Urte latzak aiek Prantzia'ko Euskal-Erria'n alemanen pean bizi giñanontzat.

Gero ta aztunagoa billakutzen zan hitlerdarren larderia. Eta judu doakabeak izan ziran geienik jasan zutenak.

Zaspi muturreko izar oria paparrean eramatea beartuaz gañera, lotsagarri siñaleztat, asko eta asko presondegietan sartu ta Alemania' runtz karriatu zituzten, Auschwitz, Buechenwald... Dachau'ra?. Nork daki? Ez da geiago izan aien berri.

Donibane Lohitzun'en bizi giñan, ez arriskurik gabe eta gurekin Eibar'tik etorritako lagun bat ibilli oi zan.

Eibartarrok "*Turkoa*" zeritzaien, gizon isil, paketsu ta jende artekoa, euskeraz parra-parra berba egiten zuana.

Zoritxarreko egun batez 1944 urte aldera alemanek etxera billa joan zitzaizkion eta berekin eraman zuten berri txarra barreatu zan. Guk ez genekigun judua-sefardita zanik. Gestapo'k bai ordea!

Noruntz eraman zuten? Eriotza'ra, naski. Ez dut izan geroztik aren berririk. Orrengatik oroitzapenez itz samur eta maitekor batzuek eskeñi nai dizkiot adiskide izan genduen Eibar'ko judutar turkoa, euskaldun aren omenez.

Guztia ez dedin izan illun pozgarri zait esatea Aita DONOSTIA kaputxino musikalaria ospetsuak adiskidantza izan zuala Bayona eta inguruko zenbait judutar sendiekin.

Eta ez ori bakarrik: Betharram'go Aita Bordaxarr'ek Salonikan bildu eta utzi zizkion sefardita kantaz bilduma polita argitaraturik daukala judu-gaztelanezko itz eta musikaz.

Bayona'ko Sinagoga indarrean zegoanean laguntza aundia eman zien Palestina'ko Lur santuaren erriei: Jerusalem, Safed, Hebron, Tiberiades'en senideak bizi zitezen. Alemania'n zeundenoi eta batik bat Errusia'ko Zarismoaren mendean zapaldurik arkitzen ziranoi. Gaur, E. Leon juduar kondairagilleak saminki esan zuanez Bayona'ko Aljama iltzera doa... Euskal lurrean amultsu gorde eta begiratzen dituzten illobietan, euskaldunok gureak zaintzen ditugun aña, España ta Portugaldik igesi etorritako izenak irakurriko dituzute: Alvarez, Mendez, Dacosta, Chimenes, Gomes, Fonseca, Castro, Lagarde, Lambert, Salzedo, Leon, Silva, Pereyra, abar eta abar. Eta an egunen batean agertuko da disdiragarri deitura bat: René CASSIN gudartean Pakearen NOBEL saria irabazten jakin zuana.

Eta illobian Bayona'ko juduen arma-arria: Bots ankadun ega-leio grifoia, Pentautekoaren bost liburuen oroigarri.

XI

JUDUAK BERTSOALDI TA ERESIETAN...

Saiakera labur eta motz ontan gauza asko aitatu gabe edo erdizka esanak gelditu dirana ba dakit. Utsarte aundia litzake ordea, azaletik bederen ez aipatzea euskeraz juduen berri eman duten zenbait bertso ta eresi.

Esate baterako "*Judu Erratuaren kanta*" Euskal-Erria'n ere ezagutua izan zan beste Europa'ko eskualdetan bezela.

"*Ashaverus*" en ipui mingotza Alemania'n sortua guregana eldu zan. R. M. Azkue'k bere "*Cancionero Popular Vasco*"n bildurik dauka. Ahapaldi askotxo ditu guztiak agertzeko. Asierakoa bakarrik azalduko dizuet erasgarritzat:

"Ote da mundu ontan deus ere gai denik
Judu erratuari komparatzen denik,
Batere geldi gabe mundutikan dabil
Langille bat bezala tauliera arturik".

Kanta ori bera Azkue'k bere "*Euskalerrriaren Yakintza*" deitzen IV liburuan ba-dakar.

Geroztik, J. M. Satrustegui euskaltzain argiak Luzaide'n apaiz zala jasotakoa jakin arazi digu zerbait aldatuxea. Eta orobat Louis Dassance jaunak "Gure 'Herria'" aldizkarian, biek, xeetasun geiago eman dizkigute "*Judu erratuaren*" gaia osotuz (1966).

Apaldi bat soilik orri ontan aldatuko dizuet Jududoakabearen ele zaar ura nola guregana eldu ta zabaldu zan erakusteko.

Gure erri xeak ere, alegia, urrikalmenduz begiratu izan ziola "*Ashaverus*" Kalbariora zeramakiten Kristo nardatu zualako, naiz damaturik bizi:

"Israel'go hirian izan niz deitua
Jerusaleme famos hirian sortua
Satisfa bedi, beraz zien ispiritua
Jaunak, ni nuzie, bada, judu erratua.

Ashaverus ori erri arruntak beste izenez Isaac Laquedem deitua. Onen zorigailza Satrustegi'k dion eran, munduz ibilliak diren Judutar guzien zorigailza dela. Erri baten zorigailza...

Chambra deitu zuberitar koplakaria­ garrazki ohiukatzen duen arabera :

Oi gizon penatia, gaizki komposatia

.....
Beti, beti ba-dabilla pausarik gabe munduan...

Oi punizione garratza!

Judu erratuaren itz-neurtuetatik do­nu ta musika arakatu nai baldin ba'duku oso jakingarri zaigu Pierre Lafitte idazle ospetsuak "Gure 'Herria'"n 1957 urtean argitaratu zuana irakurtzea...

Idazlan mamitsu ta sakon artan "*Langue et Musique Basque chez les Israelites*" auek Euskal-Erria'n, Bayona inguruan, bereziki, bizi izan diran xeetasunak azaltzen dizkigu. "*L'Histoire des Juifs de Bayonne*", Henry Leon'en liburu yoria ezagutu bearra dala dio eta ala da benetan.

Bai­nan, Ustaritze'ko maisu aundi ta kalonje ohoragarriak bere aldetik kanta berri bat arkitu du: "*Akiba'ren Kantika*" deitua. Illun eta itz naasik garbi itzuliaz onelako euskal-itzulpena ematen digu :

"Roma'k Israel'i Thora erakustea debekatu zionean,
Akiba'k bilkurak bildu zituen eta Thora erakutsi publikoan.

Luzexkoa da osoan emateko eta orregatik azken lau lerroak bakarrik eske­niko dizkitzuet hebreetar gaia nolakoa dan jakin dezazuten :

"Zeruko boz bat aditu zen orduan,
Doatsu haiz rabi Akiba, ire arima kuxean
Atheratu bait neure batasunaren ohiukatzean
Distingatua haiteke bizitzeko daugin zekulako bizian".

Euskal itzulpenak oso zaar itxura duala esaten digu Lafitte jaunak eta itz bakan batzuek argitzen dizkigu. Ola nola :

Daugiz = qui vient (datorrena)

Kuchean = bereala, aguro... Emengo euskaltzain batzuek eza-gutzen ez duten itza bai­nan Donibane Lohitzun inguruan bizi izan geranok maiz entzun duguna.

Pierre Lafitte'k beste xeetasun zenbait ematen dizkigu, adis-kide dituan Bayona'ko juduta nagusiengandik jasoak.

Casseres, Benharoche, ta Levy odolez eta erlijioz Israeldarrak adierazi diotenez Bayona'ko Sinagogan —ez da aztu bear Espa-

nia ta Portugal'dik etorritako juduek eraikia dala— "sefardita" jatorrikoak, alegia, euskal kutsua duan eresi bat ba omen dute.

Kippour eta antzeko jai aundietan, egun sentian kantatzen dutena... Estella edo Naparroa'ko erriaren batetik etorritako juduek ekarria ote?... Alderantzian, auek an ikasitako izan liteke...

Izena "*Kamti Beachmoret*" du eta neronek musika papera aurrean ipi­ñita abestuta atsegin eta egokia iruditu zait. Eta gure kristau elizkizunetan ez lukeala oiartzun txarrik aterako uste dut.

EUSKALDUNA PALENTZIA-KO EDESTIAN ZEAR

Euskalerriti-k urruti arren, Jainkoa-k ala nai izan da, bioz-ean daramakidan Erria dut.

Euskaldun jaio ta aziagatik, erdaldun erri artean nere apaiz-gintza osoa! Zartzaroen, Gipuzkoa-ratu nintzan, bainan, bearrak Palentzi-ra ekarri ninduan. Emen, bereala, jabetu ere bai aurre-ragotik etorritako euskaldunak ba-zeundela ta, orain milla urte-tan ere izan zirala izen aundikorik...

Kardaberaz-tarra nintzanez (1), euskal-senidetasun arrasto oien aditzera ematea ondo iruditu ta egindako agerkizunen berriz-tea oraingo nere saiotoxoa au. Begi onekoa zaitzutela.

EUSKALDUN ERREGETZA PALENTZIA-N

Ots aundikoa izana degu Palentzia zaarraren izena. Bainan, arabetarren gudate luze ta joerak erabat lurperaturik utzi zuten, garai batean.

Palentzia-ko lenen gotzaien egintzak argia ba-zuten, naiz Toledo-n naiz beste eleiz-batzarretan...

Arabe-gudateak, ordea, zearo ixildu ta izkutaratu zituan aien eta Palentzia-ren izen on eta izateak. Eta ez egun batzuetarako bakarrik... Irureun urte sailetarako arnasikan gabe...

Gau illun luze arrek ager-bide zalantza bat dakarkigu: arabetarrek izandu ote ziran Palentzia austu zutenak, ala Palentziarrek berak, arabeen eskuetan ez uzteagatik, erriari su eman eta kixkaldu zutenak, Asturias-ko mendietara iges egin aurretik...

Irureun urte oien buruan, arabetarren idazki batek auxen digu: Palentzia, alegia, Toledo-tarren mende bizi zana zala.

Lur jotako Palentzi arrek, Burgos eta Leon-go Gotzaietien lan aundirik eman Palentzi-Gotzai-Barrutia zozketan erdibanatu ta berenganatzeko. Ori Kastilla edo Gaztelerriko Alfonso V'garrenaren erregetza garaian egin zuten. Fernando I'gokoak eman zizkien sasi-eskubideetan (pribilijiotan) orrela adierazten zaigu, beintzat.

Orduan, azaltzen da Palentzia-n gure euskaldun Naparroa-ko errege Santxo Aundia. Bera izandu zan, arabetarrek uxaturik, Palentzi-ko uriari pizte ta izate berria eman zizkiona.

(1) Kardaberaz bera ere alde onetara iritxia zanez.

Leenago, Karrion ibaien eskubitik izandu zan erriari ezker aldeko bidea iriki zion. Gotzai-eleizki berriaren babesean, eman zion Palentzi-ko uriari arnas berria. Ala dio, beintzat, 1035'ko Abendua-ren 21'ko, Santxo Aundia-ren aditzera batek.

Palentzi-ri bizitz berria esnatzeko indarra, bere sinismenaren aritik artu zuan euskaldun errege jator arrek.

Ba-da irakur-gai bat, garai arren azalgai zaiguna. Autspeko arri gurituen izardi zaarrari orrela ezarri zien bizi-muin-erne berria gure Santxo-k.

Garai artan, Santxo Aundia gure errege zan, Gipuzkoa Naparroa-kin alkaturik bizi zalako. Ta gure errege eiztaria izanik, basurde baten ondoren, Palentzi-ko leize atari batera sartu zan. An, basurdearentzat azkon-eztana (venablo) zuzentzen ari zan bitartean, Santxo'ri besoa erabat illik (lotan) gelditu zitzaion. Ta, orduan, baita jabetu ere Antoli-n deunaren basa-eleiz atean zegoala: Palentzi-ko Zaindari deunaren eleiz-atean!...

Uste gabe egindako oinpetze arregatik, belaunikatu ta Antoli-n deunari biotzki otoi egin omen zion: beso-illa indartzen bazion, Palentzi-ko Gotzai ta eleizai emango ziela berriz ere leengo itzala. Ta, Jainkoa-k ala nai izan da, sendatu ere bai Santxo Aundia-ren beso-illa!... Ta eskeñitakoa baita ere bete gure Santxo-k.

Orrela, leengo gotzai-eleiz bisigotarraren zaiñetatik eratu zuan Palentzi-ko gotzai-eleiz romanikoa, bere zurezko sapaiarekin; gaur-koa, arrenaren eska ugarituan, geroago egindakoa da.

Ara nola iritxi zan Palentzi-ra euskal arnasa. Ta Santxo-ren seme Fernando I'goak, aitaren bideari jarraitu ezik, Palentzi-ko uri berriari indartzen eta ugaritzen, azitzen, lagundu ere bai.

Aspaldikoa du, beraz, Palentzi-k Euskalerrira-rekiko zer ikusia.

Arrezkero ere, Palentzi uriak ezik. Palentzi-erri-aldeak ere ba-dute euskal kutsuko igurtzi ederrik. Palentzi-erki edo Probin-tziako eleizetara begira besterik ez dago, Berrugete, euskal iru-digillearen arrastoetan, gure kideetasuna ezagutzeko.

SANTXO GAZTELERRIKO AUNDIZKI

Euskal errege Santxo, Leon-go erregea baztaturik, Gazte-lerriko aundizki (Kastilla-ko Konde) egin zitzaigun.

Palentzia uri-berritu ta, Santxo-k jaso zuan Gotzai-eleiza Pon-ce gotzai jaunaren eskuetan utzi zuan.

Egiari beti zor ba-zaio izana, izanari nola zor ez egia?...

Palentzi-k zuzendu zion, bai, euskal errege Santxo-ri izen-bidea; karrika baten kolkoan, baita jarri ere agiria. Ordain zorrarena izan, nunbait!... Palentzi-ko Aldundia-ren jauregirai-

no sartzen du muturra Santxo-Karrikak. Gaurko Palentzi-ko gotzai-eleizak Santxo-k egin zuana dauka oñarri. Gotzai-eleiz oni "eder aaztua" deitu zion Madrigal on Eukeni kanonigoak. Eta etzian gezurrik erantsi, bikaina ta ederra dalako benetan.

Santxo-ren euskal maitasunak, Antolin deunaren ezurretan zain-indartu zuan eleiz arrek, 1321'ko herritzean ere, izandu zuan euskal itzala: Baiona-ko Gotzaia. Urteak, izardi zaarrak herritzeko, onak nunbait!...

Ordurako, Palentzi bere izen onaren jabe zan, berriz ere. Gaztelerriko erregeak ere beren kabi goxoa bertantxen egiñik bai zeukaten... Gainera, orduko gotzai Jon II'garrena ta Jon XXII'garren Aita Santua lagun kutunak ziran.

BERRUGETE

Geroago, Bizkai baztarretik, idazkaritza bidez, Palentzia-ratutako euskaldun baten abizena, Palentzia-n ezik, España ta mundu guzian ere ots aundikoa zaigu: Berrugete-na, alegia.

Aurrezki Kutxa-ren "GUIPUZCOA"-ko, 297 garren orrialdean, On Manuel Lekuona argiak digunez, Berrueta-Berruete abizenaren izen naasturikoa zaigu Berrugete ta Bizkai-ko Enkartazio erriko euskal odola, iñolaz ere.

Berrugete-etan lenengoa, ta gotiko-flamenko margolaritzan iaioa, Pedro izandu zan. Paredes de Navan jaio ta 1503'an Madril-en il zana.

Itali aldean edo ikasia zan. Berak asi zuan Berjaiotz edo Renacimiento edertitza. Bere ekintzarik bikainenetakoak Avila-ko Tomas deunaren eleizan eta Gotzai-eleizan arkitzen dira (emengoa bukatu gabe gelditu zitzaion).

Berrugete-tan izenik aundienekoa, Pedroren seme: Alonso izan zan. Paredes de Nava-n, 1490'n, jaio ta, 1561'an, Toledo-n il zan. Irudigille bizkor onek ere Italia-n ikasi zuan, eta baita Migel Angel'en bizitasunean sendoki kutsutu ere. 1518'an, Karlos I'goak bere jauregi gelako irudigille aukeratu zuan. Bainan, etzan inoren mendeko sagu izateko jaioa, ta, erregea alde batera utzirik, bereala eratu zuan bere irudiki-lantegi, garai artan etzan egarri aundiagorik gizon trebeen artean...

"La mejora" izeneko ooltza (erretabloa) du bere lenengo lanik guri ta txukunena (gaur Valladolid-ko abenda irudi-erakustokian (museoan) gorderik dagona), kutsu berezi bat ezik, ba-du alako ausardikeri bat ere.

"Toledo"-ko gotzai-eleizako abes-gela gueneko aukiak ere bere lanketa arrasto dutenak ditugu.

Bere irudigintzan giza-irudia zitzaion aukerakoena. Ta bere

lanetan bizitasuna nun-nai ageri zaio; batez ere irudi biurkerieri ager azten zien barrumintasuna. Or dago bere "Sacrificio de Isaac", miñ-ageri, esan degun Valladolidi'ko ikustokian, Benito deunaren ooltzan.

Lotsa bildurrik gabe esan gentzake: XVI'garren gizaldiko irudigilleetan bizkorrena Berrugete au izan zala.

Aitona Pedro ta osaba Alonso-ren illoba Inocencio ere, irudigille ta margolari trebea degu (1540-1563 tartean). Espina-ko Praillediko ooltza berea du; Paredes de Nava-ko Santa Eulali-eleizakoa, Bautista Beltran eta bien artean egindakoa; ta Juan de Juni ta biena ere bai San Benito-n. Toledo aldean ere lana erruz egiña...

Berrugete-etan ba-da, oraindik, beste irudigille bat ere: Alonso-ren seme = Pereda Alonso. 1526'an jaioa ta bere aitaren laguntzalle bikaina, batez ere, Tavera Kardenalaren, Toledo-ko Afuera eri-gaixotegiko illobi arrian.

Bizkai-Enkartazio ballerako euskal odola ara noraño iritxi zan. Gaur ere Palentzi-k biotz-biotzean daukan izena Berrugete izena. Izan orren itzalean, gaur ere, ba-du Palentzi-k elkarre bat. Orrela, izen zarra gazte bizi da oraindik Palentzi lurretan; aien arrasto askotxo dago, orren errez aaztuta uzteko...

Palentzi-ko Gotzai-eleizan, Kosme ta Damian-en aldareko, XVI'garren gizaldiko, Matias deunaren irudia Alfonso Berrugete-rena jotzen da, naizta Navarro jaunak Balmaseda-tar Juan-enatzat euki.

Palentzi-ko beste edergarri bat, Berrugete-natzat ematen dana, Gotzai-eleiza atari barruko ateak ditugu, ta ederrenetan ederrak ala ere.

Bainan, Pedro Margolariaren lanik ederrenetakoak, Becerril de Campos-ko Mari donearen eleizan daudenak dira. Ango ooltzari begiratu besterik ez dago, Pedro-ren trebetasuna norainokoa zan jabetzeko. Ooltza osoa Ama Maria-ren bizitz argazki bat besterik ez da. Becerril de Campos ez bai zan erri amuts, biurri ta utsa. XIII'tik XVI'garren gizaldira arte eskubidelaria izana zaigu; gizon azkarrik ere eman zizkion Gaztelerrinari, ta sinismen argirik zertan ukaturik ez, eta aundizki usaikeririk, berriz, zer esanik ez.

Berrugete-tarrak, Paredes de Nava-koak ziranez, nola aaztu beren erria? Beren erri-zaleak eta maite zutenak ziran eta etzuten baztertu. Auntzako ere zuzendu zuten, beraz, lan ederrik...

Ango, aldare nagusiko ooltza —XVI'garren gizaldi erdiz onuzkoa—, ta Berrugete Inozenzio ta Esteban Jordan-en artean egindakoa jotzen dana. Ta bertako ool margoituak, berriz, Pedro-renak.

Geroago, XV'garren gizaldian, judu-eleiz izanaren oinarrien gainean eratutako, Maria donearen eleiz berriturako egindako ooltzak ere Pedro Berrugete-ren bikaintasuna berekin dauka.

ZURBARAN

Ba-da, oraindik, geiago ere. Palentzia-ko gotzai-eleizan, beste euskaldun iaio baten arastoa ere ageri da: Prantzisko Zurbaran-ek margotutako zapi-oialak, alegia.

Au ere Fuente de Cantos-en (Badajotzen) 1589'an jaiotako euskaldun-semea-gure Lekuona-tar Manuel jaun bizkorrak digunez (Aurrezki Kutxa-ko, "GUIPUZCO"-n 297'garren orrialdean). Onen gurasoak Begoña-tarrak (Bilbao-tarrak) noski; ardi ille irabazketak alde aietara eramanak.

Berau zaigu XVII'garren gizaldiko margo-ikastolako trebensuetakoa, ta ez makala gainera, alper auts gabekoa. Bere margozketa bideak pralledietara jo zuten oso-oro: Mertzedario, Jeronimo ta Kartujo pralledietara. Pralledi oiek ba-dituzte arren lan eta pitxi ederrik. Guadalupeko prallediak ez dauka aazturik —eta guztiak aipatzen dutena—, onen "Cabañuelas Aitaren Meza" miraritsu baten ikuski edo kuadro eder askoa. Bizirik dagola dirudi...

Zurbaran-en joera Andaluzi alderakoa izandu zan eta Ribera ta Murillo-ren zatar-gozotasunen ikuttu apur bat ere erantsi zien bere lanei.

Gizon jakintzuen ustetan, bi joera aldi-baditu Zurbaran-en margolaritzak: Lenengo saiokoak, Ribera-ren illunpetasun apur batek joak.

Garai aretako bere lanik ageri da munduan zear: Paris-en, Louvre-ko Ikustokian, Dresden, Sevillan; Jerez-ko Kartujo pralledian, Berlin eta Madrillen, Prado-ko ikustokietan ugari asko berriz. Ta, bigarren saiokoak?: ikusi leizke Sevilla, Munich eta Budapes-ko ikustokietan.

Urteak aurreratu zitzaizkionean, Espāni-ko errege, Pelipe IV' garrenak, bere Jauregi-gelako margolari izendatu zuan; garai atako, gizon ospatsuenen bidea...

Bere barroko giroan, irudiei erantsi zien argi-illunpe zantzutasun gozo ta ederrik Zurbaran-ek!

Granada-ko uriak, 1954'garren urtean, eratu zuan Zurbaran-en lan-agerketa bat. Ta baita jaso ere aren lanen edertasunak!

PALENTZI URI TA ERRIETAKO BESTE EUSKAL ARRASTOAK

Amaseigarren gizaldian, 1516'tik 1548'ra, Palentzi-n, beste euskaldun irudigille bizkor bat ere azaltzen zaigu: Balmaseda-tar Jon.

Gaztelerrian lan asko egiña ta Berjaiotz-edertiari bideak irikitzten asko saiata. Gotiko zantzulari arren, eder giro aundi antzera, italiar jazkera zaletasunpean babestua.

Oviedo, Palentzi ta Leon-ko Gotzai-eleizetan ditu, geienbat, bere lanik beteenak. Palentzi'ko Gotzai-eleizan, aldare nagusiko gurutzpide-ooltz gallurreko gurutz-iltzatua Balmaseda-rena degu.

Euskaldunontzat, Palentzi-k ba-du, oraindik, beste berririk. Bai: Bizkaiko Jaun Lopez de Haro Diego-k, alegia, Uri onetako Prantzisko deunaren eleizan izan zuala bere illobia, gaur Josu Lagundi-koen eskuetan arkitzen dan eleiz zatartu onetan.

Palentzi ez da, beraz, ain baztar erri izan euskaldunontzat... "Berrugete Elkartea"ri jaio zaio "AMAYA", euskal izeneko, beste Antzerki Elkartea bat, Palentzia-n. Eta baita 1377 neurkiko "Amaya" mendi, ta "Cuevas de Amaya" izeneko erria ere, aren alboan; Herrera de Pisuerga-tik Aguilar de Campo-ra bitartean, Alar del Rey-en parean, eskubi aldera, Burgos aldera, alegia.

Gaur, oraindik, Palentzi-n, naiz Uri ta naiz Erkia-n, euskal azien ostoa asko agiri dira. Orretzaz jabetzeko naikoa da urrutizkilarien izenkariari (listiñari) begiratu lapur bat ematea.

Palentzi-ko Uriak, berak bakarrik, dauzka euskal izeneko lau karrika: Santxo, Berrugete, Becerro de Bengoa ta Martinez de Azcoitia-enak. Eta, ori asko ez ba-da, baita 160'tik gora ere euskal abizenak bere urrutizkin dutenetan. Oietzaz gainera, ara beste zenbat arrasto euskaldun:

—El Vasco, ta Tapia abizenekoen ekar-eraman elkar-teak (transportes),

—Zurita-ren lege-bidelaritzallea (gestoría),

—Algorta - Arrieta-ren ikusmiñ-eratzallea (Oficina de Turismo)

—Ezquerria ta Garvi-ren bi lantegi-ola,

—Munguia-ren jostundegia (confecciones),

—Barrenechea-ren erreki-gai etxea (estanco),

—Gurpegui-ren ur-garbikari ola (lejías),

—Arangüena-ren etxegintzkaiak (material de construcción),

—Mugica - Arellano ta laguneren lur langintzkiñ-etxea (Maquinaria Agrícola),

—Font de Bendoya-ren sendakin etxea (Farmacia),

—Arrizaba, ta Lasarte-ren oñetako etxe bi (tiendas de calzado),

—Bianchi-ren indar lotzailkiak (condensadores),

—Gurpegui-ren jangai-etxea (comestibles),

Palentzi Erki-ko urtuizkiñ dutenetan, berriz, 130'tik gora ditugu euskaldun abizenak. Eta, ara emen, izenkari oien orrialdetako, euskaldun abizenpetan azaltzen diran beste ezaupide batzuek ere:

Ampudia-n, "Entrecanales eta Azcarate-ren abizeneko ollategi aundia (granja),

Grijota-n, Azkoitia Anai ta Lagunen Irin-Ola (fábrica de Harinas),

Venta de Baños-en, Echegaray-Basterrechea-ren ekar-eraman elkarte, Acha-Landabaso Bilbao-ren Oial Etxea (Tejidos), ta Churruka-ren karrika.

Carrion de Condes-en, C. de Garay-ren Enparantza (Plaza),

Saldaña-n, Garay-ren karrika,

Quintana del Puente-n, "La Vasca"-ren otordutegi-Ostatua (Parador),

Euskal abizeneko jan-edan etxeak (Bar-Restaurantes): "Chiqui"-rena Barruelos de Santullan-en; "Goñi-rena" Grijota-n; "Olea"-rena Castejon de la Peña-n; "Berrugete"-rena Paredes de Nava-n eta, gainera, Berrugete-ren izeneko Sarbide-Zabala (Avenida).

PALENTZI-KO EUSKAL ABIZEN SORTATXOA

Eta, orain, zirindaran, Palentziko Uri ta errietan nolako euskal abizenak azaltzen diran adierazteko, urrutizkin-izenkarietan ikusten diran bakoitzetik bana, ikus dezazuten, orrenbeste urteen buruan, zeñen aldaketa txikia itxatxi zaien, eta zeñen zuzen gorde izan dituzten beren esakera la berezitasun zantzuak:

—Achalandabaso, Aguirre, Aguirrezabala, Aguirrezabalaga, Agonicha, Aizkorbe, Aizpurua, Alaiz, Alberdi, Albistegui, Algorri, Allende, Arana, Arambarri, Arambillet, Aramburu, Aramendia, Araira, Arangüena, Ardura, Arechabala, Arellano, Aristin, Arnaiz, Arregui, Arriaga, Arrieta, Arteaga, Arteche, yarza, Ayala, Ayestaran, Azcarate, Azcoitia, Azpeitia, Azpeleta, Aristegui.

—Bacigalupe, Balmaseda, Barrenechea, Bazterrechea, Bazterrezhea, Beain, Bedoya, Bangoechea, Berrueta, Berrugete, Bianchi, Bilbao, Bustinduy, Bustinza.

—Cosgaya, Chávarri, Churruca.

—Dorransoro.

—Ecenarro, Echebarria, Echegaray, Elorduy, Ereño, Escobar de Ochotorena, Ezquerria.

—Font de Bedoya.

—Gago, Garay, Garran, Garvi, Goñi, Gorospe, Goya, Goienechea, Gurpegui.

Ibarlucea, Iraolagoitia, Irigoyen, Iruza, Isasmendi, Isasi, Izurquiza, Izuzquiza.

—Lacalle, Lambea, Landa, Landabaso, Larrea, Lasarte, Laso, Laya, Lecuona, Lerena, Lezcano, Lizaso, Loinaz.

—Maestegui, Magadi, Maisterrena, Manterola, Manteola, Marcilla, Marrugañ, Martinez de Arana, Martinez de Azcoitia, Matilla, Mendiguchia, Mugarza, Múgica, Munguia.

—Ochotorena, Olaso, Olagorta, Olea, Onecha, Orbegozo.

—Pérez-Olea, Pérez-Salazar.

—Ruiz de Gopegui.

—Sagasta, Salazar, Sarasola, Solegui.

—Tapia, Trueba.

—Ugalde, Ugarte, Ureta, Uribarri, Uriarte, Urien, Urieta, Urcaregui, Urquiza, Ursua, Usumariz.

—Vergara, Velasco, Villoria.

—Yañez, Yarritu.

—Zabaleta, Zamora, Zorita, Zuazagoitia, Zubimendi, Zulaica, Zurita.

Ara or, 45 eratako abizenak, izenkarietan azaltzen diran gixan. Eta, ori guzia urrutizkin dutenen izenkarietakoa bakarrik. Gainera, ez aaztu, guenik barren eta zearrik zear, Palentzi-errialde osoan, ageri diranak, dirala.

Ba-dakigu, gaur artean, urrutizkiña gutxiren eskuetara irixten dan tresna zaigula Palentzia-n. Beraz, sei edo zazpi aldiz geiago joagatik, ez det uste ankarik sartuko degunik gezur saskian.

Orrek esan nai diguna ez da besterik: euskaldunon Palentzia-*rekiko* artu-emanak ez dirala atzokoak eta aín gutxi, gaur, oraindik, orrenbesteko indarrean bizi ba-ditugu.

Gotzai euskaldunen arrasto paltarik ere ez dauka Palentzi-k: 1853'gn. ill zan gotzai Laborda-ren illobiak ala digu, beintzat. Ta, orain 25 urte aldian ere, Palentzi-n, bizkaitar gotzaia izan zuten: Lauzurika-tar Xabier.

EUSKALDUNAK ETA FORMISTA-KO MARTIN DEUNAREN ELEIZA

Fromista 1.800 biztanle inguruko errixka bat zaigu. Milla urte gerturatzen dijoazte bide-arte edo bide jotze bat zala. An alkartzen ziran mendietara ta Santiago-ra (Galizia-ra) zijoazten bideak; biak "prantses" karrika izenekoan biltzen ziran.

Gutxi gora-bera, Palentzi-uritik, ogeita amaseien bat aneurkinetara dagoan erria...

Fromista-k gauz eder asko ditu bere itzalpean, bainan, danetan ederrena Martin deunaren Eleiza, 1944'an, abendar oroitza-pean sartua (monumento nacional), ta, jakintsuak diotenez, erro-maniko edertitzakoan liraiñ eta lerdenea.

Bere bikaintasun ori ez du atzokoa, naiz 1894'an berriztu ta txukundua izan!...

Euskaldunak, 1035'an egindakoa dezu eleiz eder-galant ori, ta ez edozeinek ere: Naparro-ko errege Santxo Aundia-ren emazte erregiñ Mayor edo Munia andreak egiña.

Eleiz orren barru, gain eta aldamenak, berdin eta bere arri-

-abereak, badauzkate edergarrik: arri-irudikiz, guri orraztuak arkitzen dira.

Asturias-tik ekarri zituan lekaimentzako egindako prailledia-ren eleiza dezu!

Judutarrik ba-zan, garai artan, Fromista-ko errian. Prailledia etzan, beraz gaizki etorriko, Jainko-bideak irikitzeo, bati baiño geiagori ere...

Gaur egun, prailledirik ez dago Fromista-n; aien eleiza bai, ordea, ta sendotasun oso-osoa, edergarri baten antzera!...

Berri au gabe, agerketa oni anka motz zeritzaion. Gizonik ezetz, bide onak erakutsi dituzten emakumerik ba-ditu Euskalerrri-k. Gaurkoak ere utziko al dizkigute ondorentzat!...

BUKATZEKO, BESTE GERTAKIZUN BI

Oraindik ez dira egun asko jabetu nintzala: Torquemada errian, euskaldunek eratzen dituzten jaialdi batzuetzaz.

Bizkai-tar asko xamar dira, nunbait, erri orretara, udaratzea joaten diranak.

Barakaldo-tarrak, batez ere. Torquemada-ko, aspaldiko, jau-regi etxe aundi batean antolatu dituzten amar bizi-lekutan bakarririk amar sendi euskaldun alkartzen dira udaratan. Tripa-zai onak ezik, jolastunak ere bai omen dira; ta, Alkate jauna —erri-ko pesta edo jaiak Mateo deunaren izenpekoak dituztenez—, Ama Birgiña Agoztu-koaren, aste osoa jai ta pestari gertatutzero loxindu omen dute. Ta erria nola alaitu ez?... Sei-zazpi urte bai omen dira jarri zitutzela jai oiek, eta gero ta indar aundiagoarekin alaitzen omen dituzte.

Ta Palentzi-ko euskal-usai miaketa oni atea ixteko, ara, orain bi urte, Azarora-ren 18'gan. gertatutakoa. Alemania-tik Palentzi-ko mixiolari Apaiztegi batera iritxi zan eskutitz baten zuzenbideak, ara nola zion: "An dem Verkehosverein.—Palencia-(VASKEN-LAND)", alegia: "Paletziko Ikusmiñ-eratzalleari (EUSKALERRIA)", ori da, gure izkuntzan, esan nai duana.

Ezpazenekizun, jakin zenen luzea dan gure Euskalerrria!...

SUKIA-TAR JOXE MARI-K.

KRISTO EUSKALERRIARENTZAT KALTEGARRI?

1.—ARAZOA

Aspaldion entzuten dogu, len sekula be entzuten ez genduana: Euskalerrriarentzat kristau-sinismena, Kristo bera, kaltegarria izan dala.

Zergaitik lenago ez zan entzuten olakorik?

Bear ba'da, Eleizeak gogorkeriz jokutzen ebalako, eta olakorik zabaltzen ebanari eleiz-zigorren bat ezarten utsalako. Orduan eleiz-zigorrak ba euken indarra.

Edo gaur larriune bero baten aurkitzen garalako. Eta olako aldietan asko esaten da eta askori erruak ezarten jakoz. Estu dago-nari edozer esanda be parkatu egin bear izaten jako.

Edo arako *Vasconia* eritxon liburu tamalgarria agertu zalako. Ez dakit asko zabaldu zan liburu a, baiña antxe lenengoz argi agertzen ziran olako tan antzeko salakuntzak.

Dana dala, arazoa argitzeak ez dausku kalterik egingo. Eta Eleizeak olako gaizorik izan ba'dau, gaizo ezaguna erdi-gaizo izango da eta osatzeko bideak ugariago.

2.—SALAKUNTZAK

Eleizea kaltegarri, Kristo kaltegarri... Ori da entzuten doguna. Baiña salakuntza orokor au, zatitu ta berezitu dagigun.

Euskaldunak iñoz ez ei dira izan kristiñau, gure Errian ez ei da sartu kristiñautzea. Gure oiturak eta barruko izaerea Kristo'ren irakatsiakaz iñoz ez ei dira alkartu.

Geiago oraindik, euskaltasuna eta kristautasuna, ain ezbardiñak izanik, ez ei dira iñoz alkartu be egingo.

Kristautasuna Euskalerrira etorri zanean Jerusalem, Atenas eta Erroma'ko jakintzakaz bat egiña etorri ei zan, eta orregaitik, euskaldun bat kristiñau egitea Juda'tar Grezia'tar eta Erroma'tar egi-tea izango litzake eta era batera euskaltasuna iztea.

Politika-gaietan ei dauko kristautasunak oiñarri jartez ta joke-ra berezi bat: aginpide batua, eta au bai Errietan baita Eleizan

bertan be. Eta euskaldunak ez dogu inoiz izan olako aginpide baturik. Erdiarora begiratzen ba'dogu, bereala ikusiko dogu ori: euskaldunak batu barik, beste erriak batuta edo batzeko bideetan, eta Eleizea bera be Erroman buru bakarra daukala, mundu guztian bat izanik.

Gizarte-bideetan, euskalduna bakar-zalea da eta batasunik aundi-aldierdiak izan ditu. Kristautasuna, ostera, monolitikoa ta batu zalea da.

Lan-arazoetan, Eleizea domu-zalekeri edo kapitalismoagaz ondo ezkondu ei da, eta euskaldunak ezin onartu bide ori, eta domu-zale izan diran euskaldunak (gaur be ba dira) euskaltasuna galduez doaz.

Kristautasuna proselitista edo bazkide-billatzaile izan ei da, eta ori bere iraslearen aginduz, eta euskalduna mundu-zale ta ibilte-zale izan arren sekula ez da izan proselitista, beti pentsatu dau euskaldunak jaio egiten dirala, ez egin.

Azkenez, kristautasuna imperialista agertu dala diñoe, eta euskalduna ez. Erdiaroan eta gero laterri kristiñauak, Erroma jausi zan ezkeru beti, inperio billa ibilli dira, baiña Euskalerrriak ez dau izan olako tentaldirik.

3.—ERANTZUN BIKOITXA

Onela auzia agerturik, ikuspegi bitatik aztertzea egin bear dogula uste dot, bata kristautasuna bera kontuan artzen dala, bestea kondaireari begira. Eta somatzen dodanez, kondaira aldetik inoiz izango dogu kristiñauok "neure erruz" esan bearra.

3.1.—Eritxi-aztertzea

Euskaldunak inoiz ez dirala izan kristiñau diñoe. Eta kristiñau oso-osoaz izatea esan gura ba dabe, egia da. Inor ez da oso-osoan kristiñau, kristiñau izatea dinamikoa da eta bizitza guztian gagoz kristiñau egiten, erriotzara urreratue ez kristiñau egiten goaz. Euskalduna ez ei da inoiz kristiau izan, baiña ez geiago Andaluzi'arra, edo Erroma'tarra edo Grezia'arra edo Juda'tarra bera, eta ez geiago Txina'tarra.

Inor ez da ba kristiñau osoa, eta ez dago munduan erririk oso-osoan kristiñau egin danik. Erriak eta gizonak kristiñau egiñez doaz munduan zear.

Ba daukaguz Euskalerrrian, esaterako, gaur be, sorginkeriak eta olako sinisteak, eta euskaladun-fededun izan arren, gure fedea ta egiteak beti ez doaz batera.

Ba ditu euskaldunak, euskaldun lez, jokera onak eta zuzenak. Kristiñau izateak ez dautsoz kenduko olako bide zuzenak, orreitan euskalduna berez izango da kristiñau. Eta ezin ukatu gure izaereak orrelako zeatztasun asko dituanik.

Ba ditu, baita, euskaldunak jokera txarrak be. "Chauvinismo" utsean jausi orduko, geure buruak aztertzen jakin bearko dogu. Baiña jokera txar orreik ez dira bearezko euskaldun izateko.

Esaterako, gure asabak jainko askoren gurtzaileak ba'ziran, ez degu esan bearko euskaldun izateko ori onartu bear dogunik. Jainko bakarra ezagutu arren euskalduna, euskaldunago baiño ez da.

Edo egin dagigun euskaldunak ezin alkartu izan dirala. Alkartzera joteak euskaltasuna kenduko ete dausku?

Kristautasuna gure artera etorri zanean, egia da, kultura edo jakintza batzuetan gizatuta etorri zan, esaterako Judea'n, Grezia'n, Erroma'n... Baiña onetan iturri garbira joan bearko degu uraren billa. Ebanjelio'tik artu kristautasuna. Ez da lan erroza, ebanjelio-liburuak idatzi ebezanak be kultura bat euker ezkeru, eta ulertze onetan gidari ditugun gizonak be euren kultura dauken ezkeru, baiña or gure lana, Kristautasuna beti da billatze bat eta ez ziur bein betiko lortuta daukagun gauza bat.

Batez be Vaticanoko bigarren eleiz batzar ostean ba daukaguz olako billaketak egiteko eskubideak. An bai agertu zirala jakintza askotan kristiñautasunak ditun olako arazoak.

Politika baturako oiñarria jartzen dauala kristiñautasunak entzun dogu, eta ori be euskaldunen jokereagaz ez dala alkartzen.

Politika baturako jokera ori, neure ustez, ez da Barri Onak ekarri dauskuna. Beste iturriren bat izan bear dau orrek, eta izan leike Erroma'tarren ostean arako Basati areek ekarria.

Bakoitxaren nortasunari eta guztien batasunari indarra emeteko, ez dot uste kristiñautasuna baiño "sintesis" obarik egin danik.

Gizartearen betiko arazoa da: azkatasuna ta legea, nortasuna ta gizartea, askotasuna ta batasuna, bardintasuna ta menpetasuna... Baiña arazo ori argitzeko, bai Euskalerrrian, baita mundu guztian be, ez da Barri Ona baiño irakatsi ederragorik sortu.

Orixe da, ain zuzen be, guk euskaldunok beti, ez gitxiago gaur, bear dogun argitasuna. Zelan nortasuna galdu barik norriak eta sendiak alkartu, zelan euskaltasuna galdu barik gizartean sartu. Eta gaur ain biziro agiri dan krisi onetan Kristo'ren "sintesis" a laguntzaile izango dogu.

Kristiñautasuna monolitikua eta gu bakartzaleak ei gara.

Bakarzaletasun ori geiegi ez ete da erakusten? Antxiñatik gagoz jakintza askoren bide-kurutzean eta alde guztietatik artu doguz eragiñak. Eta euskaldunok errez artu doguz besteen izakerak le-nengo geuretuta. Zabalak izan gara, baiña geurea galdu barik. Eta

kristautasuna monolitiko agertu ba'da laterri askotan, ori gidatzeko era bat izan da, ez onena. Gure artean beste era batera sartu da kristautasuna, monolito barik, eta orregaitik zuzena izan ledike eta da.

Kristiñautasuna, kapitalismoagaz batu ei da. Ez ostera euskalduna. Euskaldunak domu-zale egiten diranean, euskaltasuna galtzen ei dabe.

Nork esan dau, baiña, kristiñautasuna kapitalismoagaz bat datorrela? Ori esaten dabena, sekula kristiñau izan ezin leitekezan kapitalistak euraq dira. Kristiñautasuna gizarte-zaletasunaz (sozialismoagaz) askoz obeto alkartzen da kapitalismoaz baiño. Ori ikusteko Barri Onari begiratze bat egitea naikoa izango da.

Euskaldun kapitalistak euskaldun txarraq dirala esaten ba'dogu, kapitalista kristiñauak be kristiñau txarrak dirala esan bearko dogu. Orretan batera datorz ba euskaltasuna ta kristautasuna.

Ez da euskalduna iñoren izerdiaz biziteakoa, ez da ondasunak pillatzen ibiltezkkoa, ez iñor lanperatuta eukitekoa. Ez kristiñaua be, Barri Ona onartzen ba'dau. Eta onartzen ez ba'dau ez da kristiñaua be, Barri Ona onartzen ba'dau. Eta onartzen ez ba'dau ez da kristiñaua, naiz ta eleizan aurrenengo egon.

Kristo ez da agertzen aundi-zale ta nagusi, otsein eta naketsu baiño. Eta ori da guztiok ikasi bear genduken ikaskizuna. Gaurko kristiñau askok ez dautsoela jarraitzen? Ori ez da kristautasunaren errua, gizonena baiño :

Kristiñautzea proselitista ei da, ez ostera, euskalduna. Proselitista izatea kristau-bidean uts aundi bat dala esan bear dogu. Kristiñauak, mixiolariak esaterako, ez dau joan bear erriak beraganatzen. Ez. Kristiñauen zeregiña erriak eta gizonak zuzentasunera ekartzea da eta zuzentasunaren bidez Jainkoaganatzea. Euskaldunak ez dira iñoz izan proselitista, otsein baiño. Eta Kristo be otsein lez agertu zan, ez erriak menperatzeko.

Izango ziran orretan be gizonen utsak, esaterako Amerikak kristatu ziranean. Bai-Uts orreik ez dira Barri Onarenak, Barri Ona txarto ulertu eben gizonenak baiño.

3.2.—*Kristautasuna Euskalerraren kondairan*

Eritxiak apur bat aztertu ondoren, begiratu dagigun gure kondairea. Eta onetan be oinkada bi emongo doguz: Kristautasunak ekarrita gure kondairan agiri diran onurak eta kristiñauen jokabide gure kondairan.

3.2.1.—*Kristautasunaren onurak gure kondairan*

Gorrotoa izan da erri zarren arteko gaizo zarra eta gure Erria

be ez da gaizo ori barrik aurkitu bere kondairan. Gorrotoa alboerriakazko artuemonetan. Gorrotoa barruko erri-arazoetan.

Baiña euskaldunak izan gura ba'dogu, gorrotatzaille izan bear ete dogu? Ez, orixe. Gorrotoa osatu bear dogun gaizo edo eria dogu.

Eta orixe da Eleizeak guri ekarri euskun onura bat.

Ez eban kristautasunak aztikeririk egin, ez eban gabetik goizera gorrotoa kendu, baiña bai orretarako gau ta egun lan egin.

Gogoratu dagigun Estibaliz, ez lan bakarra dalako gorrotoa kentzeko bidean, ezaugarri lez bakarrik.

Erdi-aroan gure Errian gorroto gogorak eta zarrak ziran, batez be aide nagusien artean. Aundikien artean obeto esango genduke. Zenbat eriotza, guda, alkar-jote ta odol-ixurte anaien artean!

Baiña euskaldun areek kristiñauak ziran, eta urtean bein Estibaliz'en eta orrillaren batean egiten eben euren alkartze ta baketze-eguna.

Lenengo guztiak eleizara eta an lekaideak egiten eutsoen itzaldi gogorra entzuten eben: alkarrari parkatzeko, anaiak zirala, Kristo'k be parkatu ebala...

Eta mezatatik berotuta, irdartuta eta fedetuta urteten eben. Euren sinismena zan Jainkoak zuzentasunaren alde jokutzen ebala, eta zuzentasuna agertzeko bidea burrukea zala. Burrukan nagusi urteten ebanak Jainkoa eukan lagun, errazoa eukan.

An joaten ziran landara, aitabitxiakaz, izkilluakaz, alkar iltera, euren ustez Jainkoaren epaia artzera.

Ez zala bide zuzena? Egia da, baiña bide orretatik, apurka, gorrotoak kendu eta anaitasuna sortzera jo eban kristautasunak.

Gero bake-aldiak. Asteak egun gitxi eukazan guda egitekoak, eta urtean barruan be garizuman, abenduan, jaietan... gudea galazota egoan. Zerbait egin bear biotz basatiak baretuteko.

Euskaldunak banan ibiltzen zaleak ikusirik, kristiñau izateak alkartzea eskatu eutsen. Eleiz-aurrean egiten ziran batzarrak eta erriarteetako batzarretan be ez egoan urrin kristiñautasuna.

Egia da batzarretan abaderik ez zala sartzen, galazota eukan. Legegizonik be ez. Baiña batzarren kristiñautasuna ukatzerik ez dago orregaitik. Euskaldunak ain bearrezko eben alkartasuna lortzeko onuragarri izan zan kristiñautasuna.

Ba ziran euskaldunen artean beste eritxi oker asko be eta orreik zuzentzen lan egin eban kristiñautasunak. Gogoratu sorginkeria.

Sorginkeriaen aurka gogorregi jokatu eben, euskaldunak ez ziran kristiñauak. Or egia da. Eta sorginkeria oso-osoa kendu barik daukagu. Ori be bai. Baiña orretan kristiñautasunak, eleizak, baso-eleizak, abadeak, lekaideak... egin dabe lana.

Eta, azkenengo onura lez gogoratu bearko dogu; kristiñau-

tzeak, orokorra izanik, mundura begira jarri gaitu. Berez da euskalduna ibilte ta arrisku zalea, baiña kristiñau izateak ekarri dautson maitetasun orokorra onuragarri izan da. Norberetasuna galdu barik, gizadiaren anaitasunaren aurrean jarri gaitu.

3.2.2.—*Kristauen jokabidea*

Kristo ta kristautasuna onuragarri izan arren, kristiñauen jokabidea ez da beti izan onuragarri euskaldunentzat, iñoz kaltegarri be bai.

Onetan be, kondaireari begira, oinkada bi emongo doguz, lenengo alderdi txarrak eta gero onak azterturik.

Au bai ba dala ezpaiko puntua! Kristo'ren izenean lan egiten daben guztiak ez dabe Kristo'ren lana egiten! Emen gizonen pekatuak parkatu bearko ditugu. Lenengo agertu eta jakin, gero pekatu barik dagonak lenengo arrikadea jaurti al izango dau! Eta azkenez bide ta eritxi okerrak zuzendu.

3.2.2.1.—*Alderdi txarrak*

Kristautasunak erakunde edo estruktura bat bear eban eta Kristo'k berak emon eutsan erakundearen oiñarria, bidaliak Kepa buru zala bialdu zituanean. Gero erakunde onek indarra artu eban eta Erromatarren agintaritzeak zituan antzak artu zituan, batez be Konstantin agintaria ezkerro.

Erakunde orretan sartu bear izan eban gure Erriak be, eta ortik etorriko dira ezbear asko.

Erroma'n gizatutako Eleizea etorri jakun, eta indartsu etorri be. Eta lenengo ta agirien agertzen jakuna izkuntzea bera da. Zergaitik eleizkizunak gure Errian latiñez? Beste errietan be olakorik jazo zan, baiña orrek ez dau zuritzen okerkeri ori.

Gogoratu dagiguzan Zirilo ta Metodio'k eslavo'tarren artean izan zituen goraberak. Eta arein sendotasuna ikusirik Erroma makurtu jaken eslavo'tarren izkuntzan Barri Ona zabaldu ta eleizkizunak egiteko.

Antzeko goraberak, eta sakonagoak, izan dira beste errialde batzutan. Gogoratu Txina'ko malabar-oikunen jasoerak.

Emen ez da olako gorabera asko izan azken-urte oneitara arte. Baiña latiña erriai ezarri-gurea Erroma'ren jokabide lotsagarria izan da.

Eta ez latiña bakarrik. Erroma-antzeko izkuntzak agertu ziranean, eta oraintsura arte, naikoa burrukarik izan dogu euskerea eleizan sartzeko. Eta oraindiño be ba dauka gu naikoa zeregin. Onetan erbesteko eleiztarrakaz naikoa burrukarik izan dogu eta gaur be ba dogu.

Erakunde orrek ekarri euskuzan gotzaiñak be.

Antxiña baten euskalerriko leiñuak kontuan artuta jokatu eban erakundeak, eta ondo-ondo ez egoan baiña ez ain txarto be.

Autrigoiak, Nerbion-ibaiaren ezker-aldekoak, Valpuesta'ko gotzaiñaren ardurapean egozan. Karistioak, Nerbion eta Deba'ren bitartean bizi ziranak, Kaligurri'koaren menpean, Deba-ibaiaren eta Bidasoa'ren artekoak, Barduloak, Iruñakoaren eleiztar ziran, eta besteak Baiona'koarenak. Leinuak aintzat artu ziran, baiña ez euskaldunak.

Baiña erakundearen jokerak geroago ta okerragoak dira, gaur arte.

Auñamendi-inguruan jarri daben mugea onartu dau erakundeak, eta, orrelan, lenengo, erri lez zati bi egin gaitu. Samiña zan laterriak ori egitea, baiña ez egoan gure esku. Samiñagoa, gaur be bai, eleizeak be ori onartzea, Erri bizi bat zatitzea.

Iparaldeko ta Egoaldeko kristiñauak gara ba, euskaldunak guztiok izanik.

Egoaldean lau errialde geratzen giñan. Lentxuago Goterki bi egozan: Iruña'koa ta Gazteiz'koa. Gero, Gazteiz'koa iru zati egin zan eta oneitatik bi, Bizkaia ta Gipuzkoa, Burgos'ko goi-gotzaiñaren menpean dagoz, Araba ta Nafarroa, ostera Iruña'koaren menpean. Zergaitik ori? Zertarako? Euskaldunak alkartu ez daitezkan, Erri bat izan ez daitezkan. Eta Eleiza'koak ez diran indarrak orretarako bultz egiten dabelako? Au lotsagarria da. Zatitze onek bide-ratze bat eskatzen dau. Zelan?

Lenengo, egoaldeko Euskaldun guztiak Iruñako Goi-Gotzaiñaren ardurapean izan bear dabe, naiz ta gaur Goi-Gotzaiñak aginvide aundirik izan ez. Eta Iparaldeko guztiak Baiona'koaren ardurapean.

Urrengo, gotzain euskaldun guztiak euren batzorde euskalduna osotu bear dabe, mugaren alde dirala bietakoak kide, eta batzorde orrek bere buruaren jabetasun osoa bear du, gorago Aita Santua baiño beste agintaririk ez dauala.

Eta erakundearen beste uts bat gotzaiak izendatzeko erea izan da. Zergaitik Euskalerrian ainbeste gotzain erdeldu? Oso gitxi dira, izan ditugun euskaldunak, eta euskaldunak izan diranak be ez gitxi gure Erriaren arerioak. Ez ditugu onetan estutasun eta burruka-aldi makalak izan abade ta laiko euskaldunak!

Erri bakoitzean bertako gotzaiñak eta abadeak jarri bear ba' dira, zergaitik ukatzen jako Euskalerriri eskubide ori?

Gauzak gaur, burruka egin ondoren, pizka bat aldatu ta obetu dira gai onetan, baiña Eleiza'ko arduradunak, zuzen jokatu gura ba dauke zertan lan egin. Eta gure Erriak sinismenari eutsi bear

ba dautso, orain artean baiño zintzoago ta askatasun geiagoz jokatu bearko da.

Erakundearen barruan sartzen ditugu abadeak be. Eta oneek zer? Erriari onuragarri izan ete jakoz?

Abadeak asko dira, eta askoren artean guztietarikoak izaten dira. Baiña Euskal-abadedia, burruka-aldietan, erriaren ondoan izan da sarritan, lentxuago ta gaur beintzat. Bosteun ziran guda-ostean erbesteratuak eta gaur be zigortuak eta espetxeratuak ba dira. Berba egin dabenean argi ta garbi egin dabe, naiz ta gotzaiñak iñoz aurka izan eta zigorrak artu bear.

Abadegaien ikastetxeetan be izan dira alderdi txarrak eta ez makalak. An artzen zan jakintza ez zan euskaldunena, erdeldunena baiño.

Abadegaiak euren etxeetatik euskaldun urtetan eben, baiña andik erdereka ikasita eta sarritan euskerea ta euskal-kutsu guztiak galduta etorten ziran.

Ez da aldi guztietan bardin izan. Esaterako guda-aurrean obeto lan egiten zan. Kardaberaz'tarrak ziñeslari. Guda-ostea, txarra izan zan, euskaltzaleak etxeetara be bialtzen ziran. Baiña ori ta guzti be, ango jokabidea erri-arazoetan ez sartzea zan. Abadeak motelak urtego eben ba, baiña ez Erriaren arerio be. Geroko bizitzeak erakutsi bearko eutsen Erria non egoan.

Gaurko abadegai-etxeak larriune baten aurkitzen dira, baiña lengoak baiño askoz geiago Erria ta bere jakintzea konturatzen dabez.

* * *

Erakundearen uts aundi bat lez artu legike, gauzea sakontasun barik begitu ezkerro, Aita Santuak Naparroa'ko erregeari jaurti eutsan exkomuniñoa eta, ori atxaki, Fernando Katolikoak Naparroa eskuratzen. Baiña ez aitzu or ez zala izan erakundearen utsik, Fernando maltzuraren joko lotsagarria baiño. Berak asmatua zan Aita Santuaren ezkomuniño-bulea.

* * *

Antxiñatik entzuna da euskaldunak, bizkaitarrak batez be, gotzaiñen jokabide oneri al eben bestean erantzun gogorra emon eutsola. Bizkai'ra sartzea gotzaiñak debekauta euken, eta Fernando Katolikoa Gernika'ra lege zarrak ziñesten etorri zanean, beragaz etorzan gotzaiñak mugan itzi bear izan zituan.

* * *

Gotzaiñari amarrenak emotea be ez jaken atsegin euskaldunai, eta orretarako be bide berezi bat artu eben: Gotzaiñen menpean jarri bearrean, lekaideen menpean jarri eta lekaideak gotzaiñanandik aske ziran ezkerro, euskaldunak be bai. Amarrenak lekaideai ordaintzen eutsezan eta errietako arduradunak "abadeak" ziran, izenak berak agertzen dauan lez, lekaideen buru ziranak.

Izan da ba euskaldunen artean erakundearen aurkako burrukea, eta erakundeak oso-osoan erria aintzat artzen ez ba dau, izango be bai.

Kristiñauen jokabidean ikusten doguz ba alderdi txarrak, batez be erakundearen aldetik. Begiratu dagiguzan orain alderdi onak be.

3.2.2.2. : Alderdi onak

Ikusi ditugun alderdi txarrak ikusi ezkerro, esan geinke edo pentsatu geinke Kristautasuna, edo kristiñauak obeto esanda, Euskalerrriaren arerio lez iñoz jokatu dabela.

Baiña auzia dan lez konturatu bear ba'dogu, ez dagiguzan aitzu alderdi onak.

Gitxienez aspaldiko urteetan, 36'ko gudea baiño zerbait lenagotik beintzat, abadeak eta erria oso alkartuta ikusten doguz erri-minean eta Erriagaitik artzen diran erasoetan. Orduko gotzain zana, D. Mateo, eta gaur Bilbo'ko dana, D. Antonio, bere Erriagaitik eraso aldiak artuak ditugu, naiz ta gai oneri buruz dituen eritxi guztietan batera egon ez erria eurakaz.

Izkuntzari begiratzen ba'dautsagu, gure elertiaren kondairara begiratzen ba'dogu, nork ukatu legike abadeak orretan egin daben lana?

Batzuk proselitismo utsagaitik egiña dala erantzuten dabe. Iñori entzuna dot beste au be: Abadeak ainbeste lan egin dabelako, laikoentzat lanik ez dala geratu edo eurak egin bearrean laikoak lan ori egitera bultzatu bear zituela. Ori be ba da utsak billatu gurea!

Baiña eguna baiño argiago dan egia ezin inork ukatu al izango dau: elerti zarrean. Sabindarren aldian, eta gaurkoan be bai oindiño abadeak egin dituen lanak onenak eta sakonenak, ederrenak eta baliotsuenak izan dirala. Ez dogu asi bearko egilleak eta idaztiak gogoratzen, Etxepare'gandik asi eta Orixe'gañaiño eldu orduko ez genduke lan makala izango.

Eleizetara begiratzen ba'dogu, guda-osteko aldi larria itxi bear ko dogu, an oker asko egin ziralako. Ortik kanpo, eleizkizunetan

euskerea erabilteak, txonitzak euskeraz egiteak, ez dautso indar makala emon euskereari.

Eta eskoletako erdereak gure izkuntzea eriotzarantza daroala ikusirik, oker ori al dan neurrian zuzentzeko, zenbat kristiñau-ikasbide irakaste egin dira euskeraz? Ba dira erriak euskeraz irakatsi bearrean erderaz egiten dabena be, baiña geienbat, Eleizan eutsi jako euskereari.

Gaur ba daukagu ikastolen sortze pozgarria be. Asko dira gurason arduratik sortuak, eta orrek poztuten gaitu. Baiña ez gitxi eleizaren ardurapean eta geletan dagozanak be. Orretan be erakundeak ez da osoan urrinduta egon, Gotzaiñak eta abadeak be laguntasuna emon dabe. Gipuzko'an geiago Bizkaia'n baiño eta Naparroan be, Aldundiaren ardurapean izan arren, abadeak ez dagoz urrin.

Eta alderdi onen artean ez dogu aztu bearko Juan XXIII'aren idatzia, geroa eleiz-batzar nagusian onartua. Enda-erri txikien eskubideai buruz azaldu eban irakatsia esan gura dot. Euskalerririk aiatu barik, baiña zelako argitasuna sortzen dan berba areitatik!

Errimineam punterengo izan diran aurrelariak gogoratzen ba'doguz, ez aitzu Sabin eta Joseba Andoni, euren kristautasun zintzoa, eragozpen barik, indar izan da lan bizi orretarako. Eta gaurko ekinzaillean artean zenbat kristau-eziketa ona artu dabena!

Gaurko giroa, egia esan, ondo nastatua da; baiña ekaitza baretzen danean gauzak bear dan argitasunez ikusiko dira eta kristiñauen jokabidea erriaren alde izan dala iñork ezin ukatu izango dau. Orduan askotasuna ta alkartasuna bateratuko dira gure Erri minberatu onetan.

4.—*Amaia*

Kristo ez jako iñori kaltegarri, salbatzaille ta azkatzaille baiño. Baiña Kristo gizatu egin zan eta kristautasuna be gudanatu baiño le-nago gizatuta egoan. Orregaitik Barri Ona artzen dauanak eta zabal-tzen dauanak auxe bai kontuan artu bear dabe: Kristo'k eta kris-tautasunak jakintza batetik artu dabena ez jakela beste jakintzari ezarri bear.

Orixe izan zan, gauzea sakon-sakonetik artuta, Apostoluak egin eben Jerusalem'go batzarrean artu zan erabagia.

Orregaitik, lurralde ta jakintza bakoitzean sortzen dan eleizeak bere izaera berezia dauka eta bertakotu egiten da, bertako izakereari ta jakintzeari indarra emoten dautso, laguntzaille da ta izan bear dau.

Olako salakuntza bat egin eben Afrika'ko kristauak be: Ara joan diran mixiolariak Europa'ko jakintzea eroan dabela. Eta sala-

kuntza oneri Aita Santuak erantzun egokia emon eutsan, beti be bertako izaerea ta jakintzea onartu bear dirala esanaz.

Kristiñauak bear dan lez jokutzen ba'dogu, iñondik be ez da kaltegarri Kristo, baiña Kristo'ren izenean beste irakatsi batzuk ekarten ba'doguz, orduan ba leiteke. Barri Ona garbi artu ta garbi zabaldu bear dogu ba, eta orretarako alegiñak egin arren be, izan-go dira kristiñauen utsak.

* * *

Eta lantxu onen amaira eldu gara geiago barik.

Gaisakonagoa ta zabalagoa da, baiña kondaira-zaleak eta Elei-zea gai lez artu dabena ikasleak ainbat gai aurkituko dabez euren bilaketarako.

Lana ez luzetzarren ez ditut jakingarrien iturriak izendatu, baiña geienetan ezagunak dira, eta jakintzaleak errez aurkituko ditue.

* * *

Euskalerriak, jakintzaren bide-kurutze baten Kristo aurkitu eban eta bere Barri Ona entzun ebanean, biotzez artu eban barri ori. Zalantza barik, Erria indartzeko, beste erriakaz alkartzeko eta nortasuna galdu barik aurrera egiteko laguntza izango jako Kristo.

Kristo ez da Euskalerrarentzat kaltegarri, Jabe'k Israeel Erria azkatu eban antzera, Kristo'k azkatuko dau Euskalerria, kristiñauak bear dan lez jokatuaz.

GAMIZ

L A B U R P E N A

1.—*Arazoa*: Gaur entzuten dana.— Zergaitik? Azkatasuna ta larriunea gaur. Vasconia liburua.

2.—*Salakuntzak*: Eukalduna iñoiz ez da izan kristiñau, kristautasuna ta euskaltasuna alkartu eziñak dira, kristautasuna gizatuta etorri da eta era orretara gizatuten gaitu, politika batua, monolitikoa, kapitalistea, proselitistea, inperialistea.

3.—*Erantzun bikoitza*: Eretxi aztertzea ta kondairea.

3.1. *Eritxi-aztertzea*: Kristiñau osoa iñor ez, jokera onak kendu ez, jokera

txarrak kendu, kristautasun garbia, "sintesis" on bat, ez monolitikoa, kristautasuna ta kapitalismoa alkartzeko gai ez dira, proselitista ez, otsein baiño.

3.2. *Kondairan zati bi*: onurak eta kristiñauen jokabidea.

3.2.1. *Onurak*: Gorrotoaren aurka, Estibaliz'ko burrukak, bake-aldiak, Eleiz-aurreko batzarrak, sorginkeriak kendu, euskaldunak mundura begira jarri.

3.2.2. *Kristauen jokabidea*: Alderdi txarrak eta alderdi onak.

3.2.2.1. *Alderdi txarrak*: Erakunde baten sartu bear, Erroma'tarren izkuntzea eleizan, Erroma-antzeko izkuntzak eleizan, lenengo gotzaiñak eta leiñuak, Añamendiko mugea onartu, Egoaldeko lau errialdeak erakundean, Gotzain euskaldun gitxi eta euskaldunak be erriaren arerioak, abadeak danetarikoak abadegaien ikaste-etxeetako arazoa, gaurko egoera larria, Aita Santua ta Naparroa Fernando Katolikuaren aldian, Gotzaiñik ez Bizkai'ra, gotzaiñak eta amarrenak, abadeen esku.

3.2.2.2. *Alderdi onak*: Abadeak eta erria oso alkartuta, batez be 36 urte aurretik ona, Gotzaiñen pokera jatorrak, abadeak elertian, euskerea eleizetan, euskerea kristiñau ikasbidean, ikastolai laguntzen, Juan XXIII'aren idatzia aurrelariak kristiñau, gaurko giro larria.

4.—*Amaia*: Kristautasun garbia, Jerusalem'go Eleiz-batzarraren arazoa, Afrika'tarren salakuntzea, Kristo ez kaltegarri kristiñauak zintzoak ba'gara, gai au sakondu bearrekoa, iturriak izendatu barik, Jakintzaren bide-kurutzean Kristo aurkitu dogu euskaldunok, Bera izan beite Jabe'ren antzera azkatzaille.

V

Saski-naski

DONOSTIAKO GOTZAIARI ESKUTITZA

Jaun agurgarri:

Eskutitz au izenpetzen dugunok —apaiz, jesulagun, eskolapio eta jesuitina—, erlijiosoen arteko batzar batean artutako erabakia betetzeko asmotan, eskabide bat egin nai diogu gure Gotzai jaunari begirapen osoz.

Lekaide ta lekaimeek (erlijiosoek) beren Ikastetxeetan zearo arrotz gisara jokutzen dutenez, Euskaljerri'aren eskubideen aurkako langintza daramate, Gotzai jaun orrek ongi dakianez, nexka-mutiko euskalduneri euskeraren aurka itzegiñaz eta jatorrizko izkuntza zapuztu-eraziaz.

Jokabide ori guztia ez "Pacem in teris" eta ez Eliz-Batzar Nagusiaren erakutsietan egoki ez dagonez, Gotzai jaun orrek dei egin dezaiela erlijiosoeri, bidezko eta bearrezko iruditzen zaigu, jatorrizko izkuntza begirapen geiagor ar dezaten eta bizi diran erriari serbitzu ohea egin dezaioten, beste edonork eskatu-ta ez baitute arretarik artuko.

Ortarako, berriz, eskabide zeatz batzuk egitera ausartzen gera, Elizaren onerako eta gure erriaren serbitzurako diran uste osoz eta gure Gotzai jaunak zuzen artuzo dizkigun itxaropenean:

1'go: Agiri naiz-ta eskutitz bat, gutxienaz ere idazti bat antolatzea, eskatzen dugu. Gipuzkoa'ko Gotzai jaun biek izenpetutako idazti bat, gaur, ikastetxe guztietan bear litzakenez, gutxienaz ere Elizaren ardurapeko Ikastetxeetan Euskeraz irakastea bearrezkoa dala aitortuaz eta ortarako bide agokiak ipiñi ditzatela eskatuaz.

2'gn: Euskera irakaste au, eskola-orduz kanpora ipiñi oi dute batzuek, betegarrizat eta itxura egiteko. Orrela bakarrik izengabe, eskola-orduetan sar dezatela eskatzea litzake bidezko.

3'gn: Ain bearrezkoa dan eginkizun ori aurrera eramateko eta irakaskintza egoki antolatzeke, bear diran bideak aal bezain azkar jarri ditzatela, eskatu bearko litzaeke. Bideak jarri, naiz erlijioso euskaldunak obeto gertutuaz, naiz atzerrian dabiltzanak onuntz ekarriaz, eta guztieri gertuetara berezia edo ikasketak egin-eraziaz.

4'gn: Gotzai jaun agurgarriok egindako idazti orrek, bere ondoren onurakorra ekarriko baldin ba' du, ez luke izan bear —gure ustez beintzat— korreoz bidalia eta beste gabe utzia; askoz eraginkorrago izango litzake, talde arduradun baten esku ipiñiko ba-litz, talde orrek erlijioso-etxe guztierara eskuz-esku zabaldu dezan.

Auxe da, Gotzai jauna, izenpetzen dugun eliztar guztion eskabide zeatza, beste askok eta askok ere gauza bera eskatzen duten ziurtasunean eta apaltasunez bezain itxaropen aundiz egiña.

Gorde dezala Jauna urte luzez gure Gotzai jauna. Pinillos'tar Luken, Eskolapioa. Toledo'tar Nekane, Jesús'en alaba. Garmendia'tar Juan Jose, apaiza. Arabolaza'tar Jon, Eskolapioa.

Tolosa'n 1973'go uztaillean.

GOTZAI JAUN TXIT ACURGARRIA. DONOSTI'ra.

VILLASANTE AITAREN «AUXULAR'EN HIZTEGIA»

Aita Villasantek egin berri duen liburuak «Axularren Hiztegiak) ez du nik aurkeztu bearrik. Egilleak berak naiko aurkeztua du, an eta emen, Euskalerriko uririk nausienetan, eta euskal-al-dizkariak ez dira otz egon aren gorespenetan. Gure klasikorik ospetsuena iñork ere ez omen du ezagutzen Euskaltzaindiaren buru degun onek baiño sakonago, eta oraingo onekin Axular zaarraren euskera ezagutzeko lanik egokien eta bearrezkoena egin omen du; eskuetatik ezin utzizkoa. Ez det uste iñork utsik edo akatsik aurkitu dionik. Orainsu samar gure arteko idazle batek esan dituen itzak erabiltzeko, oso «crítica constructiva» egin zaio, alegia, edozeri *amen* esan bear diotenena, «en roman paladino conformismo beato» besterik ez danaren estalgarri. Baiña *amen-Jesuska* utsean ibilli bear ote degu? Eman diran gorespenei ezer kendu gabe, beste egitekorik ez ote degu izango? Axular guztiona da; guztiona, arena gure euskera, ez bakarrik orrena edo onena. Eta edozeiñek izan dezake zer esan, eta guztiok lagundu bearko diogu elkarri argi billa. Ez da besterik nere asmoa ere, lerro auek idazten. Idazlea lore utsez estalita utzirik zer aurreratzen degu? Ea uts batzuk salatuz, Aita Villasanteri, urrengo argitaraldiak (esan digutenez) obeak eta akats gutxiagokoak egiten laguntzen diogun.

Eta, asteko, utsune andi bat ikusten det nik Villasante Aitarren liburu onetan: ez atzizki ez aurre-izkirik ez du jaso, baitedo *baitan* izan ezik. Euskal-iztegiek (Azkue, Lhande) leku andia ematen diete itzen osagarri oiei, eta bai bear ere. Axularrek badu ortan zer erakatsi, eta guk an zer ikasi: —*Ago*, aditz-forma batzuekin (galtzenago, urruntzenago): —gatik ere berdintsu, nordun aditz-formekin (*barka diazagungatik*), besterik ez aipatzeko. Pisistrato, Kleomenes, Lisimako, Abradat eta euskerarekin ikuskizunik ez duten beste ainbat izenez liburua betetzea baiño ez ote zan askoz bearrezkoago eta obe beste atzizki oien berri sartzea?

Ekidin itza ez du egilleak zegokion lekuan sartu, baiña uts ori zuzendu du gero. Beste utsune batzuk ere bete bear zituen eta ez du egin. *Salho* ez degu iñon aurkitu. Orain «proposamen-

du” edo “arrakasta” esango lukete. “Iarraitunik izan eztena, mandaturik edo *salhorik* egin etzaikana”, dio andre batez. Itz ori ulertu nai duenak Azkue edo Lhanderengana jo bearko du. Etxe-dun sartu duenak *alabadun* ere zergatik ez? *Erraile, ahantz-ordu, goganbeharrazi, aldanahitu, abenikoazkoa* (ez *aldaguratu* eta *abenikoa* bakarrik), eta olako beste itz batzuk bear zuten beren lekua. GOGARA itza ez da bakarrik A GUSTO; izentzat ere eta pluralen erabilli du Axularrek: *bere gogarak gatik*. Berri eta *lehenbizi* sustantibotzat ere baditu: berri hartan, lehenbizi hartan.

Geienetan, iztegi onen egillea ez da asko saiatu itz bakoitzaren adiera bereziak zeatz eta maillazmaila bezela ematen. Gauza jakiña da, itz bati aldamenen dituenek argi eta esan-nai berezia ezartzen diotela sarri. Ar dezagun, adibidetzat, EGITEKO itza. Klasikoetan asko irakurtzen da onako esaeretan (eta Axularrengan geien): egitekotan sartu, egitekotan ibeni, egitekotan ibilli egitekotan izan (*egitekoak egitekotan direnean*). Villasantek ez du jakin, ez du asmatu olako esaerei beren adiera eta koska berezia billatzen, askotan beintzat, *sendagailla* itzarekin alatsu gertatu zaio. Obe zuen, itz orrek zer esan nai duen Azkue edo Lhandenetik artu balu. Ez du jakin erderazko *hazaña* eta *proezatik* ateratzen, eta itz ori ez da egokiena Axularrek esan nai zuena adierazteko. Sarako erretorak esan-nai berdiñekotzat erabilli zituen prezatu, loriatu, *sendagailla* egin, *sendagailla* egin, *sendagailla* eritzi. Beste bein *sendagaillaz bezala* itdatzi duenean, aldamenen dauka adierazgarria: HORE BAILLIZ BEZALA. Azkueren *jactancia* eta Lhanderen *vanterie* egokiako daude, bata nai bestea, Axularrek esan zuena erderatzeko, Villasanteren erderakada badaezpadakoak baiño. Eta non utzi du LEGUN, Axularrek leun eta legun erabilli baititu?

Goazen orain beste uts eta utsune batzuetara. Non da iztegi onetan Axularren *ailliotza* ulerterazi eta erakusteko argibiderik? Azkuek eman zigun, Lhandek ere bai. Aurre-izki bat degu or, aditzaren era batzuetan erabiltzen dana. Ez ote zegokion lekutxo bat Axularren itzen artean? Aaztu egin zaio Aita Villasanteri, oarkabez edo. Baiña beste bat oarkabez ez, ez-jakiñez utzi duela esango nuke, ALBAIT edo *albei* aurre-izkia, XVIII menderate idazle batek baiño geiagok inperativo-era bat osatzeko erabilli oi zutena. Argirik naiko eman du ortaz orain il berri degun Lafon jaunak: *prescriptif* esaten dio, eta Leizarragak eta Etxeberri Ziburukok asko erabilli zuten; Axularrek ere bai, bein edo berri-tan. Lafon ez zan izan orratio, aditz-era orren aurkitzaille eta leenengo maisu; askoz leenago eman zigun aren berri Etxeberri Sarakoak. Beste Etxeberriren bertsoetatik jasota, ainbat olako forma eman zizkigun, eta Axulartarrik axulartarrena izan zan onek

bere maisu maitearenak ez zituen jaso gabe utzi, latin irakasteko liburuan: “Gauza baten egitera zohazinean, eta zeure adiskideak eztagizula erraiten deratzunean, ez albaizenegi, gibela albaizindezi”. Villasantek ez du orko aginte-era ori ikusi, eta ez du zeatz itzuli al izan erderara. Zer dira ez *albaizenegi* eta gibela *albeitzindezi* ori? Zer esan nai dute? Ez egizu egin eta ez zaitez atzera abia, besterik ez. Lafonek zioenez, inperatibo orrek ez du agintzen berealakoan egiteko ezer, geroago ordua datorrenean egiteko zerbait baizik.

Azkenez beste *ahantz-ordu* bat izan du Villasantek *ala* itzarekin. (Ala ez-jakiñen bat?). Lafittek *exclamatif* esaten dion ALA ori ez da Villasanteren liburuan ageri, mugaz andiko euskaldunen artean oso erabillia dan arren. “Beretteretxen” kantuan agertzen da: “Andozeko ibarra, ALA ibar luzia!... Ezpeldoiko bukata ala bukata ederra! “Oraingoetan ere bai: “ALA baita dolu-egingarri amodioetan dena!”. Olaxe, gero, H-rik gabe, Ala Jainkoa, ala zu, eta olako oi-esaeretan bezela. “Ala ni, idazten du Axularrek, plazer apurratik... errege eta librea nintzena, mutil eta gatibu egin bainaiz!... Ala ni, deus gutigatik... Jainkoaren adiskide nintzena, etsaitu bainaiz!”. Aita Villasantek ez du artu esaera orren muiña, eta ALA orrek ez du lekurik bere iztegian. Gaiñera, beste pekatu bat egin du emen: azkenengo ALA ori. ESPIRITUALES ESPAÑOLES-entzat egin zuen argitaraldian H-kin eman du. Nonbait ere, gaizki eta oker ulertu zuelako. Bere maixuari zuzendu bearrez, zorioneko letra ori jainko txipi salbatzailletzat artu dutenei atsegin emateko edo, aren aldarera bere kandelatxoa ekarri gabe ez da gelditu.

Nik uste det, nola nai ere, pekatu ori erderazko *vaqueta* itza euskal-iztegiatan ez sartzea baiño andiagoa dala; leenago aipatu ditugun utsak barne sartzen baditugu, areago. Gauza bitxia, erdal-dun “espirituales” diranentzat esan zuena; jakin ez, euskaldun jakintsuenak aien aurrean lotsagarri uzteko, ala bere burua farragarri jartzeko, izan zan. *Vaqueta* zer zan jakiteko, erdal-iztegiara jo bear izan omen zuen. Nonbait itz ori ez zitzaion gertatu erderaz ere berealakoan ulertzekoa, eta erderazko iztegiaren batean ikasi bear. Non, bada? Baiña euskal-iztegiek erdal-iztegia osorik barnean sartu bearra ote daukate? Urkijo zana iritizi zabalekoa zan gai onetan, baiña ez zuen orrenbesterik nai. Eta Aita Villasantek uste al du Urdazubiko semeak bein idatzi zuen itz ori, Sarako semeek berak baiño errezagoo ulertuko zutela? Ez du, bada, beste iñon aztarna andirik utzi. Nik uste det “Espirituales Españoles” liburu-sortaren irakurtzaileek txunditurik gelditu dirala, baldin irakurri badute, Villasanteren ateraldi eta aserrearekin.

Danari "amen" esan eta omen egiteari utzita, *conformismo beatorik* gabe aztertu nai duenak, zer zuzendu eta zeri *bañaren bat* ipiñi aurkituko du *Axularren hiztegi onetan*. SOIÑA itzarekin egiñak ere eman dezake aririk naiko. Baiña beldur naiz, gauzarik bi-txienean izenean (ezkertiar-demokrata-neutralen izenean, esaterako) amenka eta omenka utsean ariko danik geiegi izango ez ote degun. Nik berriz diot: Axular eta euskera euskaldun guztiona dala eta guztiok egin bear degula al deguntxoaren GERO obeki ulertzen eta aren urrengo argitaraldiak naiz itzulpenak obeak izan ditezten.

Ezpeldoiko bukata, ala bukata ederra!

S U - B A Z T E R R A

SARDIÑAK ERRETZEKO

Sua ikatz-egurrezkoa onena; eta arranbarrilla.

"Butanoa" besterik ez badezu, burni-txapa bat edo zartagia edo "karmela" bat.

Auxe onena.

Sardiñeri ez triparik kendu.

Ez garbitu.

Ez ezkararik kendu.

Erretzeko momentuan gatza ugari bota, bildurrik gabe.

Sardiñak koiperik ez badute (ez erretzea obe) eta erre nai badituzu, oliotan busti.

Arrai erreak egiña bear du izan ez gordiñik; baña asko erretzen badezu, gustoa galtzen diozu eta legortu.

Bein gordintasuna kendu ezkeroz zenbat eta gutxiago erre eta arraia ohea, zuku geiagokin. Ortan dago sukaldariaren abilidadea.

Orregatitik, arraia erretzen asi bear da, jendea maiean jarri ondoren; ez beintzat goizeko amaiketaren erre, ordu bietan jan bear dan arraia. Ortarako ohea zenduke abarketa zaarrak eman arraiaren orde; antzekoak izango dituzu biak...

MARMITAKO

Atuna.

Patatak.

Tipula.

Pipar berdeak.

Tomatea.

Olio.

Ura.

Gatza.

Eta marmita.

Aspalditik mariñelak jarri izan oi duten antzera:

1) Tipula ugari zatitu.

2) Olio jarri marmitan eta tipula bota.

3) Tipula biguntzen danean pipar berdeak erantzi. Apur batean egiñ.

4) Ondoren, tomate.

5) Geroago, ura ipiñi eta patatak lau-kuadroko zati koskorretan.

6) Gatza bota.

7) Patatak egiten diranean, atuna bota ezur eta azalik gabe, zati txikietan eta gordiñik. Ogei minutuan egotzen euki.

Saldatsu gelditu bear du.

Koipe geiegi balu, kendu.

Patatak eta abar atuna baño askoz geiago bear dute izan.

Pipar-miña bota ala ez zure aukeran dezu, 'gustoekin ez bait dago disputarik', esaerak dionez.

Batzuek sopakoa bota oi diote eta tapioka apur bat. Legetik kanpokoak dituzu, baña ez dira txarrak.

BAKALLUA PIPARAUTZAKIN.

(1930'an Pillipa Aranburu'k, Lekeitio'ko Arranegi kalean, ipintzen zuan eran).

Tipula.

Pipar-autza.

Olio.

Ura.

Gatza.

Patatak.

Bakallua.

Lurrezko kaxuela. (Berak egur-ikatz erabili oi zuan sutarako).

Lenengo eta bat au ondo gogoan artu: bakallua denbora luzean eta ur-presko-ugari-etan beratu bear dala.

Zenbat denboran? Ogeitalau ordutik aurrera. Zatiak lodi ba-
dira, ordu geiago, ur ugarietan eta maiz aldatutakoetan.

Beratu ondoren, eskamak kendu bakalluari.

1) Tipula ugari ebagi zatitxoetan.

2) Olioa jarri lurrezko ontzian, su-geiegirik gabe, su-biziak tipula erre egiten bait du. Tipula doratzen asten danean, pipar autza bota bertara eta egurrezko kollara batekin naastu.

3) Segundu batzuen ondoren, ura bota eta patatak zabal-zabal ebagita.

4) Gatza, bakallua ondo beratu bada.

5) Patatak egosi diranean bakallau-pusketak erantsi, azala gañetik geraten zaiela.

6) Pil-pil, su-bizirik gabe, ogei minutuan euki irakiten.

“Patatak gitxiago eta bakallua goxuago”, esan oi zuan.

ARRAIÑ-ZOPA

Azpeiti edo Azkoitin-nun gertatu zanik ziur ez dakit. Xapotarrai galdetu ezkerro, zalantzik gabe esango dizute, Azkoitian gertatuzalla; baña, galde azkoitiarrai...!

Dana dala eta dena den, ona gertatua.

* * *

Gazte-kuadrilla artean bada oitura asta-kumeak jateko.

Gaste-talde batek asta-kuma guri-guri bat erosteko asmoa artu zuten, lagunarteko apari ederrara egiteko esperantzan.

Pentsa bezela, egiñ.

Urlia'ren baserrira joan eta lau illabeteko astakume otsan bat erosi zuten, buru-aundixamarrekoa bera, ille-matasa kixkurra belarri-artean eta bi begi borobil iñosenteak arpegian...

* * *

Ill zuten asto gaxoa eta arren okelakin zer egiñ, ori zuten aska bearrezko korapilloa eta ezta-baidaren kinka:

—Erdia, burruntzian erreta, janen diagu-zion Pototo jakintsuak.

—Ta beste erdia...?

—Egosita, lur-sagar edo patatekin.

—Ondo, ondo-Oto'k erantzun, aotik lerdea dariola apetituaren birtutez eta gosearen eragitez.

* * *

Guztiok onartu zuten Pototo'ren erabakia eta Oto'regin bat zetozten.

oit

Ud

son

Ai

me

txi

ug

me

Ka

be

sas

zu

me

ora

be

Ik

ala

bie

Ar

au

Bi

ur

luz

go

arg

ill

be

ne

Eg

eta

ete

ga



